

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mañaria



Aurkibidea

Udalerria: Mañaria

Sarrera



Bizkaiko hegoaldean dagoen udalerria da, Durangaldea eskualdean. Iparraldean Izurtzarekin, Hego-mendebaldean Dimarekin eta Ekialdean Abadiñokin egiten du muga. Urkiola Parke Naturalean kokatuta dago, izen bereko mendatearen oinean, Durango eta Gasteiz lotzen dituen errepidean. Kareharrizko lurren ugaritasuna dela eta, eraikuntzarako harrobien uztiatzeak egiten dira. Mendebaleko euskararen aldaera bat da herriko eta inguruko jatorrizko euskalkia. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMako (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 518
- **Euskaldunak:** %88,36

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **25**
- Zintak: **37**
- Pasarteak: **360**
- Transkribatutakoak: **63**
- Audioak: **25**
- Bideoak: **335**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Durango 1936
- Mañariko ahotsak
- Mañariko grabazio zaharrak

Hizlariak

Miren Aldekoa Gorospe (1932)

Arrueta auzoko Iturri baserriko alaba. Gurasoak ere Mañarikoak zituen, aita bere jaiotetxe berekoa zen.



Umetatik oso bizimodu gogorra ezagutu eta izan zuen. Lau urte zituela, aita gerrara joan eta ez zen berriro bueltatu. Hori dela-eta, amak etxeko eta kanpoko lanak egiten zebilela, berak bere neba gaixoa zaindu eta etxeko martxa eramaten lagundu behar izaten zuen. Ez zen ia eskolara joan eta lehengusu baten eskola partikularretara joan zen. Baserriko bizimoduarekin lotuta bizi izan da beti. Senarra Dimakoa du.

Adrian Amantegi Arteaga (1928-2018)

Aldebaraieta auzoko Baseta baserrian sortu zen, baina urtebete zuela kalera joan ziren bizitzera. Aita bertakoa zuen eta ama umetan Arratiatik herrira heldutakoa. Beraien etxean taberna-denda izan zuten, herriko batzokia ere izan zena. Gerra heldu arte, herriko eskolan ibili zen. Gurasoak gerra hasieran Bilbora joan ziren eta aita kartzelan izan zuten. Neba-arrebak Belgikara joan ziren eta bi urtez egon ziren erbestean. Herrira bueltatzerakoan, etxea, taberna-denda, harrobia, harrobiko 3 kamioiak... errekiatuta izan zituzten. Gerraostean, Durangoko maristen ikastetxera joan zen, baina aita gazterik hil zitzaionez, 14 urterekin aitaren harrobian hasi zen lanean. Gerora, berak eraman du aitak 1927an martxan jarritako Amantegi harrobia eta familiako gainerako harrobien gidaritza eta ardura.



Jabier Arteaga Bernaola (1947)

Mañariko Tellerian jaio zen bost neba-arrebatatik gazteena zen familia batean. Ama bertakoa zuen eta aita Dimatik hiru urtegaz etorritakoa. Umetan herriko eskolan ibili zen Durangoko maristetara joan aurretik. Hiru urtez monagilo lanetan aritu zen abadeari laguntzen. 1979an zinegotzi lanetan hasi zen eta 16 urtez aritu ostean, beste 16 urtez, 2011ra arte alkate izan zen.



Daniela Bernaola Agirre (1938)



1938. urtean sortu zen Mañariko Telleria etxean sei neba-arrebako familia batean. Gurasoak ere bertakoak zituen Danielak. Umetan herriko eskolara joan zen. Mañariko Bodegako eta Herriko tabernako arduraduna izan zen urte luzez, guztira 20 urtez aritu zen tabernari lanetan. Senarra ere Mañarikoa zuen. Bere ahizpa [Lourdesekin](#) eta bere koinatu [Anastasio](#)rekin batera egin genion elkarrizketa. Argazkian, ezkerrekoa.

Lourdes Bernaola Agirre (1932-2023)



Mañariko herriko etxean jaio arren, gaur egun Herriko taberna dagoen lekuan, hiru urterekin Telleriara joan ziren bizitzera eta bertan hazi zen. Sei neba-arrebatatik zaharrena izan zen. Umetan Mañariko eskolara joan zen eta baserriko lanetan ibiltzen zenez, sarritan joaten zen Durangoko plazara baserriko jeneroa saltzera eta baita Eibarrera bertako gerezi entzutetsuak saltzera. Bere ahizpa [Daniela](#)rekin eta bere senar [Anastasio Urizar](#)rekin batera egin genion elkarrizketa. Argazkian, eskumakoa.

Jose Luis Bizkarra Etxebarria (1930-2011)



Aldegoiena auzoko Askondo baserrian jaioa eta bizitakoa. Aita bertakoa zuen eta ama Dimakoa. Gerraostean hasi zen herriko eskolara, eta gerora 30 urtez bere etxe ondoko marmoldun harrobian ibili zen lanean, Askondoko harrobian. Bere emaztea ere Mañarikoa da eta tartera elkarrizketan ere parte hartzen du.

None Dominga

Santa Luzia auzokoa. Senarra Mañariko aguazila izan zen urte askoan eta bera ere hari laguntzen ibiltzen zen.

Isabel Etxanobe Oteiza (1926-2013)



Mañariko Abadetxean jaio zen, baina Urkuletan hazi eta bizitakoa da. Gurasoak ere mañariarrak izan zituen. Umetan herriko eskolara joan zen, baina denbora gutxian baserriko lanak eta gerra tarteko. Gerra sasoiari, gainerako auzokideek bezala, etxea utzi eta herri aldera joan ziren amamarenera. Beti aritu zen baserriko eta etxeko lanetan.

Ali Goiti Agirre (1926)



Etxandi baserrian sortu zen 1926. urtean. Gurasoak ere mañariarrak zituen: aita bere jaiotetxe berekoa eta ama Urkuletako Barrenengoakoa. Lau ahizpa eta neba bat izan ziren, baina neba txikia gerran hil zen hiru hilabete zituela. Gerrako kontuak oso ondo gogoratzen ditu. 25 urterekin, Motxokoneko presara ezkondu zen, bertako errotan herriko argindar zentral bat zuten.

Arantzazu Goiti Barrenetxea (1922-2012)

1922. urtean jaio zen.

Manolo Goiti Belakortu (1931)



1931. urtean sortu zen Mañariko Aldebarrena auzoko Ormaetxe baserrian, aitaren jaiotetxe berean. Zazpi urte zituela hasi zen herriko eskolan, baina 13rekin Durangoko "Artes y oficios"era joan zen 18 urtera arte. Hainbat lantegitan aritu ostean, 1962. urtean lurretako Fungarbi fundazioa sortu zuen beste bi bazkiderekin batera.

Petra Goiti Goiti (1929-2018)



Arrueta auzoko Uxarte baserrian munduratu zen 1928. urtean. Gurasoak ere Mañarikoak zituen. Gerra garaian, aita frontean izan zuten eta ama kartzelan. Gazterik utzi zuen eskola, eta etxeko nagusiena zenez, etxeko lanetan hasi zen eta Santa Apoloniara (lurreta) joan zen umezain pare bat urtez. Gerora, lau urtez egon zen Durangoko San Faustoko Simona tabernan neskame lanetan, baita ezkondu ostean ere. Gizona Garaikoa izan zuen eta bost seme-alaba hazi zituen.

Teofilo Goiti Goiti (1930-2026)



Arrueta auzoko Uxarte baserrian jaio eta hazitakoa. Gurasoak ere auzo berekoak zituen. Bost neba-arreba izan ziren eta horietatik hiru umetatik neskame eta morroi joan ziren. Teofilo bera zortzi urterekin lurretako etxe batera joan zen eta handik bederatzi urtetatik 13ra arte Aramaioko baserri batera.

Aurelio Ikobaltzeta Goiti (1939)



Arrueta auzoko Beaskoa baserrian jaio zen. Gurasoak ere Mañarikoak zituen. Umetan eskolara joaten zen bitartean artzain lanetan ere ibiltzen zen. Hala ere, Aurelioren arabera, eskola onena 16 urtetatik soldadutzara arte izan zuen herriko okindegian, bertan aritu baitzen denetariko lanak egiten. Igeltsero bezala aritu ostean, 26 urterekin Izurtzako Fonseco lantegian hasi zen; bertako lehenengo behargina izan zen, eta 30 urte zituenetik erretiroa hartu arte arduradun zereginetan ibili zen. Frankismo ostean, Mañariko alkatea izan zen, ikurrina udaletxeko balkoian zintzilikatu zutenekoa. 30 urte zituela, emaztearen etxera joan zen bizitzera, Urkuleta auzoko Barrenengoara.

Margarita Ikobaltzeta Goiti (1934-2023)



Arrueta auzoko Beaskoa baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da ordudanik. Gurasoak ere Mañarikoak zituen; aita bere jaiotetxe berekoa eta ama Iturrietakoa. Umetan 12 urtera arte eskolara joan zen. Josten ikasten ibili ostean, 19 urtegaraz neskame joan zen Durangoko etxe batera. Gazterik hasi zen ardiak zaintzen eta gazta egiten.

Maria Elisa Ikobaltzeta Goiti

Arrueta auzoko Beaskoa baserrian sortua.

Luzia Inzunza Arteaga (1925-2017)



Mañariko Ortuoste baserrian jaio zen bost neba-arrebako familia batean. Aita bertakoa zuen eta ama Mañariko beste baserri batekoa. Sei urterekin hasi zen herriko eskolan eta gerrara arte bertan egon zen. Gerra sasoian, aita behi birekin Larraskitura joan zen, baina neba-arrebak amarekin gelditu ziren etxean. Egunez, etxe inguruko kobazuloetan ezkutatzen ziren erasoen erdi-erdian egon ziren-eta. Oso ondo gogoratzen ditu gerrako bizipenak. Beraien izeko bat Emakumeen Batzako kidea eta mitinlaria izan zen. Hamahiru urterekin, Mañariko Pedro Baltzena tabernara eta karteritzara (postetxe) joan zen neskame lanetan. Gero, hamabost urterekin, Durangora joan zen eta bertako pare bat etxetan egon zen berriro ere neskame bezala. Bere etxe bereko beste etxebizitzako semearekin ezkondu zen, herriko eta inguruetako dultzainero eta artzain ezagunarekin. Bederatzi seme-alaba izan zituzten. Herriko gertakizunak, istorioak zein kantuak oso ondo ezagutzen ditu Luziak.

None Justo

Izatez Dimakoa da, baina Mañariara ezkondu zen. Bere emazte [Mirenegaz](#) eta beraien laguna den [Maria Angelesegaz](#) batera egin zitzaion grabaketa hau.

Emili Magunazelaia Bizkarra



Mañarian bizi izan zuen gerra garaia Emilik. Durangoko bonbardaketan aizta bat hil eta beste bat zauritu zioten. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936](#) Elkartekoek, [Adrian Amantegi](#) senarrarekin batera.

Estanis Mañarikua Belakortu (1913-2012)



1913. urtean jaio zen Labarrondoerdikoa baserrian. Ama bertakoa zuen eta aita Durangoko Intxaurrondokoa. Bost neba-arrebatatik mutil bakarra izan zen. Herriko eskolan eta Durangoko maristen ikastetxean ibili ostean, Madrilera joan zen herri-lanetako laguntzaile ikasketak egitera; hori dela-eta, gerora eraikuntzan aritu izan zen lanean. Gerra aurretik batzokiko idazkari lanetan ibilitakoa eta gerran gudari joandakoa. Itxasalde batailoiko tenientea eta kapitaina izan zen Laredon atxilotu zuten arte. Duesoko kartzelan eta Puerto de Santa Mariako langile-batailoian egon zen hiru urte eta erdiz. Bilboko Ganboa y Domingo enpresan 10 urtez behar egin eta gero bere kontura hasi zen lanean. Hainbat eraikin egin ditu Euskal Herrian zein kanpoan. Elkarrizketa egin aurreko 45 urteetan, Kanaria Handia uhartean bizi izan zen, bertan eraiki eta zuzendu baitzituen hainbat hotel eta baita bertako lehenengo talasoterapia ere, Gloria Palace hotel-katekoak hain zuzen ere. Hala ere, urtero etorri izan zen bere jaioterrira. Emaztea ondarrutarra du.

None Maria Angeles

Bere lagun [Mirenegaz](#) eta haren senar [Justogaz](#) batera egin zitzaion elkarrizketa 2008an, Mañariko antzinako kontuak jasotzeko asmoz.

Rufino Mendiolarai (1910)

1910. urtean jaio zen Orozkon. Bere amaginarreba zen [Andresa Solaguren](#)ekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Pantxika Ortuzar (1917)

Andresa Solaguren (1895)

1895. urtean jaio zen mañariar emakume hau. Bere alabaren gizona zen [Rufino Mendiolagarai](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Anastasio Urizar Belakortu (1923-2017)

1923. urtean munduratu zen Labarrandobekoa errotan, gaur egun zerrategia dagoen tokian. Baina lau urte zituela, Urkiola bidean dagoen Kaltzada bentara joan ziren etxekoak. Aita Aramaiokoa zuen eta ama Mañarikoa. Herriko eskolara joan zen gerra aurretik, eta sasoi hura eta gerra garaia ere oso ondo gogoratzen ditu. Euban eta Durangon egon zen gerratean eta Durangoko bonbardaketa osteko hondakinak batzen eta garbitzen ibili zen. Herriko dantza-taldeko kidea izan zen. Bere emaztearekin, [Lourdes Bernaola](#)rekin, eta bere koinata [Daniela](#)rekin batera egin genion elkarrizketa.



Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Elizpean aitarekin bazkaltzen

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/002
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Nebarekin eskolara joaten zen garaian, aitak harrobian egiten zuen lan. Bazkalorduan, neba okindegira joaten zen ogi bila, Luziak amak kapazuan ekartzen zuen bazkaria jasotzen zuen, eta neba-arrebak aitarekin elkartu eta hirurek bazkaltzen zuten. Euria egin zuenean elizpean bazkaltzen zuten.

Transkripzioa

- Gerria sartu zan, nik hamar urte nekela. Ez dakit hori esan biher bot.
- Bai, bai, zuk dana kontau.
- Hori sartu zan. Gerri sartu zan. Bueno lehenukuek esan biher dot: eskolara sei urteaz hasi nitzen, zazpiaz komuniñue ein naban. Ta gero, eskolara; eskolara be, gitxi, gitxi. Nire aittek, eitta eban kanteran bihera. Horrek kanterok, ikusten dozuz hor dauzenak? Holako baten, hor eitte aban bihera. Ta gu neba nausidxe, Zelestino ta ni, eskolara. Ta amak, ataratzen doskun bezkeidxe. Guk urtetan giñun hamaiketa erdietan eskolatik, ta

aittek urteten aban hamabidxetan kanteratik. Ta amak ataraten oskun bezkeidxe bidera, gure baserritik hona behera. Ta eitten giñun, batak urtetan geuntsen nebiek edo nik amai bidera, bazkaidxe hartzen. Kapazuaz ekarten oskun lapikokue-ta, ba euena. Ta bestiok juten giñien panaderidxara, ogidxe hartzen bezkeitteko. Ta gero amak emiten oskun kapazuoi. Gu aitte etorten jakun, aittaz bazkaldu, kapazue ixten giñun, atzera eskolara jun orduko hor beheko baserri baten, eskolatik urten ta gero atzera hartu kapazu ta etxera. Euridxe bazan, kanpun eitteko txarto bezkeldu. Elixpera juten giñien, elixpera.

1.2. Eskolan ikasitakoak eta jolasak

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/004
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Irakurtzen, idazten, matematikako lau erregelak eta josten ikastea ziren eskolan ikasitako guztiak. Eskolara joatea ez zitzaion gustatzen, baina jolas-orduak gogokoak zituen. 'Ixerka', 'kriaka' eta orduko beste jolas batzuk gogoratzen ditu.

Transkripzioa

- Ta zertzuk ikesten zenduezan eskolan?
- Ba bueno, ni neuk ikesi nebana ez zan besteik izen: “sumar, restar ta dibidir”, apurtxo bat. Akabo, gehidxo bapez!
- Semea: Bai, ta leidu ta idatzi. Leidu te eskribidu.
- Bai, bueno, leidu bai.
- Ta laborak be bai?
- Pixkat. Bai, pixkat bordetan be, pixkat eitten geñun. Baiñekie be baitte. Ta hori be eitten geñun, baia gero gerri sartu zan.
- Ta zu eskolara, gusteten jatzun eskolie, gusteu?
- Ba asko ez!
- Ez?
- Endemas gerraostien.
- Lagunekaz egotie-eta?
- Ha gehidxa. Eskolie ez ez jakun gustetan. Han, errekreuen ta urteten giñun orduen, olgetie, idxerka-ta. Horrek ez dakizue zuek zertzuk dien.
- Idxerka?
- Idxerka, kubike-ta.
- Esplikeizuz zertzuk dien.
- Ixerka izeten zan: pareren gaiñien neskak eta mutillek. Bueno, alkar harrapetan. Harrapetan zana, “fuera” kuadrillatik. Han ibiltten giñun aiñeketaik, baie justu-justuen iguel be, hantxe azkenien be, arkondara edo bruse edo beuken, handidxeik heldu eta iguel eutsi. Hantxe. Ta holantxeik olgetan geñun. Beste bat, kriaka be esaten gontsen. Kriaka, gordetan ibiltten giñien ta ha, topetan.
- Ta kubike?
- Kubike? Kubike ha be gorde izeten zan. Baia gorde, ha eitten zan kriakaz.

Kriaka, harrapetan izeten zan haidxe be. Nik idxe ahaztute be! Kubike gordetan. Ta ha topetan, ene! Ha idxeten zan ona! Ba kubike gehidxaue eitten geñun, euzuek etxien; euzuek lagunek, etxietan ta holan. Kanpun be iguel. Iguel, arbol ostien edo gorde edo hara iturriraiño edo juenda han azpiko zera baten edo. Baia ez. Politte izeten zan hori be. Gehidxen gustetan jatena niri izeten zan, kriaka, harrapetan.

1.3. Eskolan gerra aurretik euskaraz

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/009
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:20:59. **Bukatu:** 00:22:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
 - Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan gerra aurretik euskaraz egiten zuten, nahiz eta liburuak erdarazkoak izan. "Bobo y tonto" izenburuko liburu bat gogoratzen du. Arbelari "tablerua" esaten zioten. Errepublika garaian, ikasgelan gurutzea zegoela gogoan du.

Transkripzioa

- Eta eskolan, zuek zelan eitten zenduen, euskeraz edo erderaz?
- Guk gerra aurretik euskeraz. Gerraostien zien komeridxak! Ze gerra aurretik beti euskeraz.
- Ta liburuek-eta?
- Liburuek-eta erderaz.
- Baia euki zenduezan orduen liburuek?
- Bai, bai, bai. Bai.
- Zelakoak zien edo ze, akorduen dekozu?
- Liburuek zelakoak ziren bai. Baten izena bakarrik dakit. Haidxe topetan ibiltten giñien, fazillena irakurteko-edo ez dakit zer zan. "Bobo y tonto" ipintten eban ta.
- "Bobo y tonto"?
- Bai.
- Ta zer zan, leidutekoa edo?
- Bai, leidutekue. Ta gero ba hori: lantzin bat, lantzin bat, maistran aurretik pasetan giñien, geuri imiñtten euskuezan leziñuek hantxe leidu, ta ba pasetan gilien. Ta gero, tableruetan: "sumar, restar".
- Tableruetan edo pizarran?
- Edo pizarran. Tableruek, tableruk esaten dot, baia pizarrak.
- Bai, tableru.
- Tableru esaten gontsen baiña pizarrak eskribitako.
- Ta eskolan banderak eta banderaren bat-edo euki zenduen?
- Gerra aurretik ez dauket hori akordurik.
- Errepublikanue edo ez?
- Ez dauket.
- Edo kurtzak, kurutzie?
- Kurutzie bai. Kurutzie beti.
- Bai, Republikan be bai?

- Pentsatzen dot baietz. Neure akordun kurutzie, beti eoten zan han, maistriren parien.
- Ze zu, Republikan hasi ziñen eskolan.
- Ba hasiko nitzen. Ez dakit nik Republiki edo zer zan . Gero gerrie badakit izen zan baiña...
- Hemen Republikie-ta, ez zenduen igerri, ezta? Republikie zanik igerri be ez.
- Ez, ez, ez, ez. Baiña ez jakon igertzen.
- Mañeridxen ez?
- Hasi zaniñen orduen, bonbardiauten ta orduantxe, hasi zien soldauek etxietara-ta orduen. Baia ostien aurretik ez dot pentsetan.

1.4. Eskolatik irten eta etxera lanera

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/011
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:23:17. **Bukatu:** 00:26:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolatik irten eta etxera joaten zen. Umezain, itaurrean egitera edo iturritik ura ekartzera bidaltzen zuten. Behiak ura edatera basora eraman behar izaten zituen. Arropak etxeko harraskan garbitu eta astintzera errekarera eramaten zituzten. "Chimbo" markako xaboia erabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Semea: Eskolatik urten te gero, zer eitten zeñun?
- Eskolatik urtenda, zer eitten naban? Etxera jun biher arin.
- Semea: Bai ta etxera be, etxera juenda, zer?
- Etxera juen ta iturren-ta. Edo, umen bati, zeintzen-edo.
- Umezain?
- Bai, bai umezain. Ta edo klaro, orduen itturridxe be etxetik urriñau. Edo iturriko ure ekarri, edo baitte eitten ein biher izeten geñun. Orduen, behidkek ure edateko, etxetik atara ein biher izeten giñuzen. Ta bastante biraldidxen eruen biher izeten zien behidkek ure edaten. Ta ha, idxeten zan ba, gaur batakeruten baban, bidxer bestiek erun biher. [...] etxetik kilometro bat baiño gehidxau basora, basora ataraten giñuzen, ure edaten.

- Ze egon zan han deposittoren bat-edo?
- Depositttue, ta gaur be, ha dau. Gaur be, badeu ha. Ha zulue, gaur be hantxe dau. Ure eraten abiena behidkek.
- Semea: Zein zulo da?
- Aranitturri. Bertatik hartu giñun gero, urte askora baserridxetara ure be. Handidixik, handidixik.
- Eta ariñau, nungo itturrire joaten ziñien?
- Geu? Geu?
- Bai, zeuok.
- Gu itturrire? Betiko itturridxe daukou. Nik ezetu duan itturridxe. Oin,

hamen ezagutu banaban, hona pasaute, baia bertan, bertan. Ta ganera, euki biher idxeten geñun, erropie garbittu etxien ta erre kara aklaretan. Erre kara aklaretan. Ha zan ba urrin. Ta honetxeik bide estu-estu batetik. Beheko aldetik sasitzie ta hantxe denbora txarra edo zer bazan laban eitten aban. Ta iñoz jausi be bai, beheko sasitzara be erropa ta guzti. Erropak lepuen, baldien, ta erre kara. Ta gero han aklarau, etxera eruen, ta gero hacie eukitten geñun imiñitte alanbriaz, solo barrenien-edo imintte, ta eskegi.

- Etxin garbittu, nun?

- Etxin fregaderan, fregaderan.

- Etxe barruen edo kanpuen?

- Etxe barruen, betiko fregaderan. Ointxe be haxe fregaderi dau gure baserridxen.

- Semea: Ta harri haundi bat.

- Hoidxe ba. Bai, bertan atarikue! Etxien, etxik, etxiek euken harridxe bertan atarata. Zuk halako fregaderaik sekula ez dozu ikusi. Ez ta pentsau bez! Ta egon be ez da asko ingo!

- Ez berari etxieri atanikoa ez. Eta ze jaboi?

- Jabon txinbo. Ona zan, jabon txinbo. Gero, urten aben gerra ostien, urten abien horrek, hautsek-eta holakuek. Bai.

1.5. Arropak garbitu, zuritu eta usain ona ematen

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/012
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:29:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Izara eta arropa zuria garbitzeko lixiba eta anila erabiltzen zituzten. Umetan bere ama irakindako urarekin lixiba egiten gogoratzen du. Arropari usain ona emateko ereinotza erabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Ba niri Salomek esan eusten, bolas maravillosas-edo, akordetan zazela.

- Bolas maravillosas horrek, izengo zin gerokuek. Gerra aurrekuek ez. Gerokuek.

- Eta jabon txinbo bai eta izerantzat-ta, erropa zuridxentzat?

- Lejia ta anille.

- Anille?

- Anille. Azule, anille. Azkenengo aklaraue emoten jakona, idxeten zan. Ure imiñi baldien, anille bota hari anille, ez heutse, trapuen eoten zien. Ze heutse, ezpabe, zertu eitten da, pegau eitten da iguel idxeretan; baia ha bestie traputik ez zan soltetan. Ta haren azule, ure azul-azul imintten aban eta izerak-eta, gauze zuridxek, hantxe paseu, ta kolorie ederra eukitten abien.

- Baiña ur hotzetan?

- Ur hotzetan. Errekan bertan aklaretan zien orduen. Bai, bai.

- Ez zenduen irekitten jartzen? Ez?

- Irekitten jarri ure? Ez! Nik neure akorduen, ez dot nik neuk sekule. Baia ni akordetan naz gu, gu txikidxek giñien orduen, gure amak-eta beste modu

baten-ta, erropak-eta garbitzen abiezena. Barriketan. Barrikak, lixibie esaten otsien. Hari heutee bota ta hantxe, hantxe garbitzen aben. Ta zelako kolorien ateraten ebezan erropak!

- Lixibie ta ur irakitten?

- Ba izengo zan.

- Lixibie esaten jako horri.

- Ba orduen ur irakiñe izengo zan. Lexibie, esaten otsan. "Bueno, ixilik egon nik lixibi ein biher dot /biot/-eta", iguel esaten oskun.

- Ta bedarrik, eukaliptue edo ereiñotza edo usiñe emoteko?

- Eukalipto bedarrak edarrak eote zin gure baserridxen.

- Ta ibiltzen zenduezan?

- Bai.

- Garbitzeko?

- Garbittu eitteko erropie?

- Usiñe emoteko.

- Ez. Hori zan eridxontzie. Eridxontzie, eukaliptu baiño eridxontzie gehidxau. Eridxontzie, horregaz hor lexiban ipiñtten ebazan amak. Hori bai, bai.

1.6. Ama emagin zuela jaio ziren Luziaren umeak

- **Hizlaria(k)**: Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-002/015
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:33:57. **Bukatu**: 00:36:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Luziaren ume denak etxean jaio ziren; bi erditzetan hartu zuen parte medikuak, baina beste denetan emagin lanak Luziaren amak egin zituen. Ume bikietako lehena amak atera zion, baina bigarrenarentzako medikuari deitu zioten.

Transkripzioa

- Ta zuk umiek etxien euki zenduzen danak?

- Danak etxien.

- Nor ibiltzen zan partera-edo?

- Ama.

- Zure ama?

- Neure ama.

- Partera?

- Neuretzako neure ama zan. Ta medikuaz bi. Aurretiko aldiz pentseten dot medikue etorri zala. Lelengokuaz, lelungokuak daukoz hirurogei urte einde. Hogeta bat urtaz ezkondu nintzen! Hirurogei urte daukoz einde. Haridxaz lelenkuaz. ta gero, bikotxak euki nebazan orduen. Ostin beti amaz.

- Semea: Kontau ahal dozuz zelakuek izen zien, eukitteko guztidzek?

- Zelan eukittakuek?

- Semea: Zelan euki ziñuzen umiek. Zelan jaidxo zien?

- Ondo. Danak ondo jaidxo zien!

- Bai, errez?

- Errez be, errez baiño be, zertxuau bai. Nausidxena ta bikotxa zien gatxenak. Nausidxena, bai nahiko gatxa zan! Izen be morroskotxue zan.

Bai, morroskotxue zan. ta bikotxak, neskatie bai, neskatie goidxeko seiretan jaidxo zan ta mutikuek. Ta neskatu jaidxo zan amaz, neure amaz. Baia amak igerri ein otsen /eitsen/ beste bat euela. Ordun ez giñen joaten gu medikuengana-ta iñora be zertzen. Ta amak igerri ein otsen /eitsen/ beste bat euela, ta orduentxe, medikuei abisau. Ta jaidxo zan bata goidxeko seiretan jaidxo zan ta bestie goidxeko bederatzi, bederatzi-erdiak-edo, holan. Bai. Ta ha kosta ein zan.

- Ta zelan igarri otson, bigarrena datorrela-ba?

- Ba harek igerri ein otsen /eitsen/. Bueno, igerri ein otsen /eitsen/, beti esaten osten, aurretik be!: "Hor, bi xatozan". Esaten ontsen: "ez eistezu niri ama hori esan, ze entzutiek be ez dakit zer emoten dosten-ta. Ez eistezu esan". Ta ba nitzako be.

- Sorpresie, bi?

- "Ta nire gizonai be ez eizu esan! Ez babe, hor ibiliko ta gero, arteik hartu eziñik ibilko da-ta".

1.7. Amak, ume berriak eta elizako ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-002/018
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:38:17. **Bukatu**: 00:41:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Umea jaio eta 15 egunera, amak umea besoetan zuela elizan sartu behar izaten zuen. 15 egun horietan amak ezin zuen etxetik irten ere egin. Umea jaio eta berehala bataiatu behar izaten zen.

Transkripzioa

- Ta umiek euki ta gero, ze etorten zan? Zu ohien ta umiek zer, bautidxeu-edo?

- Orduen klaro oin, ensegida jaidxo ta urtetan hasten gara, urtetan hasten die amak be. Baiña orduen gero elixan sartzie izeten zan, beste bat. Hori ez dakizu zer dan. Elixan sartzie izeten zan handik hamabost egunera-edo, zuk jun biher izeten zeñun, amak umiek besuen, ta elixara, elizan sartzen. Hori beste historidxa bat zan. Euren berbaldi bat eta ba hori. Ta artietan, ordura arte, ha elixan sartu arte, lehen ez euen kanpora juen ta porruiek ekarri eidxuz ortutik-ta, holakoik ez, kontuz. Etxetik urtetan itxi bez, ez zan eitten orduen.

- Ta umie zenbaterako bautidxaten abien? Umie bautidxau noiz?

- Umie bautidxau? Gaur jaidxoten bazan, bidxer seguru! Niri hirugarrena jaidxo zan orduen, txarto pasau neban nik. Osaba bat neken karmelittie Kolonbiatik etorritte; amen nebie. Ta jaidxo zan zerien, juniuen hogeta batien, mutikue zan, jaidxo zan da herridxen abadeik ez. Abadie examiñatan-edo juenda. Ta mezie emoten nire osabie fraillie bajatzen zan. Ta neuk esan notsien: "Ai! Ta oin zelan gauz gu? Abadeik ez herridxen. Oin umie bautizau zelan?". Ta esan eusten osabiek, karmelitie zan.: "Neu be hamen naidxan. Umie bautidxeuko xonau". "Ba bautidxau biher dozue /

bikozue/, ze abadie etorri artien ezin geinkez umiek bautizau barik euki". "/ Etxeken/ ez jeken horrenbeste prisa". Eske-eske, baia guk beti pentseten giñun hoidxe. Iguel goxaldien jaidxoten bazan, illuntzizen iguel bautizau / bijuen/ biher juen, eitten zien orduen. Ta ni estu. "Ez zaitte estutu", eitten osten osabiek. "Ez zaitte estutu, zertuko xonau". Baia halan ta guzti be, luzetu ein zan. Hogeta batién jaidxo ta hogeta lauen zera, San Juan egune, ta esan eusten: "umie ondo xan. Umiek /etxen/ kuidaurik. Ta San Juan egunien, bautidxeuko xonau. Mezie emongo xonat ta gero meza ostien, umie bautizauko xonau". Ta halantxeik. Baia ostin ni txarto! Haidxe zera, afrentziño bat, entzun eitten giñuzen geuzak-eta.

1.8. Bataioak eta umeen izenak

- **Hizlaria(k)**: Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-002/019
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Bataiatzera umea ama pontekoak eramaten zuen. Aita eta ama pontekoak joaten ziren bataiora, baina umearen aita ez zen joaten. Umearen izena, mutikoa bazen, aita pontekoak erabakitzen zuen.

Transkripzioa

- Ta nor joaten zan bautidxora?
- Madriña bat. Madriñi esaten gontsen batek umie eruten aban. Ta gero aitte puntakuek eta ama puntakuek. Aitte puntakue ta ama puntakue ba, ez dakit zuk esaten dozun, aittebitxi ta amabitxi.
- Bai, bai, bai. Eta aitte bera?
- Ez.
- Ez?
- Aitte ez.
- Semea: Ez zan eliza zalie.
- Aitte beti elizara, baia umiek, umiek, bautizuen ez euen hori, kostunbrioi. Hemen ez behintzet. Aitte sekule be ez zan juen aitte.
- Umien izena nok elegitute eban? Umien izena?
- Umien izena hori beste bat. Horren izena han auzuen beheko baserriko mutil bat, ta orduen ez zan baia oin beren andrie zan, bizi da hori Felipa Insunza, horren amabitxidxe zan.
- Semea: Ama ponteko.
- Ama ponteko. Ta batuk hau imiñi biher jako biher jako /bidxako/; bestiek bestie imiñi biher jako /bidxako/. Baie orduen esaten zan, aitte puntakok mutillena, aitte puntakok, esan biher deuela /bideuela/. Ta auzun be, esaten euskuen gaztie eta be, batién Jabier, bestien ez dakit zelan, ta zer idxen imini biher dotsezue /biotsezue/? Ta baia ez dakigu. Aitte puntakok berak esan biher daule /bidaule/ diño-ta. Elizara aitte puntako ama puntakuek eta aiñie umiaz, ta izen imiñi biher jakon /bijakon/ jakin ez, horrek. Ta abadiék hasten zan orduen zerien eta: "Bueno, ze izen dakarzue?". Ta gero beittu bestik, bestik beittu ta, aitte puntakok: "Apolinar!". Ixenik akordau ezin ta etxin be gero.

1.9. Aitaita-amamak erdaraz gaizki; eskolan piper

- **Hizlaria(k):** Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MAN-010/013
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:23:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Umetan euskaraz, bertako euskararen, oso ondo egiten zuela dio Anastasiok. Lourdesek dio gurasoak baino aitaita-amamak arazo larriagoak zituztela erdararekin. Amamak ez omen zekien erlojua igartzen, baina txahalaren balioa buruz berehala ateratzen zuela dio Lourdesek. Anastasio gustura joaten zen eskolara. Ikaskide batzuek eskolan piper nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Anastasio: Nik be zortzi-beratzi urte be bai, ta euskeraz euskeraz ondo eitten naban. Hemengo euskerie, ezta?
- Daniela: Ordukoxie. Orduen ez euen.
- Anastasio: Diferenteu ez.
- Ta orduen, zuen ama ta aitte-Ta erderaz eskas?
- Lourdes: Gure ama ta aitte baiño gure amama ta aittitte eskas. Amamak erlojuai igertzen, ez junan /etxunan/ jakin amama batek. Bestik ez dakit nik, geugaz bizi zan arnamak, ez zekidxen erlojuai igertzen bez.
- Anastasio: Baia orduen nok jakingo eban ha?
- Lourdes: Ta beste gauza asko bez, baia buruz kontetan eban, bai? Ta harek kontuek be ensegida ataraten ebazan: txahalak zenbat erriel balidxo dauen be saltzen baban aíttek. Hak ez jonan /etxonan/ biher lapizik. Holantxeik pagau ta honexen beste diru hartu txahalaz, "taka!". Ta ordue be sekulo ez jakonan / etxakonan/ pasetan. Ordubete ariñau bazter guztietatik ziher. Hamarretan mezie, beti domeketan. Ta beratziatako preparaute ya, domeketako amantalak ta buruko pañelue ta danak diferentiek. Ordukoxe egunerakuek! Aste bittartien ba zeozelakue.
- Anastasio: Oin, ahaztu jatez.
- Lourdes: Dotore jantzitze juten zan.
- Anastasio: Ahaztu jate.
- Daniela: Bai, Eta bestie zer?
- Anastasio: Hau, andrie hasi da-ta.
- Lourdes: Bai, hau andra goigarridxe.
- Anastasio: Apur bat, bai! Niri esateko, ta eurek berbetan hasi.
- Ta eskolara gustora joaten ziñien edo zer?
- Anastasio: Eskolara batera?
- Gustora?
- Anastasio: Ni neu bai. Danak ez, e!
- Lourdes: Danak itzizuz, zeurie esan biher dozu-ta.
- Anastasio: Zu eon zaittez íxilik, neuaz dabil-ta. Eskolara? Eskolara? Urkuletatik eta ahal dan lekuetatik paluegaz, gure etxe aurreraño lehenbizi

ta hara ekarten abiezan [Kapa...niokuek]-eta. Aurrien Santi. Santi ni beiño hiru urte zaharraue. Zeberio ta... Harek, gordeta eoten zien hor koba baten, euren etxetik hurrien. Ta handik ikusi eskolie, ta urtetan abenien ha: "ointxe goazek, urten juek bai, te geu be goazen bazkaitten etxera".

1.10. Maisu eta maistrak

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-010/015
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:24:05. **Bukatu**: 00:26:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Erdarazko 'manuskritoak' irakurtzea gustatzen zitzaion Anastasiori. Anastasiok Gabino Arana maisua gogoratzen du. Lourdesek dio ikasturtero maistra aldatzen zietela. Berrizko doña Atanasia Arrizabaleta izan zuen azkenengo maistra.

Transkripzioa

- Ordun, han sasoi be, egoten zien eskola gure ez ebienuk joan?

- Anastasio: Ene! Arlos, arlos! Batzuk listotxuauek-eta ba. Niri gustatan jaten irakurtie ta leiduntie-ta. Hor erderaz ein biher zan /bizan/-ta. Pozik.

Eukitten gendun irakurteko manuskritue. Zelan esaten jako hari, manuskrituai? Erderazko, erderazkue baia harek be erderaz ipiñitte, eskuz eiñikuek. Baia beste bat eon zan txarra, gatxa. Ha iñok gure ez. Nok leiduko juan ba? Nok leidu juan ba? Tomas-ta. Oin hildde jauzek-ta. Harek entzuten, ene, ene... Ez daittiela lograu ene, honek berbok leidu iñok.

- Eta zuk esan dozu, Gabino Arana euki zenduela maidxu?

- Anastasio: Bai.

- Ta zue, nor euki zenduen, maistra?

- Anastasio: Honek, ona...

- Lourdes: Nik neuk azkena, doña Atanasia Ariznabarreta. Baia maistra asko pasau naben. Bai. Bata "una tal Zabala. Otra era una Dolores no sé euanto". Osea, paseuteko kurso bakoitzien, pentseten dot etorten zala bat. Bai. Nik ez dakit zer zien? Esaten abien, irebartzigaittik puntuek-edo gauzak, gero euren aldeako herridxetan edo hurrien gelditzeko. Esaten abiena! Nik ez dakit!

- Anastasio: Ha lelu berriztarra zan, Berriz.

- Lourdes: Ta hamen ha Berrizkue azkenekue, ni neuz-ta ona maistrie: doña Atanasia Arriznabarreta.

Hamintxe, oin estankue be ez dakit borraute daukon, baia lehenau beti, ba zera eoten zan ultramarinos dendie. Eroskidxen bestekaldetik dauen etxe, ha barriztaute dauen handidxe, han behien.

- Daniela: Evaristo Bustinzen onduen dauena. ..

- Lourdes: Oin han, beheien ba ez dekie ezer. Ze ontsu zarratute dekie. Esaten dabe estankue-ta ez

dakit nik. Ta hantxe egoten zan apopillo ha maistrie. Berrizku izen arren. Euko bazan senidiek, baiña beti Mañeridxen bertan egoten zan.

1.11. Neskak ez, baina mutilak gogor zigortzen zituzten eskolan

- **Hizlaria(k):** Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MAN-010/017
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:27:31. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Lourdesek bezala Danielak ere gogoratzen du doña Atanasia. Maistra berriztarra izan arren, Mañarian bizi zen. Maistra honek ez zituen ikasleak zigortzen; Anastasiok ordea, belauniko besoak altxatuta eskuetan liburuak eusten zigortuta egotea ezagutu zuen. Maisuak emandako ostikoak ere jasotzen zituzten.

Transkripzioa

- Esan dozu zuk hori euki zendula, ta zuk be hori? Bardiñe?
- Daniela: Maistra. .. Nik hoidxe beiño gehidxau, neuk ez dot ezeutu.
- Ta zuk bakarra?
- Daniela: Nik gehidxa maistraik...
- Anastasio: Atanasia?
- Daniela: Bai, [...] Ariznabarreta edo hori. Juanikote haundi batzuk [...], beti hanketako miñekin.
- Lourdes: [...].
- Daniela: Soltera.
- Lourdes: Pañelo txikitxo bat az, holantxik atzien.
- Daniela: Bai, "una señora de"... Neska zaharra baia...
- Ta berton bizi zan?
- Lourdes: Bai, bai, Mañeridxen beti. Illobak-eta honaxe etorten jakozen bisittetan.
- Anastasio: Ariznabarreta, ezta?
- Lourdes: Bai, Ariznabarreta.
- Anastasio: Ta ixetez Berrizkue.
- Lourdes: Nik beti [hangue...].
- Eta eskolan-eta formalak izeten ziñien?
- Anastasio: Bai.
- Daniela: Geuk ze esango dou /esangou/, ba? Bai.
- Anastasio: Honek bai. Honek... beti burrukan.
- Lourdes: Ez, ez, ez, hoidxe ez gero!
- Anastasio: Ez, ba.
- Ta kastigurik-eta ez zenduen eukitzen?
- Lourdes: Harek maistrik berak ernegetan aben asko, beren buruentzako. Iñoi pagetako baloreik ez zauen /etxauen/ eukitten hak. Gorri-gorri paretan zan, ta buuf! hak pasetan aban ernegaldidxe!
- Anastasio: Honek belauniko-ta sekule bez.
- Lourdes: Ni ez naz akordetan.
- Daniela: Ni neu be ez.
- Anastasio: Gu bai.
- Lourdes: Harek ni neuri egundo kastigau ostenik be ez.
- Anastasio: Ta holan. Liburuek holan ipinitte, belauniko.

- Lourdes: Ez.
 - Daniela: Hau ona izen be ez zan ingo.
 - Anastasio: Nire moruen beste batzuk. Ni klaro ez [nintzela] ondo, jakin nabelako zeozer. Gero e... gero ezin ikesi. Handi urten ezkerro, soluen ein biher.
 - Lourdes: Ta txarrau gero handik urtenda. Txarrau.
 - Anastasio: Honek pozik barriz.
 - Lourdes: Ahal dan modun.
 - Ta zuei ze kastigu holan, esku gora ta liburuegaz-eta?
 - Ba, liburuek ipinitte. Ta iguel orduerdixen hantxe. [Bueno], arriba, altxeta geñien. Gero eskolatik urtekeran, han eskillarak dauz goittik behera. Honenak ez, honenak beheien. Ta, taka, pasetan, pasetan, ta danba!, eperdien ostikarie ta eskillera behera. Oo! Ha maidxue [...].
 Sasoie makala. Don Gabino Arana.

1.12. 'Cara al Sol'ak eta Espainiako bandera

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAN-010/018
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:29:42. **Bukatu**: 00:31:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Eskolatik elizara formatuta joaten ziren. Cara al Solak eta "¡Viva España!" k gogoratzen ditu Danielak. Espainiako bandera ikusi orduko, agurtu egin behar izaten zuten. Eskolara joaten zirenean, bandera atera eta irteten zutenean gorde egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta euskeraz berba eittiarren problemarik eukitten zenduen?
 - Anastasio: Orduen?
 - Daniela: In be ez eskolan. "Cara al Sol" kantau ta, "Viva España" esan [...].
 - Lourdes: Eskuk gora ta, formaute.
 - Anastasio: A! Gero, gero, Francon denporan.
 - Daniela: Ba, geure denporakue.
 - Anastasio: Bai, bai, bai.
 - Lourdes: Elidxara orduko juen, ta formaute parau ta mezara danok batera. Ta hor ez [jakiat] /etxaiat/ nun zan be, ba, orduen egunien bandera ta guzti ta mutil bat gorantza. Ta, klaro, banderie ikusi ezkerro saludau ein biher zan /bizan/, ta harek saludau ez. Ta hari be zelako errosaridxue!
 - Anastasio: A, Españako banderie.
 - Daniela: Bai, zer eongo zan ba? Oin be harekek [...] ta orduen pentsaizu!
 - Anastasio: Orduen... Klaro, klaro. Errepublikie be euki giñun, Errepublikie be eon zan.
 - Lourdes: Ez, baia gure akorduen ez. Errepublikak ez ezebez. Gure

akorduen Franco ta Jose Antonio Primo de Rivera, ta horretzek. Besteik, nor?

- Ta hemen herriko etxien-ta be, egoten zan banderie ala?

- Lourdes: Bai, kendu barik. Mastille kendu [...] harrezkero.

- Daniela: Klaro, eskolara juten giñenin, atara.

- Lourdes: Eskolara juten giñenin...

- Daniela: Ta [...] giñenin, barrure. Eskolakue hori, e!

- Lourdes: Bai, baia eskolakue hori. Baia hor aparte aiuntamentukue beti kendu barik. Ta jaidxe izeten zanin, hiru.

- Anastasio: Oin be hor dau. Oin be bai.

- Daniela: Ez, oin ikurriñie dau.

- Lourdes: Oin ikurriñie.

- Anastasio: A, bueno, baia ha be banderie.

- Daniela: Bai baia...

- Lourdes: Baia ha ez orduko morokue ez, e! Orduen hiru mastil, jaidxe ixeten zanin, hiru diferente.

Baia Españakue kendu barik beti erdidxen, haundidxe.

- Ta zeintzuk izeten zien bestiek, ba?

- Lourdes: Ba, ez dakit nik.

- Daniela: Ni neuk ideaik be ez.

- Lourdes: Falangekue ta bestie zer ixengo zunan?

- Daniela: Ez jakiñat /etxakiñat/.

- Anastasio: Eoten zan Falangekue ta ipinitte?

- Lourdes: Zelan! Jaidxe edo zer handidxe ixeten zanien, bai.

- Daniela: Eske egongo ez zan ba banderie... Itturridxek ipintteko be dirue Falangiek edo nok emoten aban, ba?

- Lourdes: Bai, ta oin danak apurtu.

- Daniela: Oin [barrixek gure dabiez].

- Lourdes: Danak apurtu; batien ure agarrotau, bestien txorrue, bestien zera...

- Daniela: Baztarra guztiek apurtu.

- Lourdes: ... danak apurtu.

1.13. Lehengo prozesioak

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-010/029
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:55:38. **Bukatu**: 00:57:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Erljioak indar handia izan zuen garai haietan. Prozesioak. Gauzak asko aldatu omen dira azken urtetan.

Transkripzioa

- Ze erlijioak inddar asko euki eban, ezta?

- Lourdes: Honbre!

- Erljioak inddar asko...

- Anastasio: Ba, orduen bai, ene, enee!

- Lourdes: Zuk, amamaik-edo badekezu, kontauko dotsuz zeuri be. Ta jungo zan. Narras paraute be, jun bihekor eban /bikoeban/ elixara.

- Anastasio: Erlijiñue hemen...

- Lourdes: Bazan behintzet halakue. Hamen, ikusten ziñune...

- Anastasio: Jesus! Harek ikusi ta oin ezer ikusi bez.

- Lourdes: Oin, ezebez.

- Anastasio: Kurutzie lepoan hartu ta... errematau [...]

- Lourdes: Santuek subasteu, nok pagauko, zemat gehixau, ta. .. Danak hor alkarri [...] ta.

- Hori Aste Santuten?

- Anastasio: Bai, Aste Santuen. Honenbeste, honenbeste.

- Lourdes: Ta batzuk dirue euki, ta aurrien imiñi bat, eurek argittu barik, jakin ez deixien nok hartu deuen ta. Holantxik.

- Anastasio: Ez dakit azkena izengo zan, orduen prozeziñue Aste Santuen, ta gu bixi giñen etxeraiño, hara goraiño eon zan. Hortik buelta zelango bueltak. Bueno, ordun kotxerik bez e! Kotxerik be, ez ezebez.

- Daniela: Oin, ezin leike hemen kamiñun ein.

- Anastasio: Ez, hemen ezin leike, ezin leike. Mañeirixen kotxerik be ez egoan, e!

- Daniela: Hau kamiñuau estue da horretarako.

- Anastasio: Ez oin, astiro dabiz-ta.

- Lourdes: Ta nor juen? ta zetako? Ba!

- Daniela: Elizan egon bez nok eruen santue.

- Lourdes: Oin ez behintzet orduko moduen.

- Anastasio: Ene, eta orduen desietan.

- Lourdes: Bai ba. Esan dotsut ba.

- Daniela: Pageute.

- Lourdes: Jope! Gorpuzti Egune ta abadie han ixipue eruteko lagunik topeu eziñik be, aspaldidxen.

- Daniela: Aspaldidxen. Andrak jun biher-ta.

- Lourdes: Andrak be iguel ta harrapetan dana, elizan dauena.

- Daniel: Bai, hemen gauzie asko kanbixau da.

- Anastasio: Totalmente.

- Lourdes: Oin, zera. .. Ta handi Atxondoti ziher juen ta, gure ixekok-ta balkoatik zelako larrosa zerak, orrixek elegante ipiñitte han otzarakarie. Ta goittik behera gure Jaune botaten, ta ha, ikustie ixeten zan gero prozeziñue be.

- Anastasio: Harek Jangoikuk eskapau eban bai.

- Daniela: Ta barridxe bailariña.

- Anastasio: Ez, galduten dabil.

1.14. Konfesatzera Izurtzara

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-010/032
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 01:00:40. **Bukatu**: 01:03:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Anastasio baseritik Izurtzara joaten zen konfesatzera. Konfesoari aitortzen zizkion bekatuak. Ezkondu aurretik egiten zizkion galdera batzuk, ezkondu eta gero ez zizkion egiten.

Transkripzioa

- Anastasio: Gu gazterixe nora juten giñen? Izurtzara. Konfesetan Izurtzara. Han egon zan abade ona. Siñisten ebana dana.

- Lourdes: Gizajue! Honek zemat guzur esaten otsien?

- Anastasio: Gizajue? Guzurrrik bapez. Ta pozik eoten zan jueten giñielako.

- Daniela: Ba klaro! Hak berba eittie gure, ai ama!

- Anastasio: Oin, nun dauz /dez/ barren? Nun dauz ba, nun dauz ba? Nora juan die horrek?

- Daniela: Ba lo.

- Anastasio: Euskeldune, elizatiko jentie. Ta geu txarrau planteu gara. Geu, gu atzeratute gauz, e! Atzeratute.

- Ta zertzuk kontetan zenduzan konfesekeeran?

- Anastasio: Dana esaizu ba! Nobidxurik baeuken.

- Daniela: Ni neuk akorduik be ez dekot-eta.

- Anastasio: "Nobidxurik badaukezu?", "Hondiño ez". Ta zuek jakin ez! Esan gure ez! "Ikuturik-ta eitten dotsek?" Jesus, Jesus! Baki zozer nire andriek. Zuri ez otsuen ikututen e!

- Lourdes: Orduen nigana etorri bez zu. Listue zu orduen.

- Anastasio: Ikuturik eta ikutu ba, urrinddik apur bat holan, urrinddik. Baia, ostantzean pentseu bez. Zerari ikutu biher [...]. "Lotsabako hori, kenduko haz!".

- Daniela: Baia ha be zan justatxue be ta. Hor dau ba!

- Anastasio: Bai ba. Ta justatxue bera jun ez.

- Daniela: Erroseri be beran denporan ikutu bazeuntsen, zelako txillidxuk ingo ete ebazan eta zelako ariñeketak gizonak ikusitte.

- Anastasio: Ni, nik ikutute ez.

- Daniela: Ez, baia esan gure dot, ba, gidxona [...] Eta horrek ez dabez ipintten. Nik ikusi eitten neban. Baton batek, gidxon batek berba eitten baben be: "Aiiii belaunek tapeu, [...] ikusi biher dostie /bistie/-ta". Eta "Zer ikusi biher dotsue /bitsue/ ba, beheraiño [...]"

- Anastasio: Beheraiño prakak jantzitte jentie!

- Eta ze, egi danak kontetan zenduezan konfesionaridxoan?

- Anastasio: Bai zera!

- Daniela: Ta jakin bai egidxe ala guzurre zer dan? Oin dauz espabillauok, dana dakidxienak.

- Baiña lehen jentiek, danak kontaten ei bazen edo ez ei ban ezer eitten.

- Daniela: Ein bez, oingo besteko malizirik eukin bez ta.

- Anastasio: Oin oingoa, aparta da oingoa.

- Ta ezkondu ostien be bai, preguntek'?

- Anastasio: Ezkondu?

- Ezkondu ostien be bai?

- Daniela: Preguntak.

- Ia andriaz zer eitten dozun eta edo gizonagaz zer eitten dozun-edo?

- Anastasio: Bai zera, abadiék? Ta hoixe esango dotsezu. Je, ederra bota dok. Ta barre! Oin ez gara

geuze ta. Orduen sasoi ona orduen! Ta hori esango dotsezu ba? zure andriaz eitten dozun, ta bai. Ha desietan jakitteko. Hagaittik abadiék be rebeldetute presenteu die "total rebeldes", marikoiek. Bai, bai. Urkiolan eon zan bat. Oin ez da eongo, ezta?

- Daniela: koittaaue, hil... oingo susterrak be eukiko dittu.
- Anastasio: Jaime ez zan ha? zelan zan ha?
- Daniela: Don Jaime.
- Anastasio: Don Jaime. Bilbotik etorri zan ha. Bilbotik bildu ein abiela.

1.15. Neskatoak ulertu ezin

- **Hizlaria(k):** Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-010/033
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:03:43. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Danielak neskatoa zenean bere izekoren etxean ikusitakoak, handik urte askora ulertu zituen.

Transkripzioa

- Daniela: Anasasio, Don Jaime esaten dozu. Ni, neskatoa ta gure ixeko Baleanak, umeik ez eukun, ta umie gura aben. Ta gure aittek be, ezetz. Baia bialtzen eusten egune pasetan dala ta hara ta. Bueno ba,ta zuen hori maiso famosuori, etorten zan. Ta txorixe, ixeko Baleanenera ta kuarture ta. Ta zer ete dan, ba? Ta oin, etorten jatez burure! Aber, orduko denporan, pentsaizu, ni neskatoe ta.
- Anastasio: Ba, bai, baia orduen be, egon.
- Daniela: Honbre, ba beittuzu, txorixe ta maisue. Ixeko Baleanak kuartue ba kobrauko otsien. Ha, beti ebillen danakin. Gaixue, nondik pezetia atarako ta.
- Anastasio: Maisue marikoie zala ez abien esaten ba?
- Daniela: Bai ba. Ta ekarten aban ba, txorixe. Ta ixeko Baleanak kuartue, ba, prestau eitten otsien. Ta ni neskatoa, harenien. Ta zetan juten ete din hara? Ta etxera jun ta esan ta gure aittek: "holakoik ez ein ezer e! Zeozetan jungo zan ta". Ta niri be, rarue eitten, hara zetan jun leikexan harek gizon bidxek. Eta gero. .. Ai Jangoikua! Ni mamalie!

1.16. Bekatuaren araberako zigorra

- **Hizlaria(k):** Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-019/004
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Abadearengana joan eta konfesatzea derrigorrezkoa zen. Bekatuaren araberako zigorra jartzen zien. Ez zuten bekatuarekin egiten,

gezurrak kontatzen zituzten. Mutil-lagunari ezin zieten musurik ere ematen.

Transkripzioa

- Ai pekatuek, pekatuek! lehenau konfeseu ein biher izetan zan abadieganajuenda. Ai pekatuek, holan ala? oingo moduen edozer?
- Eta zer pasetan zan ba?
- Ze pasetan zan abadiiek kastigue zelako pekatuek esaten otsezun abadieri honenbeste kastigu ta hara bankuetara juen ta honen beste errezeu ta honen beste denporan belauniko egon edo ta holan asko, ta danak begire.
- Ta ze pekatu eitten zenduen ba?
- Ze pekatu eitten geñun? ezebez, guzurren batzuk esan, ze eingo geñun ba besterik ba orduen? lapurretarik ez geñun ein, dakigule behintzet.
- Nobixoari musuek emon-edo
- Nobixoaz? orduntxe nobixoaz zoker eittie baiño ez euen. Ta gero astue kargau ezker zer? zer paseuko zan? astorik egundo ez dozu ikusi, astorik egundo ez dozu ikusi, ala? astueri otzarak kargeu ezker.
- Nobixoari ezer ein musutxuek ezer nobixoagaz?
- Musuek eta zirrik bez ezebez, ta ondtxuen arkalen ondtxuen etorri ezker, baten bat datorrela ikusi aparte, hondiño urriñau apartau.
- Baia ezkondu eurretik ez zenduen ez zirrik ez ezebez ein?
- Zirrik? ba zirrix jantzan eitten geñuzen. Han ibiltan ibil giñen arkal ebatute ta ze zirri ta ze histori eingo giñun ba? ai ama!

1.17. Hamarrenak, buldak eta garizuma

- **Hizlaria(k)**: Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-019/007
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:07:52. **Bukatu**: 00:11:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Ezkondu ostean ere, konfeszera joan behar izaten zuten. Hamarrenak egoten ziren: soloan hartutakoaren hamarrena elizara eramane behar izaten zuten. Mañtildariar bat hamargarren umea ere abadeari ematen ahalegindu zen. Buldak ordaintzen zituenak ez zuen bijiliarik egin behar. Garizuma oso gogorra zen. Garizuma garaia oso gogorra zen.

Transkripzioa

- A klaro! Lehenau elizako zerak eta be hamarrenak-eta egoten zien?
- Hamarrenak.
- Bai Hamarrenak, bakizu zer? amamak ez deu holakorik esan?
- Zertzuk zien, espliketu.
- Hamarrenak zertzuk zien? soluen artue hamar zer hartzen baziñun, ba hamargarrena elizarako, abadiendako edo ez daitz norendako, edo

Jaingoikuendako.

- Edozer? soloko edozer?

- Saso baten holantxi zan. Buldak-eta, zuk egundo ez dotsazu entzun amari eta amari holakoik? ba ha bizi izen bazan orduen nik baiño handixauak esango abazan.

- Buldak zetako zien?

- Buldak, buldak. Entzunde deukozu ala? ai zoyer bai. Buldak, bai. Ta gizon batek, Mañeriko gizon batek, ein ei zeban, ba ba zelan hamargarrena zelan emon biher izetan zan ba hamar zarakatik bat, artue bazan ba bat elizarako, ta ba dana holantxiik geuza guztixe, saso baten. Hainbeste nik buldak-eta ezagutu nittuen, baia nik entzunde amari eta aitteri-ta, hamargarrena zela. Ta gizon batek hamar ume, hamargarrena umie euki ei zeban, hamar ume, hamargarrena, ta abadieri erun ein otsen.

Hamargarrena dala ha be. Ta abadiak: "ai nik ez, nik hori ez, nik hori ez". Ta "ba nik orduen artorik bez, ta garirik bez ta babarik bez" esan ei otsen.

Abadiak ba hamargarren umie ez ei otsen hartun gure izen ta ba esan ei otsen "ba orduen besterik bez".

- Dana emon biher bazan.

- Ba karo, hamargarrena, hamargarrena. Ta buldak pageu ein biher izeten zien buldak-eta. Sekule ez dozu entzun hori?

- Esplikeu eizu, zetako zien buldak?

- Papel batzuk, ba nik zer esango dotsut? erreziho batzun moduen.

- Baia buldek pagau ezkeru, ze pasetan zan?

- Ta beste gauza bat, buldaik pagau, honek zoyer badaki, buldaik pagau ezien, bijilixetan okelaik bez ta holako geuzek be jan ezin, ta buldak pagau ezkeru libre. Zer da hori? ba oin, bueno haundixe esateko egon naz ta ez nue esaten ze bestela esan biher nabon /binaben/ handi bat.

- Ta bijilixe ta Garizumie gogorra zan?

- Bai. Honbre! Garizumako barikuetan-ta okelaik-eta jaterik ez euen. Eta ganera honenbeste urtetik, zemat urte dien ez naz akordetan, baia honenbeste urtetik hara barau ein biher, barau ein biher, beste bat. Bakizu zer dan barau?

1.18. Ilunetan mendian galdu zirenekoa

- **Hizlaria(k)**: Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-019/022
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:32:24. **Bukatu**: 00:34:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Behin Arratiara joan zen San Antolin batzuetan, baina gehiago ez zen bueltatu. Etxerako bidean, ilundu egin zitzaien eta mendian galdu ziren. Orduan bizitakoak kontaktzen ditu.

Transkripzioa

- Baten joan nitzen Arratixera ta barriro ez. San Antolin batzutan, ta arratsaldeko ordu bixetan [...] egoteko ba koadrillan juteko ba zan ordue, baia gero etxerako iñor batu ezin, harako zertu zien moduen. Ta ba

abemarixetakue etxera etor biher izeten zan, ba gu lagunok etorri giñien, hiru edo lau-edo ez daitz zemat giñien, Maxima-ta, Maxima Etxebarriko zuk ezetu ziñun? Maxima, Isuntzako Eugeni ondio bizi da, Donata ni, ez daitz beste gehixau bagiñien. Ta honantza gatzela, ba iretargirik bez, illundu oskun, [Iñun] ganera, [Iñun] ganera zuk ez dozu jakingo nun dauen? joan giñien koadrillie, baia [Iñun] ganera orduko illundu oskun, ta gero ezer ez gendun ikusten, galdu giñien han, mendixen, ta batién harantza ta bestien horrantza, han batek etzun deu, etzunde egon biher dogule, musturrekin eurrera juen zan. Ta gero birek ezin topau ta halakon baten handik-hortik ibili giñen eta Itsuntza? Itsuntzaneke puntara urten geñun, hatzien puntara, Itsuntza? ta Donatak eta Eugenik orduentxe ezetu nun gauzen ta nundik gatozen, bestela ez daitz nun egongo giñien. Pentseu eizu zelán egongo zan etzunde egon bihera egoteko. Esan naben: "ni ez barriro", ta gehixau jun bez. Jo, ez ze halan ibiltteko, jo!

1.19. Zaldarrak kentzeko oilo-korotza

- **Hizlaria(k):** Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-019/035
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:58:02. **Bukatu:** 00:58:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena:** Zaldarrak kentzeko oilo-korotza ona zen.

Transkripzioa

- Ta zaldarrak kentzeko-edo?
- Zaldarra? zaldarrak kentzeko horren osaba batek erremedioxo euki eban: oillo-korotza!
- Oilo korotza?
- Paulok. Txarto egoten zan ha zaldarrakin. Kokotien-ta urten otsiezan zelako zerak. Ta oillo-korotzaz esaten abien zertu abala.
Oillo-korotza ba ez daitz ba oilluek ein barrixe ipini edo ze, nik horxei ez daitz, baia harek oillo-korotzaz zertu abazala esaten abien.

1.20. Bizioentzako erremedioa

- **Hizlaria(k):** Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-019/038
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:59:33. **Bukatu:** 01:00:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena:** Bizioentzako (heste-zizareen kontra) botikan erositako paper-hautsa eta likido gorri bat hartzen zuten.

Transkripzioa

- Zure etxien iñok eukitten bazen?
- Bizixuek gogorak zien orduen, bizixuek [...].
- Ta ezer hartzen zenduen bizixoantzat?
- Ba bizixo, papel heutsek. Farmazixetan egoten zien "papel heutse" izena eukienak, bai. Papel sobrie, sobretxu batzuk, barruen heutse, ez daitz zelako heutse.
- Uretan-edo.
- Ba uretan pixkat zertute, papel heutse. Ta beste bat be, likido bat be, ezin jat akordeu ba, gorri-gorri bat, txarra hartzeko, haixe! Izena be zelan eukon hak? zan gorri-gorrixe likidue, izena be ez daitz, ez naz, ezin dot akordeu izena. Botillakoa, botillako bat zan, jarabe baten tiporakue, baia txarra, gorri-gorrixe, baia izenik ezin jat akordeu.

1.21. Apurtutako atzamarra zumitzarekin lotu

- **Hizlaria(k):** Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-019/039
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:00:58. **Bukatu:** 01:02:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- **Laburpena:** Medikuarenera gutxi joaten ziren. Atzamarra apurtzerakoak zumitzekin lotzen zuten osatu arte.

Transkripzioa

- Zure amak eta aitte be ez zien izengo medikutara asko joanikoak.
- Lehenau medikugana asko ez zan juten holan zerien, edozer dekozulaitiño-ta, bai! Lehenau apurtzen zien igual atzamarra apurtu-ta zera, lotu zozer ipini zimitzek-eta. Zimitzek bakizu zertzuk dien? zuk bakizu. Zimitzek ipini ta lotu trapure ta hari batzugin igual, ta halantxik osatu, osatu artien.
- Esplikeu eizu zertzuk dizen zimitzek.
- Zertzuk dien zimitzek? egurrek.
- Baia ze egur?
- Ze egur? edozein, ona! ze esango dotsut? baia lisue izen ezkeru egurre. Esate baterako urrenak edo intxaurrenak edo holakoak, holakuek.
- Suterako ibiltzen dienak.
- Klaro sue eitteko-edo ba.

1.22. Jaio eta bataiatu

- **Hizlaria(k):** Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-019/044
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:05:24. **Bukatu:** 01:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** Umea jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zuten. Bataiatu gabekoak kanposantu kanpoan lurperatzen ziren. Umeen izena etxekoek erabakitzen zuten, beraienean amamak.

Transkripzioa

- Eta umie eukin ta gero ze eitten zan umiegaz?
- Umiaz zozer ein? ba kunan ipini edo, titixe emon ta.
- Bai, baia bautixeu!
- Ai bautixeu? jaixo eta hurrengo egunien bautixeu biher izeten zien lehen, egun [...] dala. Ta baten bat hiltzen bazan, kanposantuen ez zeken lekurik bautixeu barik baeuen. Kanpuen, kanposantuen, kanposantuek kanpuen han honako zer bat, ez daitz oin iguel egongo da kanbixeute be,kendute dau,ezta? kanpo zera, ba bautixeu bakuek hantxe.
- Eta umiek bautixetan eta zu, ama?
- Hantxe, ba ama etxien ta aitapontako ta amapontako umiaz ta aña, aña edo baten bat aña-edo.
- Eta izena nok jartzen otson ba?
- Umien izena? nok pentsau?
- Etxien ha ipiniko dotsau hor ipiniko dotsau, handik apartetan zan baten bat.
- Baia zuek edo aittitte ta amamak.
- Bai, gurien amama zan.

1.23. San Inazioren kanta

- **Hizlaria(k):** Goiti Barrenetxea, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ikobaltzeta, Igone
- **Erref:** MAN-035/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:10. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kankak
- **Laburpena:** San Inazioren kanta abesten du.

Transkripzioa

Iñaki, Jainkuak bialdua,
ludiyen izatea
Josuren gudariyen burua
batzarrak hartu zindun
euskotarren zaindaritzat,
zu zara zaindari ta
jaun onena guretzat.
Iñaki, entzun arren, egizu
eta gure hobia hartu.

Biyotza euskotarrai
jaiotzatik damutzu,
zuria da guria,
baso, mendi, ibai, arru.
Zeru goitik deun Iñaki jagon ba,

jagon gaizuz Jaugoikua,
jagon gaizuz lege zaharra,
areriyo aurrian zuk
agindu euskutarrai.

Gurean sartu eta,
ezpata hartuta,
euskotarren aldez,
dongetar areriyua
indarra zerutarrak.
Danok zatituta
Euskadi beti izan da
zuk Iñaki zainduta.
Zainduta!

1.24. "Perretxikotan nenbillenian" kanta

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** MAN-036/004
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:07:27. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- **Laburpena:** "Perretxikotan nenbillenian, Mendiolako basuan..." kanta abesten du pasarte honetan.

Transkripzioa

- Eta holan beste kantarik? Bai, ezta?
- Holan kanta luzeik ez. Ostantzien ba holako zer batzuk bai.
- Laburrek, [...].
- Bai, esate baterako... Ez dakit oin entzuten bada, baia beste bat be bazan:

Perretxikotan nenbillenian
Mendiolako basuan,
dama gazte bat billatu neban
sasi batzuen onduan.

Gaztia nintzan zorua nintzan
jarri nindakon onduan
amantaltxue zabaldu eta
hartu ninduen altzuan. (bis)

- Hori be amak kantetan auen?
- Bai, bai, horrek bai, bai. Nik ikesariko kanta guztiek dakiaz amak [...].

1.25. "Antontxu, Antontxu zara zu" kanta

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** MAN-036/022
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Antontxu, Antontxu zara zu..." kanta abesten du pasarte honetan.

Transkripzioa

Antontxu, Antontxu zara zu
kuartillo t´erdigaittik ohia saldu dozu
aitte datorrenian-nian
ama datorrenian-nian
etxetik kanpora bialduko zaitu. (bis)

1.26. `Aita San Antonio´ kanta

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** MAN-036/025
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Aite San Antonio´; kanta abesten du pasarte honetan.

Transkripzioa

- Ez dau bat Urkiolakoa edo?
- A, bai, baia horrek asko entzuten die, e. Urkiolako zerak bai, baia horrek
pentsetan dot nik oin be asko entzungo diela.
- Zelan da zuk dakizune?
- Bueno:

Aitte San Antonio
Urkiolakua
askoren bihotzeko
santu debotua.

Askok egiten deutso
San Antoniori,
egun batian juan,
bestian etorri.

- Hori oin be askok kanteko daurie, nik pentsau. Ezta?
- Ez dakit, nik ez dodaz ezautzen horrek.

1.27. "Mendi altuen edurre" kopia zaharra

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** MAN-036/040
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:30:28. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Mendi altuen edurre, mendi altuen edurre..." kopia zaharra kantatzen du.

Transkripzioa

Mendi altuen edurre (bis)
bota sutara egurre,
alaba galanten amak
mutil zantarren bildurre (bis)
mendi altuen edurre.

Altzazu zuri, altzazu maite,
holan ibili barik ezkondu zaite.
Ez noa ezkontzen pare bat urtien,
hauxe ta beste gona bat apurtu artien.

2. Politika

2.1. Maistrari "doña" esaten gerraostean hasi ziren

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MAN-002/003
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Eskolan neskak eta mutilak gela ezberdinetan ikasten zuten. Itaurrean egin behar zutenean ezin ziren eskolara joan. Gerra aurretik maistra euskalduna izan zuen. Maistrari "doña" esatea gerraosteko kontua izan zen.

Transkripzioa

- Ta eskolan nungo neska-mutillek batzen ziñien?
- Bertakuek, Mañerikuek .
- Danok eskola baten?
- Ez, ez, ez. Maisue ta maistrarie bidxek euezan diferentietan.
- Semea: Gela diferentietan.
- Mutillek ta neskak. Ta edadeka diferentzidixetan zan?
- Ez. Danak zien antzera orduen. Ze hasten zien gero komuniñue eitten abien neskak eta mutillek be batera; ta ba, edade bardinantza. Ta bai, zahartxuauek eta gaztetxuauek be bai baiña oingo moduen, oingo moruko

zerik ez zan. Orduen klaro, eskolara be juten zan igul gaur, te bidxer, bueno: oin batak edo bestiek geratu biher dozue eskolara barik; ba iturren ein biher dozue /biozue/-ta. Hori iturren, badakizu zer dan?

- Esplikeu.

- Hori iturren izaten zan, baserridxen bihera ein biher izeten zan behidxekin. Behidxen aurrien, bat jun biher izeten aban, behidxek ondo jun deittien, artez, hari segietan. Ta atzien, behidxen atzien erueten zan, ba hori, erremintta bat, guk esaten gontsen batzui aria; bestiek burdin-arak. Ta goldie be bai. Ta ba holako geuzak. Ta klaro, baten batek, umen batek, geratu ein biher izeten eban ittaurren ein biher bazan. Holan izeten zan.

- Ordun, baserriko biherrak eitzeko, eskola barik

- Bai. Ta gero, orduen eskolara juten giñien orduen be, iguel: "gero iluntzien, etorri arin, ze eiturren ein biher dozue /biozue/". Ta lanik ez, "ein daidxela Zelestiñok", nik be esaten notsen nebiegaittik. Ta bestiek be: "ba nik bez, ein daidxela Luziak". Bueno, baia baten batek ein ein biher. Edo negarrez edo zerien, baia ein ein biher. Ta gero bai, gero handik urten ta gero umen bat zaintzen edo. Ixekok esan dau: "umiek zaintzen, aber jungo zaien illuntzidxen?" Ta bueno, ba juen. Juen ein biher.

- Eta eskolan, maestrie euki zenduen?

- Maestrie, bai.

- Nungotarra?

- Nungotarra zan be ez dakit. Ez dakit nungue zan bera. Nik beti ezetu naban, hortxe euela, baia kanpokue ez zan ixen! Kanpokue bai baia herrikue ez zan! Baia.

- Euskeldune?

- Bai, bai, euskeldune zan, bai. Gero, gerraostien, erdeldunek euki giñuzen, hori bai. Ixena badakit. Lelenkuk, zer euken, Anastasia, euken izena baia nungue zan-ta ez dakit.

- Ta Anastasia zan edo doña Anastasia?

- Bueno, baia guk, "doña" sekule be ez gontsen esaten. Gero, gero, gerraostin esaten gontsezan "doña" ta horrek. Baia aurretik, ez, aurretik ez.

2.2. Euskal izenak debekatuta

- **Hizlaria(k)**: Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-002/021
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:45:31. **Bukatu**: 00:46:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Euskal izenak jartzea debekatuta zegoen, baina etxean asko erabiltzen ziren izenok.

Transkripzioa

- Ta euskerako izenak entzuten zien, han sasoi? Agurtzane ta holako...

- Bai, bai, bai.

- Joseba-eta?

- Bai.

- Semea: Txomin-ta, Imanol-ta.

- Imanol ta bai. Ni beiño ariñautik be nire baiño zaharrauek-eta be, euskal

izenak eukezan.

- Bai zu baiño zaharrauek? Ze izen?

- Bueno, hor kontuz. Iguel txarto esaten nabil. Euskal izenik imini ez, gero etxien esan euskal izena.

- Bai.

- Hori zan. Hori bai. Hori zuan.

- Bai ze nik hemen lehen ikusi dot, Amaia eta Garbiñe...

- Garbiñe ta horrek, Amaia neure alaba bat be, bada.

- A bai?

- Bai.

- Ta zelan zan...?

- Amaia, Amaia.

- Amaia?

- Ez, María Amaia. María Amaia.

2.3. Gerra denbora etxean milizianoekin

- **Hizlaria(k)**: Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-002/023
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:47:03. **Bukatu**: 00:50:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean eskolari utzi egin behar izan zion. Egunez kobazuloetan gordetzen ziren, eta gauez etxeratu. Etxean milizianoei jaten eman behar izaten zieten. Itxarkundia batailoikoekin ondo konpontzen ziren, baina Perezagua batailoikoekin beti beldurrez ibiltzen ziren. Milizianoek ekartzen zuten arroza prestatzen zuten egunero jateko. Arrozez ase geratu zen Luzia gerra denboran.

Transkripzioa

- Gero gerraostien eskolara buelta ziñen?

- Bueno, gerra denboran eskolie itxi ein biher izen euntsen. Gerrie sartu zan. Oso-oso txarto pasau geñun guk gerra denboran. Hasi zien soldauek etxietara-ta sartzin, ta klaro, ez euen, han egunez iñor ezin lekien egon etxien. Ta ba hartzen giñuzen zerak. Kobetara jun biher. Ta kobak bat hametik ikusten dot, baia han hatxen, hatxen ezkiñan. Han be egoten geñien, juten geñien goixien joanda, illuntzire artin hantxe. Gero etxera etorri ta ba, zeozer jaten-edo imini be, ein biher. Etorten zin milizianu, esaten gontsen guk orduen denboran, soldauei. Etorten zien iguel etxietara, sartzin jakuzen etxien, ta ba hantxe. Ondo esaten euskun ordun ba, ondo. Baia begozan euren artien, batallae bazan Itxarkundia esaten jakona, oso ona, oso ona. Jente oso ona zan ha. Eta beste bat, Perezagua, ha, ostera, oso txarra, oso txarra. Harekin, bueno ibiltten giñien beti billurrez. Ta, baia hori esan duana Itxarkundia zana, ta teniente batek hartute euken, gurerako zer bat! Ta gero frentien be, plantetan zin, han aurrekaldeko etxien, hatxen puntan-ta, han eoten zin pillue. Baia akiten eban bittarteren bat, etorten zan gurera, arroza ekarten eskun, orixue be bai iñoz, baia arroza. Ta gero gure amak gustetan jakozan eskun eiñeko galtzak botakin-ta ibiltteko. Ta gure amak eitten otsezan galtzak. Ta oso-

oso ondo zertzen jakun. Ointxe be, ointxe be, ikusten nau zelako arpeixe euken be. Bai, bai, ondo esaten euskun ze! Ta gero, hurrengo zerien, iguel etorten zan, ta iguel, taluek eitten-edo, gure ama, ta talo bero-beruek-edo emoten otsiezan ta pozik juten zan. Esan duana, arroza. Besteik ez auen gurin, orduen arroza, arroza ta arroza. Gaur egune arroza ikusten bot, edo pentsetan bot arrozaz, gerra denpori akordetan jat. Hori egixe da hamentxe nauen moduen. Eske total bete nitzen, ikusi be ezin dot ein arrozik nik oin. Neutzako ez dot sekulo eingo! Bueno kuadrillan, ba eitten bada, ba, ba, jan barik be, ez naz geratzen. Baie gusture jan, sekule be ez. - Ta arroza zer, razonamientokoa-edo?
- Eurek ekarten abien. Soldauek ekarten oskuen ta ez dakit harek, eurek, eurentzako ala zelan eukitten abiezan. Ta harek behintzet arroz asko. Gero arroza, ostin be eongo zan iguel! Baia, asko. Ta ba...

2.4. Aita Bilbora behiekin, familia etxean utzita

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/024
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:50:43. **Bukatu:** 00:52:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Itxarkundia batailoian bazeuden euskaldun milizianoak, baina Perezaguakoak asturiarrak ei ziren. Larrazabal batailoia ere ibili omen zen inguruetan. Aita behi birekin Bilbo aldera, Larraskitura, joan zen. Ama umeeekin etxean geratu zen.

Transkripzioa

- Nungoak zien horrek, milizianuek?
- Ba, nik ez dakit hori Itzarkundia. Horrek, euskeldunek be bazien euren artien. Ta haez dakit nungue zan. Baia hori Perezagua-edo esan duana, horrek asturianuk-edo ez dakit zer zien. Ta beste bat, hori gitxi ezetu neban nik, Larrazabal be bai bazan batailloie. Baia hori gure aldearea-ta gitxiau etorten zan. Ta ba bueno, baia azkenien gero, ia soldauek eurek hasten jakuzen: "ba etxetik urten ein biher dozue /biozue/". Aitte erun oskuen, etxeko behixek ta burdixe ta danakin beherantza, Bilbo alderantza. Euban itxi abala esaten oskun burdixe, zer baten, basarri baten esan otsiela: "Itxi eizu burdixe hamen ta behixekin zoiezie". Ta behixekin, behi biaz juen zan aitte zerera, Larraskittu. Hori Bilbon albun, Bilbotik albora-edo, Larraskitture, haraxe jun zan. Ta gu geratu giñien amaz etxien. Baia kobetara jun biher ixeten geñun. Ta goxien illunetan, illunez batera, argixaz batera urten, ta illuntzixen etxera.

2.5. Kanoikadatatik kortan gordeta

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/025
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:52:21. **Bukatu:** 00:54:54

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Etxean zeudela, etxetik 15 metrotara jausi ziren kanoikadak. Kortan gorde ziren ama eta umeak.

Transkripzioa

- Behin, suertau xakun goxien, amak ba erropak garbittu ta ein biher deuzela /bideuzela/, ta ba, berandutxu jun biherko dogule /bikule/. Ba ha zan egune, ha zan egune. Amak erropak garbittu, goxien egune argittu orduko etxien, egunaz batera errekarra aklaretan juen. Ta hasi zan Seibittik kañonazuk botetan hasi zien. Klaro, handik gure etxie honan ikusten da. Ta harek momentu guztixe ikusten abien. Harek ikusi abien gure ama be errekarra dula be. Ta errekan erropak aklaretan dauzela esan aban, ganekaldin kañonazuek errementau eutsela. Errekien bera euen, errekan bera, ta hor esateko, holan ganien. Etorri zan erropakin etxera ta esan euskun: "Hametik alde ein biher dogu /biogu/ ze horrek ya hasi die tiroka, ta hasi biher jakuz /bixakuz/". Ta hantxe etxien parien, geure mobimentue ikusi abien ordureko hasi zien kañonazuk botaten. Ta gure etxie (iguel euko dauz hamar-hamabi-hamabost metro ez dittu euko) etxetik kañonazuek jo aban hor. Hantxe dekoz halako matrailla zuluuek gure fatxadiek oin be. Bai, bai, bai. Denpora ona ixen bazan, igon eiño giñun. Honako denporiaz ez dau merezi. Ta gero esaten giñun: "Baia gu ezin giñttekez hamen". Sartun gentsien etxera, kortara be sartu giñen errementoen kañonazo bi: bata esan duana, hamabi-hamabost metro edo iguel ez dauz eukiko; ta, beste bat, beheautxuau. Ta sartu giñen kortara, ba mobimentu ikusten bagaittu ba, atzera be hasiko diela-ta. Ama orduen gaztiena jaixoteko euen, lau umeaz. Nik hamar nekezan orduen, hamabi, hamaike eitteko. Ta neusixek, hamabi eindde. Ta honek Bitorak beratzi, zortzi-beratzi ta gaztiauek sei-edo eukezan.

2.6. Neba metrailaz zaurituta

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MAN-002/026
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:54:54. **Bukatu:** 00:57:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Etxetik ihes egin zuten kanoikada artean. 12 urteko neba metrailaz zauritua izan zen.

Transkripzioa

- Ta klaro, kortatik ixildu zien ta ba kortatik urten geñun. Ta esan euskun amak: "Ba jun biher dogu /biou/ horra, bestaldeko baserrixetara". Klaro zegaittik? Ha beste baserrixek ez die ikusten, hatxa dauke honetara. Ta gurie bai, gurie pare-parien, gure baserrixek baia harek ez zien ikusten. Ta esan euskun: "Harexe baserrixetara jun biher dogu /biou/". Ta arin etxetik harantza, gu pasetan ikusi atzera. Errementau baban, geruntzen errementau babana, neba nauxixe ta ni, ba, naustutxuauek eta gu arin, gu

bixok. Ama beste bixekin atzerau. Aitte ordureko erunde eukien, junde zerera. Ta esan euskun amak: “Juen arin, juen arin, juen arin” Baia arin juen giñien, baia erre kara sartu orduko, errementa euskun honetxek be, gabien azpikaldien, kañonazuek. Ta nik nekezan eskuek, honantxaik eruen nebazan, begixek bistan baia besterik ez, zer pentseute. Ta nebie ariñau aurretik. Nebie metreilliek jo aban, honako lekuen, ta sartu otsen ta barrun geratu jakon metraillie. Baia halan ta guzti be, beruaz segidu egin aban. Baia harek segidu aban gu, jun biher geñun /bigeñun/ baserrire barik aurrerau, haraxe, hatxen ezkiñara. Ha be, ezkutetan harexe. Ta bueno, ni be bai. Ta gero, etorri zan ama be atzien. Harek, oster, sartu zien beste bixekin kaiñuen, ure goittik behera etorten zan kaiñu baten. Entzun abien, orduen kañonazue zerien. Ta harek ba, handik urten ta gu baiño atzeratxuau, sartu giñen baserrixen. Ta ba han, gengoan, ta zelan da ba paseu gendun sustue, ta ibilli giñien, ta esan euskun bertako gixonak: “Nik ez dakit hor umen bat-edo dau, ama diarrez-edo”. Ene! gure amak esan eban: “Ene, gure Zelestiño!”. Pentseizu. Geunken zertute gengoan, ezer akordau bez, ta hantxe ez dakit zer pentsauten egoten giñien, eon giñien. Ta ba jun zien. Ta klaro ha gixajue ezin etorri, hankie euken heridute-ta, metraillie sartute.

2.7. Neba Basurtoko ospitalera

- **Hizlaria(k)**: Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-002/027
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:57:34. **Bukatu**: 01:01:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra Zibilean bere neba bat zauritu zuten eta gauean etxera itzuli ziren neba zaurituarekin. Etxea soldaduz beteta aurkitu zuten. Mañariko botikinera eraman zuten neba, baina ospitaleratzeko beharra ikusi zioten eta Basurtora eraman zuten. Gurasoek ere Basurtora joan ziren eta beste umeez etxean geratu ziren amona itsua eta soldadu piloarekin.

Transkripzioa

- Esan euskun /esauskun/: “Lotuko dotsau /lotukutzau/ hamentxe ta ba gabera artien atzera ezin gara etxera juen”. Illuntzien, illunkeran, atzera jun giñen etxera, dana soldauz beteta geunken etxie. Ta ba mutikuoi eruen abien lepuen. Ta esan eutsien/ esautsien/ zer pasau dan: ta ba: “Hauxe ta hauxe goxien zertute”. Ta goxetik gehixau han zelan? Ta han aber zer eingo geñun guk, nora jungo giñien? Ta bueno bertan esan euskun soldauek, hamentxe Mañerixen beheien euen botikiñe, ta esan euskun: “Bueno, botikiñera geuk erungo dogu. Ta etorri zeuetoko bat”. Ta juen zan ama pentsaten dot zala, ala besten bat ez dakit, dana dala. Ta klaro, metrailli barruen, ta esan eutsienez: “Ingresau ein biher da /bida/”. Hau eruangou zerera, Basurtore ospittelera. Eruen abien, ta gero hurrengo egune, ba aittek eta amak aitte be etxera etorritte euen, semien zeroi dala-ta. Ta aittek eta amak zer ein abien? Bixek juen zerera, ikusten ospittelera. Baie ospittelera juteko be ezin ondo juen. Iguel trena abixetan zan, baia hasten

zien orduen, zerak abioiek eta bonbakin ta zerien, handik be, aterate abiezan hurrengo lekue topeten abien lekure erreka ezkiña batera-edo, halako baten allegau zin Bilbora. Ta bueno, ikusi abien ta operau ein biher dala /bidala/ ta holan. Bueno, gero ha itxitte etorri zien etxera, baie gu etxien beste lau umiok, hiru umiok amama itsuaz. Amama itsue geunken, baia bizi zan beste alboko baserrixen. Baia orduen, harek eurek be urten ein biher etxetik ta gu zelan gengoan umiek etxien, ba geu be han jarritte hantxe [...txuen]. Aitte ta ama illundute agiri ez, soldauek etxien ta baia esan duana, hoixe eskerrak izen zalako, Itxarkundiako soldauek, harixek ondo esan, ta eurek euki abezan, eskabitzeko zerak eta be jateko be, guk ezebe ez geunken orduen, ta galletak ta harexek emonda, harexekin hantxe. Amama alboko aldien suten alboko aldien etzunde. Ta klaro, gero guardixe eitten abien harek kanpuen iñor zertzen bada-edo, gabien-edo. Ta harek gure aitte ta ama, jakin abien kanpotik zina. Ta egozan harek guardixan. Ta klaro, bultue ikusi abien ordun bidien, beti-gora datozela, "alto" emon eutsien. Baia guriek, "alto", "alto", zeri esaten dotsien bez. Pentsau bez. Ta "alto". Ta aurrera. "Alto", ta aurrera. Esan eutsien: "Leku onetik apartau zarie. Jakin in duleko, umiek esan euskue zelan zarien Bilbotik. Ta jakin in duleko zeuek ixengo zaiela, ostien guk tiretu ein biher". Honantxe. Ta ba holantxeik.

2.8. Lau urterekin, aita gerran galdu

- **Hizlaria(k):** Aldekoa Gorospe, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MAN-005/002
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna

- **Laburpena:** Berak lau urte zituela, aita gerran galdu zuen. Oraintxe jakin du Bilbo ondoko Santo Domingon hil zutela. Ama diru-sarrerarik gabe geratu zen alargundu zenean, eta Agrariako hilerokoa ordaintzeko larri ibiltzen zen batzuetan.

Transkripzioa

- Aitte gerra denporan altxau ebean kinttadan eta ez giñun euki geidxau daturik, ointxe arte. Ointxe jakin duaz zelan aitte Santo Domingon hil aben. Hil abien.

- Nungo Santo Domingon?

- Hamentxe, hamentxe, Bilbon edo non da hori santo Domingo? ba hortxe, hortxe. Juliuen hamahiruen, hamaikan. Hamahiruen, hamahiruen, San Antoniño egunien. Nerbiosa nau. San Antoniño egunien zelan hil zan hortxe.

- Oin jakin dozu hori?

- Ontxe jakin dot, ontxe arte ez dot jakin.

- Eta oin arte bapez?

- Ontxe, urtebet ez oniño honantza. Jakin dot zelan hortxe hil zan nire aitta.

- Eta horrek papelak eta sekula ariñau ez zenduzen...?

- Ez, eta nire amak kobretan hasteko ez eukan nire amak sueldorik, berak

pagetan aban zera hori, kuota bat, eta hirurogeita bost urteaz haixe ipiñi etsien. Hogeita hamabi urtaz nire ama alargun geratu zan eta ez eban euki sueldorik, iñundik txakur txikirik bez. Berak pagetan abana hirurogeita bost urtegaz hasi ziren, hasi jakozan emoten. Hirurogeita bost urtera arte. Ta haixe pagetako hillien, haixe pagetako ez daitz hoge, hoge pezeta edo holan izeten zan, pezetak, hoge pezeta izeten zan hillien emotie, ezta? kuotie pagetako. Haixe pagetako sarriten dirurik ez ta ba hille bikue hirukue-edo pagetan aban, azkenien pagetan aban, noz o noz pagetan eban. Eta hirurogeita bost urte kunplidu [jakozanien], handik, handixeik toketan zanetik emon, pagetan hasi jakozan. Eta harexegaz bizi izen zan nire ama.

2.9. Etxeko ganaduak toki segurura eramaten

- **Hizlaria(k)**: Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-010/005
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:08:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, Anastasioren etxeko ganaduak lurreta eta Eubako senideen etxeetan banatu zituzten.

Transkripzioa

- Ba lelengo txarrena zana, ganeuek atera ein biher etxetik. Lelengo biajie ein giñun, Idxorretara. Han ganaduek itxi ta etxera. Durangotik urtetan abien, ta: “¿de dónde venís?”, “de lurreta”. Ezta? “¿A dónde vais?”, “pues, a Mañaria”. “¡Vuelta! ¿De donde viene? Allí”. “Pero, tenemos la familia”, aittek esan otsien. Familidxen eske guezela. Ta hemen ama, tia bat eta anaiak. Bueno tia esanda ezta izeko igual deu, harek tia esaten gontsen euskeldune zalako. Ez, itxi oskuen pasetan. Etorri giñien, etorri etxera ta ba pozik. Baia atzera, ganauaz hondiño! Handik egun bire, atzera ganau bat, behi bat eta txahala itxi kortan, ta bestiekaz Zorrontzara, Eubara. Han baserri baten itxi, han herriko batzuek topeu giñuzen ta esan eustien, ba, han zera zan, Juan ezta? Bai, Juanita zan, Maria, ta han. Ni gelditzeko han, gelditzeko, ezta! Bertakuk giñien ta, ondokue. Bai zera, nik aittaz, atzera hona, Mañarire. Hork be entzuten dauz ala? De dios! Ta, etorri giñien ta orduen ba “¡alto!”. Emon oskun hor Euban, gixon batek errekadue, Izurtzan, bere andrieri esateko Zorrontzan, itxaingo otsiela. Neure artien: “Nora jungo dok ba, Zorrontzara?”. Bera ba negarrez andrioi, ta gu ba etxera.

2.10. Durangon hondakinak garbitzen

- **Hizlaria(k)**: Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-010/006
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:08:03. **Bukatu**: 00:10:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra garaian, azken behiarekin Izurtzatik Durangora joan ziren. Nazionalek Durango hartu eta handik hilabetera hartu zuten Mañeire. Durangon, gerrako hondakinak garbitzen egon zen Anastasio, hondakinok gurdian garraiatzen. Nazionalek Mañeire hartu zutenean, etxera itzuli ziren.

Transkripzioa

- Anastasio: Zubidxe botetako, preparentan. Ta etxera, ta nire ama ta tia, ta horrek ba, harek koban egon zien, kobara juten giñien-ta. Bueno, bota biher dogu /biou/ zubidxoi. Hondio beste behi bat eta txahala kortan. Bueno, hau pasau biherko dogu /bikou/ nunundik ba! Ta atara geñun behidxi ta txahala hortik atzetik [...ra] be. Orduen, ya Durengo hartute egon zan. Horrek, Nazionalak esaten utsienak. Ta hemen hondiño ez. Durengo hartute, hau hillebetera, atzera be hartu abien, hillebete. Ta paseu giñien atzetik, behidxe ta txahala atzetik-atzetik, Izurtza hartute, ta Izurtzatik, ta gu han geldittu giñen. Ta hor topeu giñun gizonezko bat gordeta, hogeta ez dakit zemat egunien eon zan. Ha be gosez urten ein biher aban-ta! Ta erdi negarrez ta bueno, ba, geugaz Durengora. Durengarra zala-edo esaten abien Durungokue zala. Durengon bueno honek Falanjistak-edo, zien bidien ta: "¿De dónde viene usted y?" "De ahí", ta negarrez hasi jaken. "No llores, no te va pasar nada, no llores, no te pasa nada". Ta geugaz. Bueno, ha eruan abien falanjistok edo soldauok eruan abien Durangora. Ta gu be Durangora. Gero ni Durangon geldittu nitzen, ta nire moduen beste lagun batzuk be bai. Durangon bonbardeue zelan eon zan, eskonbrue gure aiñe ta harek garbitzen. Jaten be emoten oskuen, lo eitten izekuana Abadiñora juaten giñien. Bestiek ba aitte be Durangon hor geldittu zan, Durangon, ama, ta tia, ta han sei hillebetien. Gero, han akabau zan ta gero, Mañeire sartu zien, bai? Mañeire sartu zien, ta geu be, Mañeire. Danok pozik etxera etorteko. Holantxe.

- Ta ze egon ziñien, bonbardetako eskonbroak-eta garbitzen?

- Anastasio: Bai. Burdidxen, burdidxe kargau, ta Matidxenera erueten giñuzen, ta han, bota errepara edo ez dakit nora joaten zien. Ahaztute dauket, urte asko da-ta. "El año treinta y siete" idxengo zan hori. "El año treinta y siete".

- Daniela: Neuk daukoan beste urte.

- Anastasio: Orduen jaidxo ziñen?

- Daniela : Gerra denporan esaten dabe jaidxue nazela.

- Anastasio: Honek, bonbak-eta, entzun bez ezer.

- Daniela: Bai, ni lo.

2.11. Karlistenean bazkaldu eta lotara Abadiñora

- **Hizlaria(k):** Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-010/008
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:11:24. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

- **Laburpena:** Beraien etxeko nagusia karlista zen eta eurak ere halakoak omen zirelako eman zieten Durango garbitzeko lana. Anastasiok ez zuen gorpurik ikusi lanek iraun zuten bitartean. Círculo Carlistan bazkaltzen zuten; eta, lo egitera, Abadiño izaba baten etxera joaten ziren, hurrengo egunean Durangora bueltatu eta garbitzen jarraitzeko.

Transkripzioa

- Ta Durengon eskonbruk, baiña gorputzek eta zikinkerri asko eongo zan be, batzeko?

- Anastasio: Guk ez giñun ezer holakoik ikusi. Ez. Durangon ba, horrek, kendute eongo zien, elixie be, apurtu zan ta. Andra Mariako elixie.

- Lourdes: Han harrapau biela asko esaten daurie.

- Anastasio: Bai han asko. Baiña gorpurik ta ez. Gorpuek ba ez geñun ikusi.

- Eta esan dozu hori, trukien jana, jaten emoten otsuen?

- Anastasio: Bai. Baiñe orduen eon zan "Círculo Carlista". Geu be, karlistak giñien-ta. Danok ez, e! Ta beste batzueri, bizkaitarrak esaten otsien. Bizkaikuek giñien. Barre eiton? Bai, bai, karlistak. Eske gure uezaba zan hori, oin dana oin, Benta? Horrek uezabak, hemen bizi zien. Hemen, hortxe hutsik dauen etxien. Horrek karlista haundixek zien.

- Ta orduen uezaba karlista bazan, errentadora be bai?

- Anastasio: Bata abogaue, bestie medikue, bestie zelan zan?

- Lourdes: Injinierue, kimukue-edo.

- Daniela: Kimikue, kimikue.

- Anastasio: "Ingenieros quimico"-edo Jose Mari. Hiru anaixe hemen. Harek gero, jun zien Arabara, Arabara jun zien, handik pasau zien. Danak ez zien pasau baie batzuk, birie jakin arren. Gu hantxe, karlistak giñiela-ta. Albokuek, zelan esan dot ba? Bueno, bizkaitarrak danok giñien. Ordun be ze esaten otsen? Zoro asko eon zan-ta!

- Ta "Círculo Carlista"n ze egoten zan, ze eitten abien ba?

- Anastasio: Durangon? Bazkaixe emoten oskun. [...] jente asko e! Hemen Mañeriko gaztik be asko eon zien. Ta gero lo eitten Abadiñoa joaten giñien, ixekuarena. Eta beste lagun bet hemen Mañerikue, Migel Kasero. Migel, beran abizena zelan zan ba? [...] zuen senidea da.

- Lourdes: Aitten lehengusue.

- Hara lo eitten. Ta gero, lo ein ixekuk armuzue-edo, Abadiñoa edo Durangora atzera be, linpiezie eitten. Ta danok pozik han. Hor uezabak. Eske bakixu zer dan hala hamahiru-hamalau urte? Puf! ointxe dabizen moduen. Guk hamabi-hamahiru urte [...] "a saber" zetan dabizen?

2.12. Erregea kendu eta presidentea jarri

- **Hizlaria(k):** Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-010/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

- **Laburpena:** Errepublikan etorri zenean, Mañriko eskolan Alfonso XIII. erregearen argazkia kendu eta Alcalá Zamorarena jarri zuten. Lourdesek dio Herriko Etxean argazkia aitzurrarekin kendu eta teillatu gainera bota zutela.

Transkripzioa

- Zure sasoiak be bai, Errepublikan-eta?
- Anastasio: Ba erderaz. Errepublikie? Esango dotsut: Errepublikie etorri zaniak, eskolan euki giñun, erregie. Zelan zan, ha, erregie?
- Alfonso XIII?
- Hori don! Badaki. Zuk ez dakidxu hori.
- Lourdes: Ez ba!
- Anastasio: Alfonso XIII. Ta etorri zien gizon bi, hiru pentseten dot etorri ziela. Ta gu gaztiauok, eskolan. Sartu zien ta maidxue naparra. Naparra ez dakit, andrie bai, naparra. Bera, bera, Naparroa aldekie.
- Lourdes: "Viena o por ahí". Logroño aldekie.
- Anastasio: Bai?
- Lourdes: Bai.
- Anastasio: Gabino Arana zan, ha. Ta gero beste bat euki giñun naparra, klaro ni ya lagune nitzen, Aranburu.
- Lourdes: Bai, hori ontsukue. ..
- Anastasio: Ha gerokue zan. Arana ha be kartzelan sartu abien Errepublikan. Ta kendu abien Alfonso XIII kendu, ta bakidxu nor ipini abien?
- Daniela: Patxi?
- Lourdes: Bai zera!
- Anastasio: Alcalá Zamora. Orduen, ha ízen zan presidentie. Alcalá Zamora ipini ebien. Ha kendu ta ipini.
- Lourdes: Ta nok bota eban atxurraz holako erretratu bat teillatutik zíher, kalien?
- Anastasio: Ni, ez naz holakoik akordetan, atxurraz.
- Lourdes: Ta atxurre be gero taillature harrike. Kuadrue lelengo atxurraz kendu ta lelengo teillature, kuadro bat bota. Ta gero, atxurre be bai.
- Anastasio: Ta nun zan hori ha?
- Lourdes: Herriko etxien.
- Anastasio: Herriko etxien, baia eskolan ez.
- Eskolatik, ez zintzen atako ha?
- Anastasio: Ez, ez, ez, ez. Eskolan, han eon zan Alfonso XIII ta kendu abien, ez dakit zer ein ein otsien /eitsien/, ezta?
- Lourdes: Ze kartzelie ta danak eoten zien lehenau herriko etxien-ta.
- Anastasio: Bai, baiñe kendute. Oin be eongo da kartzelaren bat hor. Bai, bai, bai. Hor, badeu bat, aguazille-ta lo eitten ebana.
- Lourdes: Bai, oin medikuen lekue.
- Anastasio: Medikuen lekue da?
- Lourdes: Bai. Hantxe beheien.
- Anastasio: Sartu ta ezkerretara.
- Lourdes: Bai.

2.13. Kolore politiko guztietako jendea Mañarian

- **Hizlaria(k):** Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MAN-010/019
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:31:47. **Bukatu:** 00:34:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Politika » Politika eta Franco
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
 - Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
 - Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena:** Denetarik zegoen Mallabian: falangista, karlista, nazionalista eta errepublikanoak. Azken hauetatik hiru oso ezagunak ziren. Lehen bezala, gaur ere jende txarra badagoela dio Lourdesek, baina lehen partidu politikorik ez zegoela dio Danielak.

Transkripzioa

- Ta herridxen falangistak egon zien?
- Lourdes: Baten bat beti. Danetik: karlistak, falangistak, nazionalistak... republikanuek hiru. Gure amak eta aittek esaten abien: "Hiru: maidxue, Paulo Bizkaiño ta Atutxa". Hiru. Nortzuk esaten abien harek.
- Daniela: Ta oin be botuk botaten dinien beti urtetan dau [...].
- Lourdes: Oin be beti baton batek urtetan dau. Beti.
- Bai?
- Lourdes: Ez! Edo txarto eittiaittik edo bota barik geldittu ez eittiaittik edo zuri itzi ez eittiaittik, ze zuridxe izten bozu be, hak be balidxo dau bestientzako be ta. Ez, burue kantsaute ibili biher da /bida/. Ta hurrengun be haidxe. Ta beti halantxik.
- Beti egoten da?
- Lourdes: Batzui asko...
- Anastasio: Honek ez die akabauko. Oin gero ta gehidxau daz, berriz!
- Lourdes: Batzui asko ardure ixeten dotsie. Ta lehenau be botuek batzeko pagaute-ta jutun zien. Ta zelan ez abien eukitten askok ha dirue be, pozik jueteko, gero kobretako harexek errielak edo pezetak edo ogerlekuk emoten otsienak. Danerako jentie, mundue mundu. Ta orduen eongo zien txarrak ta txarto eittekuek asko. Baia oin gehidxao, ni neuretzako. Diximuluaz pentseu bai.
- Anastasio: Gehidxau gauz-ta, jente gehidxau.
- Lourdes: Baia igerri barik ez.
- Anastasio: Ta Mañaridxen gehidxau bapez, e!
- Lourdes: Mañaridxen Mañarikuk asko Durangora ta haraxe juende[dauz].
- Ta han sasoién, aiuntamentuen egon zienak, frankistak izen zien edo ez?
- Lourdes: Danetik han be.
- Anastasio: Han orduen, ba, monarkiko edo karlista.
- Daniela: Baia fitxaute ez.
- Lourdes: Ez, horrenbestien ez, keba.
- Anastasio: Botue, botue, ta ba. .. Oin, oin, oin, oin... Jesus! Jesus!.
- Daniela: Ta oin hor dauena fitxeute dau. Edo PNVkue, edo Partido popular... ta dana. Harek euren partidukuk die. Baia lehena holakoik ez euen. Ta...

- Anastasio: Oin ete dau hamen popularrik?
 - Daniela: Ba popularrak be beti eoten die.
 - Lourdes: Egongo ez die, ba?
 - Daniela: Botuek ointsu be...
 - Anastasio: Bai, bai, botuek bai, baia aiuntamentuen inor ez da eongo.
 - Daniela: Aiuntamentun PNVkuk bakarrik dauz oin.
 - Lourdes: Oin PNV, aspaldidixen PNVkuk bakarrik.
 - Anastasio: PNV bakarrik? Ta Ezker Batua?
 - Daniela: Holakoik ez dau.
 - Lourdes: Ezker Batua... hamen sekulo eongo zan ala Ezker Batua?
 - Anastasio: Lehen ez, lehenau ez. Ez euen.
 - Lourdes: Etorri be eitten zan beti geure ezaunen seme bat be botuekaz be. Neure akorduen be. Ez [dakiat /etxakiat/ hil ez zan, barriz], bera. Gaztie. Durangotik honaxe. Ardure otsenak bakotxak berie eitten eban nahiñora danak baia beste batzuk ba. ..
 - Anastasio: Bai, lehen, sasoi baten, Durango ta Mañari ta honek danok karlistak nausi zien. Nausi. Durangon be bai. Baia gero, ba...

2.14. Karlistak eta jeltzaleak

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAN-010/023
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:42:56. **Bukatu**: 00:45:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
 Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
 Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Eskolarako bidean marrubi, intxaur edo gereziak osten zituen Anastasiok, eta maisuak jakiten bazuen zigortu egiten zuen. Lourdesek eskolako jolasak ekartzen ditu gogora, eta kanturen bat ere bai. Karlisten eta jeltzaleen kontuak.

Transkripzioa

- Lehen esan dozu zuk hori, olgetan ibiltzen ziñienekoa-eta, ikusten zenduela bera, Kirikiño.
 Baiñe olgeu, zetara olgetan zenduen umetan zuek? Banan-banan baiña ia... Zetan olgetan zenduen umetan?
 - Anastasio: Umetan?
 - Edo gaztetan?
 - Anastasio: Gaztetan, esango dotsut. Eskolara. Ta bidxen bittartien intxaurrek eta keidxak eta mallukidkek ostu. Ta poltsan erun ezker, maixuek kendu. Ta kastigue. Kastigue. Bestela, zer orduen, orduen denporan? Han, badoie.
 - Zeozetan olgeko zenduen.
 - Lourdes: Bai, ixerka, kubike, kriaka ta holakoxiek. Soketan: "Al cocherito leré, me dijo anoche leré..."

- Anastasio: Beittu, zelan erderaz?
 - Lourdes: "Que si queria leré, montar en coche leré..."
 - Anastasio: "Que si queria leré, [...] leré". Jesus! Orduen... Barre? Ez dakiuz ala?
 - Lourdes: "Y, yo le dije leré, no quiero coche leré, porque... na-na-na... me mareo leré". "Porque me he mareo leré". Zelan zan?
 - Anastasio: Jesus...! Harek denporak, harek denporak. Ezer aittu be ez, ez botuetan, eta ez karlistak eta ezebez. Horrek karlista txarridxok!
 - Daniela: Ta entzun ein biher.
 - Anastasio: Jo, guk esnie ekarten giñun, ba, esnie hona. Gure [Andresa] ta hor bixi zien lekure. Jeseus... Idxildu be horrek karlista txarridxok...! Ta noberak be zeozer esan ein biher! Karlistan [etxien gauz-ta]. Hantxe, barriz, erdi-merke. Jesus! Karlista txarridxek. Koittauk, koittauk, harek. Gero, danak monja, danak gero eskapeta Frantzidxatik, nundik zien be ez! Agertu zien ahal dan moduen. Horrek karlista txarridxok! Ta bizkaitarrak, gu bizkaitarrak, gu onak. Ta bizkaitarrak ez euen orduen, e. Zelan zan?
 - Lourdes: Ez dakit ba.
 - Anastasio: Bizkaitarrak zelan esaten dotsie? Partido Nacionalista Vasco erderaz, baia beste ixen bat baukie.
 - Jeltzailiek.
 - Anastasio: Jeltzale, hori da, jeltzailiek.
 - Daniela: [...] Hori ontsukue da.
 - Lourdes: Bai, hori ontsukue da.

2.15. Abereak kendu zizkieten

- **Hizlaria(k)**: Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-019/013
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:22:31. **Bukatu**: 00:24:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Behiak, ardiak, astoa, ahuntzak, oiloak... zituzten etxean. Bere aita Izurtzara joan zen abereekin eta milizianoek ia denak kendu zizkieten. Sei oilo eta ahuntz bat baino ez zuten mantendu; oiloak ohe azpian ezkututzen zituzten eta ahuntza tuberia batean.

Transkripzioa

- Ta gurien be, ardixek be baegozan ta behixek be bai ta astue be bai ta ahuntzek be bai ta oilluek be bai. Ta aitte ba Izurtzara bajatu zan, zerakin, behixekin ta ardixekin, ta erun otsiezan lantzien ba lantzien ardi guztxiek, milizanuek edo dana dalakuek, tropak edo historixa, lantzien bat hildde jango abien-edo, ardi guztixek eta behixek be bai. Ta astue ume eitteko ta orduen astuek-eta frentera, ta Otxandixora eroan abien, Otxandixon frentie hor. Ta astue be kendu oskuen eta eroan abien. Ta geldittu giñen sei oillo ta ahuntz bataz, ta harek sei oilluek kajan sartu ta egunez eukitten geñuzen ohepien sartute ta ahuntze eukitten geñun egunez, ostien errekie eguen, gure amamen-eta ostien errekie egon zan, ta han ba kalietako tuberixak-eta zerien, eta halangoxe tuberixa baten sartute ahuntze eukitten geñun, ta gabetan atara ta jaten emoten gontsen. Ta oillueri be gabetan.

2.16. Euskadiko dirua balio barik

- **Hizlaria(k):** Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-019/018
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:30:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- **Laburpena:** Gerraostean apurka-apurka egin zuten aurrera. Diruarekin arazo larriak egon ziren, Euskadiko diruaren balioa indargabetu egin zuten-eta.

Transkripzioa

- Ta gerra ostien ze akordeu dekozu?
- Gerraostien esan dotsut zelan ibilli giñien eskolan, zelan ibiltten giñien.
- Ta bizimodue, ganadu barik-eta, zelan konpondu ziñien?
- Aprukan-apurkan erosi ein biher. Bai hori ba, dana batera ibili barik lantzien bat-edo erosi biher, ez. Ta hau be, hau be, honegaz be beste ostikada bat egon zan orduen denporan, dirue be, kanbixeu ein zan, Euskadiko dirure ta gero hau buelteu zanién, Euskadiko diruek be nulo bota. Ta dirudunek be diru barik geldittu han be. Terrible zan gero, ha terrible zan.

3. Familia eta harremanak

3.1. 'Saketan' bildotsen hezurrekin jolasean

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/005
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Eskolan mutil bat bakarrik zegoen arineketan Luzia harrapa zezakeena. 'Txopinka' eta 'saketan' jolasak gogoratzen ditu. Bildotsek eta ardiek atzeko hanketan zuten hezur bat zen 'saketan' jolasean neskek erabiltzen zutena. Mutilek txirringarekin jolasten zuten.

Transkripzioa

- Ni eskolara ibili nintzen sasoién, Mañeridxen egon zan mutill bat ni harrapetan niñduena ariñeketan. Mutil bat. Iñok be ez niñun harrapetan hor sasoién. Hil zan. Antonio Sarobe, neu baiño gaztetxuaue zan.
- Nungue zan ba?
- Ba Mañerikuk, bertakuek ez zien izen. Oin Mañeridxen eukezan izeko ta horrek. Ta Mañeridxen bizi zien, egon zien behintzet eskolara, asko ibili zien harek anaidxak. Bai.
- Orduen neskak eta mutillek arkalegaz?
- Bai, bai, bata bestie artapetan. Ta beste bat beste bat txopinke be bai

idxeten zan, txopin. Txopinke izeten zan: hara, paretan zin ilaran, ta gero ba toketan jakonak hari txopin emon, ha aiñeketan, ta bueno, holakoxe gauzek zien.

- Ta pelotaza-eta?

- Saketan. Saketan, ez dakizu zuk zer dan saketan? Tabak, tabak be, ez dakizuez? Tabak, tabak badakizuez?

- Baiña esplikeu, esplikeu.

- Bai. Sakak, izeten zien gutzat. "Saca, pon, culo y carne". Sakie idxeten zan, eukitte eban, ba holan, zer bi. Honen antzekue idxeten zan. Honetara imiñten bazan, hau izeten zan ganekue, "saca": honan imiñten bazan, "pone"; ta honan artez, aldeka batera imiñten bazan, "culo"; ta bestera imiñten bazan, "carne". Ta harek kanikiaz, harek izeten zien ba harrapau, buelta emon, ta noberak esan edo zerin buelta emoten botsezun, sakai emoten botsezu ba, sakan urtetan botsu, harek irebazi eitten aban. "Culo" imiñten bazeñun, holan begire, bardin, irebazi. Bestera be, erara imiñten bazendun... Oin, galtzen bazeñun, ba atzera danak bota biher.

- Ta zelakoak izeten zien?

- Oso polittak. Zelan esango dotsut? Horrek eukitten ebazien, billotsak ta ardidxek. Bai, juntan. Hor juntan eukitten abiena, juntan aurreko hankan ez, atzeko hankan eukitten abien. Eta hantxe eukitten eurien hazur bat, hazurre zan! Hazurre. Hik, ikesiko eban ez dok, apur bat ikusiko ebazen harek?

- Semea: Bai. Pinttau-eta eitten ziñuezan.

- Pinttau, be bai.

- Bai, pinttau?

- Pinttau eitten giñuzen, gero.

- Zegaz?

- Ba, zeraz, ba...

- Semea: Klarionaz.

- Klarionaz zein pintturakin be iguel, kolorezkuekin be iguel.

- A bai?

- Bai, bai.

3.2. Errekan ezkailuak eta "kangrejoak" harrapatzen

- **Hizlaria(k)**: Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-002/006
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:14:28. **Bukatu**: 00:17:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Sokasaltoka jolaseko "Al cocherito leré" erdal kantua abesten du. Panpinzalea ez da inoiz izan Luzia. Errekan ezkailuak eta "kangrejoak" harrapatzen ibiltzen ziren. "Kangrejoak" etxean egosi eta jan egiten zituzten. ("Kangrejoa" errekoari deitzen diete; "karramarroa", aldiz, itsasokoari)

Transkripzioa

- Baiña horretan neskak bakarrik edo mutillek be bai?

- Mutillek ez. Mutillek txerringie, txerringiaz ta ibiltten zien. Bai, bai, bai.

- Horregaz aroagaz?

- Aruaz. Beste [...] bat imiñi honan, ta bueltaka, ta urriñ-te, bueltaka, ta eitten [...]. Ta beste bat egoten zan, saketan edo soketan, saltoka. Bai kantaute be iguel eitten geñun, “Al cocherito leré” ta horrek.

- Zelan zan “Al cocherito”?

- Bai, erderaz ikesi giñun!
 “Al cocherito leré,
 que si quería leré,
 montar en coche leré,
 y yo le dije leré,
 con gran salero leré,
 no quiero coche leré,
 tener marido leré,
 que me mareo leré.” Cambio.

- Eta muñekatan?

- Ez, muñekaik ez jatan /etxatan/ gustetan niri. Nik ez.

- Euki bai?

- Ba eukiñ eiñ doaz iguel, baten batzuk emonda, trapu zahar. Ein eitten giñuzen, baie neri ez jatan gustetan. Eukitten giñuzen, trapu zaharrakin-ta. Ez, niri neuri ez jaten gustetan.

- Ta hemen errekan be, olgeuko zenduen ba?

- Errekan olgau? Bai, eskeilluek harrapetan-ta kangrejuek harrapetan-ta.

- Bai, loiñek-eta?

- Lueñek, ez dakit zertzuk dien.

- Ez?

- Semea: Ez dakigu zer dan baiña...

- Ez dakit, ez dakit zelan esan. Errekan eskailluekaz-ta?

- Ur apur bat emoiztek.

- Ez, ez, beste batzuk die, ez dakit.

- Loiñak, ez hamen erreketan ez zien egoten loiñak, ez. Badakit zeintzuk dien horrek, baiña loiñak ez zien hamen erreketan eoten. Gure erreketan eoten zienak izeten zien: eskeilluek eta kangrejuek. Ta kangrejuk harrapau, etxera juen, imiñi txolet bat surten uraz. Hak, urek, irakitten eban orduen, hara bota, ta harek egosten zien. Ta haxe jan.

- Ta zelan harrapetan zenduezan ba?

- Fazil, fazil. Harek harrapietan ta eoten zien. Ta fazil harrapetan zien!

- Eskuekaz?

- Eskukaz. Eskuekaz.

3.3. Neba zaintzen

- **Hizlaria(k)**: Aldekoa Gorospe, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-005/006
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:11:21. **Bukatu**: 00:13:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Neba ez zen jolas egiteko gauza, baina auzoko umeekin egoten zen, Mirenen zaintzapean beti ere. Auzoko umeekin jolas asko egindakoa da Miren. Abarketa jokoa azaltzen du.

Transkripzioa

- Hori, esan dozu, nebiegaz olgeu eta, baina zertara olgetan zendun?
- E?
- Nebiegaz esan dozu nebie zainddu eta ahal zana beragaz olgeu.
- Olgetan baina olgetan ez zekixen hak. Guk... auzoko umiek eta orduen olgetan abien ezta? ta hantxe egon iguel olgetan ta, hantxe onduen ibiltzen zan bera be, onduen hantxe bueltaka hantxe ibili hantxe bueltaka. Baia iñoiz martxau igual, ze neu be umie nintzen ta. Ta niri martxaten osten /martxateosten/ ordun amak guantia. Baia ba, umie nitzen ta martxau.
- la, normal.
- Bai ba entretenidu olgetan, olgetan entretenidu igual eitten giñen, ostantzien ibiltten zan geugaz, geugaz be ibiltten zan, geure artien, hantxe koadrillan ibiltten zan, baia [...] eskapa, ta eskapau ezker ez... eskapau ta neu juen ta neuk eskutik ebatu ezker neugaz be bai, neugaz be etorriko zan, konforme etorten zan neugaz be. Ona zan, ostantzien ona zan. Baia txikixetan amak esaten aban /esateaban/, ni txikitxue nintzela, txikitxuten, surteko zera su hartu ta igual oge ganera ta [...]. Orduen, orduen ni txikitxue nintzen ta... berak be txikitten eitten ebazen /eittebazen/ horrek ezta? Urte bixen aldie eduki giñun ta. Asko, asko [...] giñun guk, asko, asko.
- Eta auzoko umiekaz olgetan zenduen ezta? Zetara?
- Ondo, auzokokin danakin ondo erun neban nik. Danakin ondo.
- Neska eta mutil?
- Neska ta mutil, neska ta mutil. Ta Gabonetan barrez etxe bat eukitten giñun, danak haraxe juntetan giñen, afaldu ostien ta gau guztixe pasetan giñun hantxe. Oin moduen barik beste modu baten olgetan giñun guk.
- Zelan, zetara olgetan zenduen?
- Zetan olgetan, edozetan, abarketa jokue ta, bakizu zertzuk direzan?
- Ez
- Ba zer esango dotsut? Danak holan korrilluen plantau ta erdixen abarketadune bat "con prior" ta handi azpitti bueltan abarketie, azpitti bueltan, ta harrapetan botsen han "con prior", lepokuek, trapa-trapa-trapa lepoti zihher emon. Holantxe olgetan gendun guk. Gero azkenien goixaldien txokolatadie ta, holantxik. Oingo moduen ez zan lehenau ixeten.

3.4. Kirikiñoren emaztea eta koinatak

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-010/021
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:35:08. **Bukatu**: 00:38:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Batzoki zaharra non egon zen azaltzen du Anastasiok. Basilia, Errosa eta Irene ahizpak, Kirikiñoren emazte eta koinatak, gogoratzen dituzte.

Transkripzioa

- Eta hemen egon zan, hori, Batzokirik edo Zentro Republikanorik edo Mañeridxan?

- Lourdes: Batzokidxe bai. ‘

- Anasasio: Batzokidxe bai.

- Bai?

- A: Oin be hor dau, ointxe arreglaute etxie.

- Batzokidxe?

- Daniela: Bai aiuntamentuan hurrungue, gorantzakue. Hori barridxau eindde dauena.

- A: Ointxe ba ez dakit, hondiño be ha Batzokidxe eitteko kontue dabillie ta. Hau etxe bat hutsik badeu hamen, ba? Etxe zahar bat? Hor, hortxe eon zan Batzokidxe. Baia karlistenik ez. Keba! Mañeridxen ez.

- Ta falanjistana?

- A: Falange.

- L: Holakoik eL Ni neu ez naz akordetan behintzet. Ta honen lehengo Batzoki zaharrana, be ez. Gero han bestien eon zanekue bai, baia hamen ez. Ze, [Seguratu] bizi zan etxien, egon zuñan Batzokidxe.

- D: Bai.

- A: Miradora hor eon zan ona, miradora.

- L: Oin botata dauena, oin. Oin, botata dau.

- A: Neure akorduen ondo, miradora ta.

- L: Horren akorduik nik ez deket, zuk eukiko dozu baia. ..

- A: Jesus, eukiko ez dot ba!

- L: Esaten abien ordun, nortzuk juten zien hara-ta.

- A: Zelan da?

- L: [...]

- A: [...] ugezaba, horko ugezaba.

3.5. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAN-010/024
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:45:08. **Bukatu**: 00:47:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Ixerka, kubika eta krieka jolasak azaltzen dituzte. Kubika neskek eta mutilek elkarrekin jolasten zuten. Pilotan eskolako horman jolasten zuten. Oinetako asko apurtzen zituzten jolasean.

Transkripzioa

- Ia, esan dozu izerka ta kubike ta krieka ta ibiltzen ziñiela. Zertzuk die horrek? Izerka?

- Anastasio: Ixerka?

- Lourdes: Ixerka, ba...

- Daniela: Harrapetan.

- Lourdes: ... harrapetan. Ta harrapetan abanak izkiña batera eruen ta han itxi. Beste bat harrapetan...

- Anastasio: Holan lotute.

- Lourdes: Ez, lotu barik.

- Anastasio: Bueno, holantxe, ebatute. Ta harrapau ezik, ta harei ikutzen badotso, atzera libre harek danak.

- Lourdes: Bai. Gero atzera igul bape barik eta gero nobera sarri [kunplidor beti].

- Anastasio: Ta kubike... Zelan da erderaz?

- Lourdes: "Esconderite".

- Anastasio: "Al esconderite lelé, me dijo anoche lelé, que si queria lelé, montar en coche leré". Idxerka-ta. Jode, guri [...].

- Ta krieka-edo, zer esan dozu?

- Anastasio: Ba, ixerka ta krieka antzera.

- Lourdes: Antzerakuek bai harek.

- Anastasio: Antzera. Ta kubike... Kubike, ba... gurera be jentetan juten zan [... pillora], danak han, neska ta mutil.

- Lourdes: Ederto.

- Ta neska ta mutil horretara?

- Anastasio: Oin, oin ikusi bez.

- Ta pelotaka-edo?

- Anastasio: Bai, baia frontoarik ez euen.

- Horma bat nehikoa da?

- Anastasio: Horma bat.

- Lourdes: Eskolako hormie.

- Anastasio: Eskolako hormie. Ezkerretik bapez. Gero ein abien, ba, Francon denporan frontoie, elegantie. Ha be bota. Bera ez abien bota Franco; ha be hil zan ta. Gero oin frontoiek elegantiek. Oin geu jodidute.

- Ta pelotak zelakoak izeten zien?

- Daniela: Ba, trapuzkuek. Ze ixengo zien? Etxien ein holako bola [zer batzuk eta].

- Lourdes: Punta batzuk ein ta eurrera. Harek joten abien lekuen... Harek azertau ein biher zien gero!

- Anastasio: Abarketak apurtu ta zapatak-eta. Diruik be ez abarketak erosteko-ta. Ha, zuan ona, ona. Eskerrak, eskerrak Jaingokue kanbidxau abielako. Bai, bai. Ostantzien? Hamen lehengo moduen biziko giñen: ez frontorik, ez, ez... bueno!

- Ta muñekarik?

- Lourdes: Nik neuk sekule ikusi be ez.

- Anastasio: Nun dau gurien muñekie, ba?

- Lourdes: Ez daukeu guk muñekaik.

- Daniela: Oin, ba, hamazortzi hillabeteko illobie deket nik eta muñekerik ez deko, ez dot ikusi muñekaik. Asike, ez dakit ba.

3.6. Andrak lanean eta gizonak siestan

- **Hizlaria(k)**: Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-019/025
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:38:27. **Bukatu**: 00:40:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Gizonek etxe barruan ez zuten lanik egiten. Soldadu egoten ez zirenean, tailerrean lanean. Solotik etortzen zirenean, etzundu egiten ziren mahai prest egon arte. Bazkalostean andrekin dena

jaso arte siesta egiten zuten. Gizonezkoak etxean lanean ikusten bekatua zen.

Transkripzioa

- Andrazkoan biherria edo?
- Makiña bat ein naban neuk be.
- Eta gizonak?
- Ba gizonak soldau!
- Baia soldau ez zien egoten beti.
- Gizonak lehen gizonak soldau, oin ezkontute gero taillerrien, ezkontute gero taillerrien. Baia bestela soldau gizonak.
- Etxe barruen ez zebe biherrik eitten.
- Gizonak? zer dan bez, golperik bez!
- Baia soloan eta bai.
- Bai soloan be sarriten andrak urten biher eurretik. Ez gizonak eitten abien, lehenau gizonak eitten abien, solotik etorri ta etzunde paretan zien andrak behixe emon ta mahaixe ipiñi ta bazkarixe atara ta ein artien. Ta gero bazkaritten abien orduen, atzera siestara. Edo zer, zakuek hartun, zaku ganiien pareute etzunde ta han, andrak fregeue ein eta inguruek ein artiño. Ta gero solora be sarriten andrak eurretik.
- Ta andrak ezien etzunduten?
- Bai zera etzun. Andrak beti eukin biher etxien, etxe barruen. Soluen lelengo eta gero etxera etorritte etxien eta kortan-ta barriro. Oin oin espabillau die pixkat gizonak, oin gizonazkuek oin, oin. Ze lehen gizonak.
- Ez jakielako erakusten umetatik.
- Lehenau gizonak biherien ikustie-ta etxien, bueno! pekatue zan.

3.7. Etxeko garbitasunak eta usain gozoa

- **Hizlaria(k):** Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-019/029
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:45:42. **Bukatu:** 00:48:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Etxeko garbitasunak zelan eta zerekin egiten zituzten azaltzen du. Ereinotza eta erromerua usain ona egoteko erabiltzen zuten, umeei fardela aldatzerakoan be usain txarrik ez izateko erabiltzen zen.

Transkripzioa

- Etxeko garbittasune? arenetako geuzie bazan, belaunikoa pareu eta "ri-ra-ri-ra" eskobilla zahar bategaz lelengo eta gero moltso bat az [...] eta holan. Oingo moduen lustrerik-eta ez, e! oin jentiek baztarratan lustrie da, baia. Lustrie edo brillue esan gure dot. Lustrie lehen be zan handiki etxietan-eta zien lustriek eta horrek be.
- Itsuskixe-eta?
- Itsuskixe? edo holako kañaberazkue eta giñerrezkue-edo.
- Fregonarik?
- Fregonie? baldie.
- Bakarrik.

- Ba sartu han baldien trapu zahar bat eta beti estutute.
- Eta horrek moltsoak zelakoak izeten zien?
- Moltsue? ba trapu zaharren bat.
- Edozein trapu?
- Bai, dekenak deken modukue. Oingo moduen dendara jun ta erositte ez, e! ai jaingoikue, hau ona!
- Erropa zaharren bat orduen?
- Traste zaharra, ezetarako ez dan traste zaharra.
- Ta ibiltzen zenduen bedarren bat-edo usiñe atateko?
- Bedarra?
- Ereinxotza edo holako zoyer.
- Ereinxotzie bai, erromedue be bai. Etxien be usaiñe edo zoyer eittie gure bazan, txingerrak atara katxarro zahar batera eta ereinxotzien orrixek bota edo romerue bota edo ta haixe ereinxotz usiñe ta erromeru usiñe. Lehenau umiek be txikixek kanbixetan zien orduen, ba brasie atara eta ereinxotzie bota hara ta paseu zerien ta ume txikixek be oin koloniakaz dauzen moduen, ereinxotzi usiñegaz egoten zien, ibiltzen zien. Ta bakizu hori be, ez? entzun dozu, ezta?

3.8. Umeen fardelak

- **Hizlaria(k):** Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-019/030
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:48:10. **Bukatu:** 00:50:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena:** Umeen fardelak izara zaharrekin eta mantarrarekin egiten ziren. Umeen prakek atzealdean joscura solte izaten zuten makurtzen zirenean kaka libre egin zezaten.

Transkripzioa

- Ta "umiek kanbixeu" esan dozu. Umiek lehen, oin pañalak-eta eukitten dabez, lehen?
- Ba orduen ez, orduen izarak. Txikixek harak eta oiñezerako edo juen artiño, mantarrak esaten zan, mantarra. Izarie eta ganetik mantarra, sendo-sendo bat eindde, noberak edo joskilliek einde. Mantarra, entzunde dekozu? mantarra ganetik. Ta geroba pixkat zertzen zien orduen, oiñezera-eta juen deitzezan, gonatxuek-edo, orduen gonatxuek edo praktaxuek-edo, holan izeten zien. Ta mutillei be bai praktaxuei edo oiñez edo zerien, ba praktara kaka ein ez dizien be makurtzen zien orduen, kanpora ein dizien, prakak atzie zabalik-eta.
- Zelan hori? prakak zelan, esplikeu eizu.
- Ba erropak joskurie zertzen jake ba. Beittu eizu! hau ta honek jositte bixok egon biherrien, ba joskurie honango bat-edo suelto ta makurtzen zien orduen ba praktara be [...] kaka.
- Libre.
- Ba klaro libre.
- Ta gero hori dana eskuz garbittu biher.
- Bai, ha kanpora eitten abanien harek gero paletiaz, bota zozeaz askara edo zozelan paletiaz. Iñun die, iñun dienak urtengo die hemen.

3.9. Umeen izenak erabakitzea

- **Hizlaria(k)**: Etxanobe Oteiza, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-019/046
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 01:07:42. **Bukatu**: 01:11:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena**: Bere seme-alaben izenak amamak aukeratu zituen. Izen horiek zergatik jarri zituzten azaltzen du. Izen euskaldunak ere bazeuden; berari "Elisabete" esaten zioten batzuek, baina ez zuen gustuko.

Transkripzioa

- Eta zu konforme amak esaten ebanagaz?
- Niri ze ardure doste, ba?
- Zure umiek zien.
- Bai, baia. Bat izen edo bat ipiñi edo bestie ipiñi, antzeran.
- Baia izen danak ez jatzuzen gusteko.
- Nik ez neutsien holan dan-dana be, gurien: bata Karmen, Karmen egunien jaixo zan-ta; bestie Jose Agustin, aittitte zan aittitte bat zan Agustin eta bestie Jose zan, ta Jose Agustin; ta bestie da Maria Elena ta Santa Rita egunien jaixo zan. Ta Santa Rita ipiniko ote otsien zerien, eta hamen albokuen txakur bat "Riki" izena eukona, ta zera alderdi baten "Riki" ta bestien "Rita" ba txakurre deittu ta iguel umie etorriko dala, ta iguel txakurreri "Riki" deittu ta iguel umie etorri ta "Rita" deittu ta txakurre etorri.
- Badaezpda be Elena.
- Maria Elena ipini etsien. Santa Rita egunekue.

- Hobeto Maria Elena, Santa Rita baiño.
- Ez daitz nik.
- Ta euskerazko izenak jartzen zien?
- Bai. Egoten zien euskerazko izenak. Neu be "Isabel" naz ta "Elisabete" esaten ostien, baia. Batzuk "Elisabete" deitzen ostien, ta beste batzuk "Isabel" ta ba izen bixeri erantzuten notsien. Baia larrei etxatan gustetan, garbi esaten noie, larrei ez jatan gustetan "Elisabete" esatie. Ze batzuk esaten ostien, ni elizara jueten nazen orduen elizie bete-bete eitten doala. Barre eitten dozue? ez die barregarrixok horrek.
- Hori burletako zan.
- Sarritten putxuko bat emoteko, ardurik ez dostela pareten nitzen egoten nitzen, bueno demostreu ez naben eitten e, baia barrutik demoniñoa eukitten naban.

4. Lanbideak

4.1. Arrain-saltzailea baserrietara

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/007
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:17:08. **Bukatu:** 00:19:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Luzia gaztea zenean, arrain-saltzaileak baserrietaraino igotzen zuten. Sardinak eta txitxarroak erosten zituzten. Umetako argazki bat erakusten du.

Transkripzioa

- Eskaillue ba bai?
- Eskeilluk be bai.
- Ez eibien eskapetan, ala?
- Bai, batzuk eskapeten eben baia beste batzuk harrapau eitten zin.
- Hori izengo zan ezta, jaten zenduen arrain bakarra?
- Bai. Nik ez, arrain bakarra hau, ez, ez, ez. Gure sasoién, gure gazte sasoién be, peskeruk ibiltten zien hamen. Ta baserriño be igoten abien.
- Baiña, hau bai, dirurik?
- Ba, ba, lau erosteko ez bauen, bi erosi ta aurrera.
- Makillaue ta holan-edo?
- Makallaue? Ez, ez. Sardiñie, txitxarrue ta holakuk idxeten zin gehidxen. Ta iguel, hamen Mañeridxen, hortxe rotondan paseu, te lelengo baserriraiño igoten aban orduen, zerak, peskeruek. Zerettik, deittu eitten aban handik, hortik hortidixik deitzen aban: "pesquero, esquero". Guk, handik basarritik entzun. Ta amak esaten oskun baton bati: "Benga, bat edo bestie, arin; peskerue dau kalien-ta". Iguel handitxik honeraiño kalera, etortzen giñen aiñeketan. Ta igon be eitten abien gerora, basarrire ta haraño be, baia.
- Ta lehen hemen erakutsi dozu eskolako erretratue, hor zelan zauzien jantzitze, dotore.
- Bai. Ez dakit ze dotoretasan euki doten be-ta!

- Ba danok zauzie [...], erretratue ikusko dogu.
- Batzuk elegantetxuk dauz hor.
- Bai. Danok ziñien Mañarikoak, danok?
- Ba bai, pentsaten dot danok gañiela. Mañerin bertan jaidxuek ez dakit, baiña Mañeridxen bizi zienak bai. Bai, danok pentseten dot.
- Gonatxuekaz danok?
- Bai, bai. Hor ez zeuen prakaik.
- Hamen ez dau albarkarik eta abarketarik.
- Ez, ez dagoz.

5. Baserria

5.1. Lastamarrega eta koltxoia

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/013
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:29:04. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ohetako koltxoien artilea lantzean behin harrotu egiten zen. Artilea garbitzea lan txarra omen zen. Ohearen malgukien gainean lastamarrega jartzen zen, eta honen gainean koltxoia.

Transkripzioa

- Koltxoiek garbitzeko?
- Ene! Koltxoiek lanazkuek eta bueno! Garbitzen abiezan iñoz, baia iguel garbittu, garbittu ein baiña uretan baiño iguel gehidxau, atara koltxoitik edo zeretik ta eskuekin. Ta atzera dana zertu han, batute-ta eoten zien-ta. Ta harek nasaittu. Iguel ein atzera sartu. Baia iñoz garbittu be bai.
- Zelako biherlekue!
- Bai, zelako biherlekue. Ha, ez zan biherlekue ez. Ha zan, bueno, ez noie esaten ze, txarto berba eitten ez noie. Ta ba hori azkena.
- Zuk hori lanazko koltxoiek ezagutu zenduzen?
- Bai.
- Kapatxadunek-eta? Kapatza, kapatza edo...
- Ez. Zera.
- Artoan azala?
- Arto azala. Lastamarrienak. Lastamarragak.
- Bale, lastamarragak.
- Horrek ez, horrek ez, ez, ez, ez. Horrek ez.
- Lastamarragak?
- Lastamarragak.
- Guk kapatza esaten dogu. Han parajin kapatza da. Eske herri bakotzan.
- Bai, bai, klaro.
- Lastamarragak.
- Lastamarragak. Hori, lastamarragak zien. Lastamarragak.
- Eta horregaz eitten zenduezan zuek?
- Lo?
- Koltxoiek.
- Koltxoie bai. Hori koltxoien azpidxen imiñten zan, koltxoie ganetik. Horren ganetik imintten zan. Oin mueblie edo esaten dana; bueno, oin hori gerora

izen zan. Haren ganiari hori lastamagarrie. Ta lastamagarrien ganin, koltxoie. Horrek izeten zin.

5.2. Bi kuma ume bikientzako

- **Hizlaria(k):** Inzunza Arteaga, Luzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-002/014
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:33:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Lehenengo umearentzako erositako kuman egin zuten lo Luziaren 9 seme-alabek. Ume bikiak ere izan zituen, eta orduan auzoko batek utzi zion bigarren kuma.

Transkripzioa

- Eta kunak?
- Bai, kunak bai.
- Zelakoak zien?
- Kunak? Nik euki neben kunie oso elegantie zan. Bikotxak euki nebazen orduen. Euzokuek batek, hori Felipa Insuntza hor dauena, nire beheko baserrire ezkontute eon zan. Ta esan eusten, “ba bigarren kunaik ez ein erosi! Neuk jaukenat (txaukenat) libre bai ta neuk /erungonat/ erungo donat”. Etxien einddeko kunie harek. Ez nik erosikue neuken oso kuna politte, oso kuna politte. Ta ha be neken koltxoatxoaz etxeko laniaz einde koltxoie ta haidxe.
- Ze, egurrezkoa edo zelakoa zan?
- Bai. Egurrezkue einde, ohien morukue. Ohien estiloko bat zan izen be. Koltxa, kuma ederra zan.
- Ta ze mobidu eitten zien-edo?
- Bai. Hau, eitten eban.
- Semea: Ni be kuma horretan eon nitzen.
- Bai. Ta gehidxau be bai.
- Beratziek, pasa zin kuna bardiñetik?
- Beratzirek. Esan duana, bikotxak euki nebazan orduen, haretxaz beste bat, kuna bat hari. Bikoitxetako batek.
- Semea: Ta gero ze ein ziñun kuna harekin, ba?
- Ba, ez dakitt zer pasau zan.
- Semea: Zuk jakingo dozu.
- Ba iguel jakingo dot, baia. Ta klaro, nik hazi nittuen ta kunie barri-barri euen hondiño, ez euken apurtute ezebez. Ta nire albora gero ezkondu zan nebaik zaharrena. Ta haren lehengo auki aben alabientzako, emon notsen hari. Ta ha be hantxe hazi zan, hantxe kunan. Ta klaro, izekok esaten otsen horri: “Apolinar, etorri te ereiozu honexi kumioni. Eroiozu”. Ta hau olgetan ibiltten zan ta ernegeuaz juten zan, baiña ein ein biher, haidxen. Kumiai ereitten ta umie negarrez. Ta hasi zan kumie geruau gogorra, geruau gogorra. Ez dau umie kumapera bota, horrek! Bueltaka ta bueltaka hasi zan orduen ta umie kumapera. Ez jakon ezebe pasau. Ez jakon ezer. Hori akordun eukiko dau.
- Bueno pasetan dizen gauzak die.
- Bai, baiña gatzetxue ez zan izen! Ta hori ta gero gehidxau ez naban emakumie ikusi. Ez naban ikusi ha emakumie.

5.3. Lau urtetatik sukaldari

- **Hizlaria(k)**: Aldekoa Gorospe, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-005/004
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:07:03. **Bukatu**: 00:10:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Eskolara ezin izan zen joan, anaia gaixoa zaindu behar zuelako. Bere lehengusu batek ematen zituen eskola partikularrak hartu zituen. Amak etxeko eta baserriko lanak egiten zituen bitartean,

Mirenek lau urte zituela aitita zaintzen zuen. Babarrun edo patata lapikoak ere berak zaintzen zituen beheko sutan.

Transkripzioa

- Esan dozu eskolara askorik ez zinela joan baia...

- Zelan joango nintzen ba eskolara? Zaindu ein biher izeten naban-ta. Eskolara gutxi ta gero ibilli nitzen partikularra euki aban nire lehengusu batek, mutil batek ze eskolie emoten aban, ezta? holan partikularrak eta hantxe ibil nitzen apur baten.

- Lehengusue zan maisue?

- Bai, maisue ez zan izen, baia eskola handidxe eukezenak, ta emon. Hak be ez euken dirurik eta ba, apur bat irabaztiarren emoten eitten aban, ezta? Eta hantxe ikesi nebana harexek erakutsi esten niri. Ze eskolara, eskolara ezin juen. Eta harana ba juten nitzen ahal naban orduetan. Eta etxien emoten osten, beran etxien. Ahal nabanetan.

- Behintzet matematikak eta leidu eta..

- Bai, gauza handirik ez, gauza handirik ez.

- Bueno, baia biher dozunerako jakin dozu.

- Bai, neure pasixorako neure pasixorako. Baia gauza handirik eruteko ez, pasixorako ikesi giñun. Besterik ezebez.

- Eta ama ez zan izeten kapaz bakarrik geratuteko nebiegaz?

- Bakarrik zelan geratuko zan ba? Behitxo bi ta, behitxio bi, txahalak-eta, harexek hazi eta harexen diruaz bizi giñien-ta. Amak biher ien ta baserrixen amak biher ein, lau urtaz sinistuko dozu zuk, nik neuk lau urte nekezela aittitte zaintzen, geixue zaintzen, ipintten nindduen ni amak. Eta egon egin biher, beste erremedixorik ez neken-ta. Emoten dostezan umintzako trastiek olgetako eta aittitte zaintzen kuartuen. Ta askok preguntetan dostien: "eta zer eitten dotsezu ba zuk lau urtaz?" ta "ba amari diar ein". Aittittek esaten osten orduen zeozer biher deuela, ba juen solora, ama dauen lekura, ariñeketan, ta amari esam: "aittittek esan dau etorteko". Halantxe zaintzen neban nik aittitta. Lehenau babia jaten zan ta porru-patatak, lehena besterik ez egoan, babie ta porru-patatak. Ta amak ipintten dosten baba lapikue. Orduen behien sue be, txaparik-eta be ez, hango denporan, zu ez zenduzen ezetuko igual, baia.

- Galdaiegaz-eta diñozu?

- Galdaiak-eta bai, eta beheko sue, baba lapikue ipinten osten amak han egurrekin ipinitte, ta egurtxuek atzien be bai. Eta esaten osten: "ume, egurrek erreten hasten jakozan orduen, handik eta hemendik hor ipini barriro", lau urtaz e!, "hor ipini egosi daitten, ta saldie gastatan bajako, ure bota". Oingo lau urteko umieri esaiozu holako gauzak eitteko.

- Etxie be erre.

- Eta ein ein biher, edo gero jan barik egon biher. Ta ni hantxe, juen ta astiro-astiro ein eitten neutsen amari, baba lapikoa egosi ta akaso, egunen baten izengo zan txarto egostie be ta, hurrungo bueltan igual larrei egostie be bai. Erre be iguel. Erretan ez neutsen izten. Uregaz zaintzen naban ta botaten notsen. Ta gero patatak sartzeko esaten osten, honen erlojue igertzen be jakin ez. Ta hau erlojue txikidxe, honantxi erlojue, ezta? Ta "hau txikixe hamen dauen orduen eta haundixe hamen dauen orduen, patatak sartu". Igertzen jakin ez ta, txikixe hamen dauen orduen eta handixe hamen dauen orduen, patatak sartu lapikueri. Eta halantxik, halantxik bizimodue atara. Oingo moduen ez.

5.4. Basora ira ebakitzera

- **Hizlaria(k):** Aldekoa Gorospe, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-005/007
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:16:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Miren gaztetan bakar-bakarrik joaten zen basora ira ebakitzera. Ira behien azpitarako erabiltzen zuten, han sats bihurtu ostean soroan zabaltzeko.

Transkripzioa

- Lehenago, gazte-gaztetatik jueten nintzen ni basora ira ebaten be. Irie badakizu zer dan?
- Bai.
- Jakingo dozu. Ba ira ebaten, bakar-bakarrik. Bakarrik.
- Han inguruko basotara?
- Hombre, iguel etxetik ordubeteko bidien. Oingo moduko gauzaik ez eguen orduen, orduen trakil juten zan. Auzuek be jueten zien, auzu aldamenetara ta, trankillo.
- Ta ze joaten ziñen burdixegaz?
- Bai, burdixagaz /burdixaz/. Ordun burdixagaz. Oin badaoz traktorak eta gauza asko, baina ordun burdixagaz, behixekin ta bidiek be txarrak. Oin bidiek be onak dao. Ba bidiek be txarrak eta... hantxe, ahal dan moduen.
- Ta irie zelan batzen zendun?
- Eskoo... zeragaz, eskobilliegaz, zeragaz.
- Eskobariaz?
- Eskobariaz batzen giñun. Batu ta egin pilluen ta kargatu ta... Seirek arte bihar egin gizonak Izurtzan eta hara etorri ta, guk eruan hara burdixe ta han kargeu ta barriro etxera ta... ene!
- Ta irie zetako?
- E?
- Zetako ibiltten zenduen gero?
- Irie? [---] azpixe egiteko. Gabetan, gabetan edo lohie edukin orduen behixe azpixe egin biher jakien /bijakien/ haregaz lo egiteko.
- Kortarako.
- Kortarako. Haregaz gero basuen iminten zan satsa, solorako,
- Behien ganie zer zan ba, zan porlanezkoa edo?
- Oin bai, oin gero porlanezkue. Baia lehenengotan porlanik ez. Lurre. Lurre lehenau, gero guk ipini giñun porlana ezta? Ta gero porlana gitxiau biher ebazan /biherbezan/, ze txizek eta zerak korridu egiten aban bai, korridu egiten aban dana. Ba oin, gero, zementu bota geuntson eta gero hobetu, gero hobetu...
- Ta azpizek egiteko...
- Azpizek egiteko iria.
- Ta horregaz gero satsa esan dozu?
- Gero satsa [...] han bustitten zan... pillora bota ezta? Han pilluen egiten zan satsa. Satsa solorakue, solorako. Soluen gero... soluen zabaltzen zan.
- Bai zabaltzeo.
- Soluen bai, holantxi.
- Eta gero irie barik, geroko satsa zelan egiten zenduen?

- Gero ez giñun egiten satsik. Gero serriñe ta iñoz ekarri, gutxiau bihar izeten zan ha, ze idie bota ezker zementuen korridu egiten otsien ba, idiek. Ta zera bota ezker, pinurrixek eta bota ezker [...] geixau, hobeto, behixek aguantetan abien. Oin idie eurentzako hobiaue, beruaue negureko.

5.5. Behi bat bakarrik eta soroak lantzeko

- **Hizlaria(k):** Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** MAN-010/010
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:14:48. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Mañarira bueltatu zirenean, behi batekin, artoa ereiteko sasoia zen. Idi bat erosi zuten uztarria osotzeko. Gerraostean, Anastasio ez zen eskolara itzuli. Jende gutxik zekien erdaraz hitz egiten.

Transkripzioa

- Anastasio: Gero zer izengo zan ba? Arto ereitten-ta ein biher. Ta ganaurik ez. Behi bat euki giñun. Artu ereitten ta ahal dan moduen. Labrantza haundixek-eta. Hamen jente asko falta zan. Puf! gure idar-zakuek-eta! Idar-zakuek eta be, etxien. Dana, ezebez.

- Ganau bakarragaz, geratu ziñien?

- Anastasio: Bai. Gero erosi geiñun idi bat. Idixe buztertzeko, buzterrixe-ta. Hareaz gero ba. Ha be, kendu giñun gero. Baiña gero ba, gehixau ein biher erosi giñuzen behixek. Hiru- lau, beti gurien eoten zien-ta. Esnie saldu-ta. Honek, guapak dauz, ni baiño guapuau. Jesus, harek, harek, harek, harek.

- Ta gerraostie?

- Anastasio: Gerraostie? Gerraostie zer ixengo zan ba? Gu gaztik giñien-ta. Eskoli be itxitte. Eskolara be ez.

- Ez ziñen bueltau?

- Anastasio: Gehixau ez.

- Lourdes: Gero, gero gurien ibilli ikesi.

- Anastasio: Ta baitte hamene ezin ikesi eziñik gu. Erderaz, bien, bien, politto ibilli nitzen. Ta beste batzuk, ez erderaik ez, ez, ez, ez. Jesus! Oin, oin espabilaute dau jentie. Oin jentie, gaztik be, erderaz ikusten die asko, erderaz.

- Bai baiña lehen?

- Anastasio: Bai, lehen erderaz nok jakin?

- Zuen edadekoak bez, ezta?

- Lourdes: Guk useu, guk bai. Guk eskolan erderaz beti ikesten giñun-ta. Bai.

- Anastasio: Ba zuen maistrie be euskeldune zan.

- Lourdes: Bai baie erderaz, erderaz...

- Anastasio: Bueno, orduen denporan erderaz ein biher zan /bizan/.

- Lourdes: Bai, eskolan erderaz.

6. Euskara

6.1. Gerra aurretik erdara gutxi egiten zen

- **Hizlaria(k):** Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-010/012
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:21:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Erregearen argakia bai, baina gurutzea ez zuten kendu Anastasioren eskolan. Gerra aurretik, euskarazko irakurketa lehiaketa egon zen elizpean. Rosario Unzaluk irabazi omen zuen lehiaketa hori. Garai hartan, erdara zer zen ere ez zekiten baserrietan.

Transkripzioa

- Ta erretratue ta kurutzie be kenduko eben? Erretratu kendu eben ta kurutzie?
- Anastasio: Kurutziek beste etxe baten. Baia eon zan kurutzie be.
- Ta Errepublikara?
- Anastasio: Bai, klaro eon zana kurutzie. Bai eon zan.
- Ez eban kendu, ala?
- Anastasio: Ník, ez naban ikusi halakoik kentzen. Oin kentzen dabiez, oin elidxan be bai. Ta orduen, orduen, Jesukristo estimau eon zan. Ezba?
- Baiña Errepublikan, ez?
- Anastasio: Bai, Errepublikak zemat urte tardau eben, ba?
- Lourdes: Bi edo hiru bakarrik.
- Anastasio: "Treinta y uno al treinta y seis".
- Lourdes: A ba esaten abien gitxi.
- Anastasio: Bai, bai, lau-bost urte-edo, goidxe jota ya bost urte.
- Lourdes: Dana dala.
- Anastasio: Guri, iguel oskun: Errepublikie idxen nahi diabrue etorri bazan be. Guri erakusterik ez euen han nobera idxen biher apur bat. Irakurri ta leiduten, ez neu hemen nauelako, orduen ník, paseu eitten ostien maidxuek. Ta beste batzuk, zaharrauei, neu erakusten: a, b, ta a,e, i,o, u-ta erakusten. Joe!
- Lourdes: Zenbat jaki aban!
- Anastasio: Asko ez, baia horrek bai.
- Daniela: Ta euskeriaz ze paseu jatzun? Ha be esan eiozu ba euskeriantzako egon zani en esamiñie, hara presentaute, zer pasau jatzun?
- Anastasio: Ni, ez nitzen presentau!
- Daniela: Ez ziñen presentau?
- Anastasio: Ez.
- Daniela: Ze1an zan?
- Anastasio: E1izan, hor elizpien eon zan, entzun e!
- Daniela: Bai. Entzuten dau.
- Anastasio: Euskeraz. Ta ba esan eistien niri, ni jueteko, jueteko euskeraz irakurteko liburue. Ez eustien itxi. Etxekuek ala beste auzoko batzuk. Hori gerra aurretik zan. Gerra aurrekue, elidxan. Ta emon eutsien premidxue, Unzalu. Zelan euken izena?
- Lourdes: Rosa-edo.

- Anastasio: Rosale. Harí ha. Ta ni ez nitzen juen. Ta ni jun banitzen be, esan egiten eustien: “Hik, atarako eban premidxue ba!” Euskeraz be ikesteko. Hemengo euskerie, samurre da. Hau ‘Anboto’raiño, leiduten dozu ‘Anboto’?

- Daniela: ‘Anboto’ periodikue.

- Anastasio: Ez? Hori euskeríe, [...] aittuko xon. “¡La madre de cordero!”

- Batua?

- Lourdes: Ikesi ein biher, astiro-astiro ba.

- Anastasio: Oin, askok daki-ta. Baia harek, gu denporan ibili giñienin aittek ta harek, ez erderaik ta ez Kristoik, ez ekidxen. Ta oingo haren umiek, haren seme-alabak, erderaz ikusten die. Erderaz. Ta etxekidxen lehen ezer. Arruetako jentiek-eta nungo, nungo gau-eskoleta-ta! Euskeraz, erdara zer dan bez.

- Lourdes: [...] gobernadorie eon zan gero. Kontuz!

- Anastasio: Urkuletan kobradorie. Ta titulo bakue.

7. Herria, azpiegitura

7.1. Bizikleta Durangon ostu zioten Anastasiori

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-010/025
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:47:22. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Enkante batean erosi zioten Anastasiori lehen bizikleta. Bizikleta hori Durangon ostu egin zioten, eta lapurrak Eibarren saldu zuen.

Transkripzioa

- Ta bizikletie?

- Anastasio: Bai. Nik bai eukin naban.

- Daniela: Ai, horretan gogorra izen da hori, mekauden!

- Lourdes: Nik neuk hamazortzi urtera arte bapez ta.

- Anastasio: Dirue, diruik ez.

- Lourdes: Kontuz! Kontuz! Ezin ibili!

- Anastasio: Ba horko baserriko Larrako bat, Larra esaten otsien baserri bat. Bi dauz, Larrak bi: Larra Arrueta y Larra Kapaneta. Ta horko gizonezko bat, horrek orduen hargin, hargiñek, ta ibili zien Burgos aldien. Burgos aldien ibili zien. Ta han hil zan. Orduen, barriz, euen rekete. Horrek reketiek ez zien izen sekule, baia, hil zan. Gero, subastara [...]. Ta berrogei ogerleko. Ta bastante zan. Ta etxien erosi ein ostien /eistien/. Ta dirue nun?

- Daniela: Euki abien.

- Anastasio: Euki abien... euki ez dakit, ba, baten bati eskatu ez baotsien /botsien/? Ez dakit.

- Lourdes: Bai, zure bizikletie erostiaaittik!

- Anastasio: Berrogei ogerleko. Gero ha be ostu! Durangon ostu. Ta topeu geiñun. Harek ostu abanak Eibarren saldu.

- Daniela: Mekatxis la patria.

- Anastasio: Bai, Eibarren. Ta nor zan ez dakizue? Ez dakizu [...ra] etorri zien, ba, harek e... Oin izenik be ez jata /etxata/ akordauko.

- Lourdes: Markiñakuk, "Giputxe" esaten otsienan baia...

- Daniela: A, bai. Bai, bai.

- Anastasio: Neure edadekue zan.

- Lourdes: [... behera] jausi zana?

- Daniela: Bai, bai, bai. Beittu...

- Anastasio: Neure edadekue zan, ha. Hor biherra eitten aban.

- Daniela: Bai, ta [karreteran] jausitte hil zan.

- Anastasio: Ta bixikletie, barriz... nun hartu juan harek? Arkarazon, zerien barruen. Dendan. Ta ostu eban beste bat zerena... ha medikue famosue zan, ba, Durangon? Kurutziagan entradan ezkerretik egon zan.

- Lourdes: Don Klaudio?

- Anastasio: Ez, ez, beste ixen bat euken harek. Hari be bixikletie ostu. Zazpi-zortzi bizikleta-edo. Harrapau abien. Ta ni juen ta "hauxe da bixikletie". Ta erueten [...] "Ez" esan ostien [...] "eso no puedes llevar. Tienes que traer otro". Beste bat ekarri biher.

- Daniela: Beste bizikleta bat?

- Anastasio: Hemendik. Hemen egon zan bat hartu, ta gero noberantzat. Honantza gero bizikletan Eibartik Mañerira arte.

- Daniela: Kauen la pristi!

- Anastasio: Kauen la pristi? Ba ez dakizu orduen... Ene, ene, ene. Oin lapur gehidxa dau, ezta? Baia orduen be bai.

- Daniela: Oin bizikletaik iñok gure be ez.

- Anastasio: Oin motorrak nehiko izen die.

7.2. Daniela bizikletan gaiztoa omen zen

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-010/026
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:50:00. **Bukatu**: 00:53:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Daniela bizikletan asko ibilitakoa da. Urkiolatik jaistekorakoan freno gutxi izaten zuenez adar bat lotzen zioten atzetik bizikletari, arrastaka eraman zezan. Durangora ere joaten ziren bizikletaz. Lourdes, berriz, bizikletarekin ahizpa baino beldurtiagoa zen.

Transkripzioa

- Ta zuk esan dozu bizikletiena. ..

- Daniela: Ni bizikletan gogorra ixen naz. Bueno, horri ekarri eutsien, ta ba, neuk. "Ta bixer be, patatie ekarten jun biher don /bidon/, Txomin Letei astuaz". Mekasuen-diez! esan neban. Hori gixonoi, honuntz datorrenien, bizikletiegaz jo ta bota. Ta holan patata zetan ekarri ez. Badator hau tripa haundi bategaz, honantza. Jo ta pozure. Ta ni neu sekule ez nitzen jausi bizikletatik. Sekule bez. Bueno, baia patatatan jun ein bihar, idxeko Felidxak-eta urten abien, ta altzau ebien ta [gaztakun] batzuk emon

eustiezan /emostiezan/ eta bueno ba, Txomin bota nahi jonan. ’

- Anastasio: Txomin Lete?

- Daniela: Bai. Ez eban errementau e! Gero...

- Anastasio: Honako gizona!

- Daniela: Han ibiltten nitzen ba, horrek manieu artien eberdixetan, bidxikleti ixten osten ta. Beste baten, hor ermittapien ba, eurixek eitten deu, hor pozu haundixok. Jittana bat ume bataz etorren. Esan nabau nik: "Jo hori be ta horra pozure bota bijuat". Jo ta bota dot. Ta pentsau nabau iñok ez dostela ikusi. Ni neu eurrera sekule ez nintzen jausten. Ta hango Karmen [...] bizi da oin be. Hak ikusi ta amari esan. Jittaniei esan. Mekauen [...] paliza bat! Esan nabau: "Bueno, hurrengo harrapetan badot be!" Baia ez nabau sekule harrapau Karmen e! Bizikletatan asko ibiltten giñen. Igoten giñun Urkiola, nire lagunek, Blankitak eta bixok, Urkiola igon baia beherantz frenuek gitxitxo. Eta atzien, erramie lotute. "Echando demonios" etorten giñen, oin etorri hadi erramie lotute! Ta bagoaz Durangora, ta ba, mutxillakin, ta jente asko basotik. Ta esan nabau [...], ez zien baztertzen ta: "Zuek geldittu zaittie, neuk botako junat horra beheko solora bat, eta paseuko gozak". Ta efetibamente, jo ta gizona beheko solora. Ensegida libreu oskun kamiñue. Zer ixen dan bez! Ni bizikletan? baia sekule, sekule, neu barrez, ez naz jausi. Ta neuk pentseu dodana, bota danak. Karmen ez nabau harrapau ez abalako urte kamiñora. Bestela hartu biher eusten / bieusten/. Baia, [...] sekule topau kamiñuen ta. Bestelan....

- Lourdes: billurrez, billurrez, enee!

- Daniela: Ni. ez.

- Lourdes: Desmonteu. Hamazortzi urtegaz be ez nabau ikesi, ta billur bat, bizikletan ganiñen juteko. Pentsetan jonau nun ete noien. Bueno! ta desmonte beherantza, oiñez. Ta gorantza, indderra nik itten nittun tzi-tza, tzi-tza, aldatza dana. Ta Durangon be, kalien oiñez; bizikletie eskuen ta ze lagune jo biher, billurraz.

- Daniela: Ez [...] hildde eongo dan Santa Anako sakristaua, bizikletan, gu eskolara, ta kantoiren batetik beti: "Ohhh, ohhh!" Esaten nabau: "De dios! egunen baten ba!". Jo, bota emon neuntsan dana markaute [...] ontxe kontuok! Sekule gehixao ez oskun han urten. Baia, neu sekule ez naz jausi. Baia bizikletan, okerra izen naz. Baia, ez nabau pisetzen zer? berrogei killo?. Iguel, berrogei killo bez. Ze, ezkondu nintzenien, berrogeta bost baiño ez nabau eukin ta. Oin, lodittu naz. Aspaldiko urteokin.

- Lourdes: Hamabi urtegaz-ta, ezebez; neskato zorri-zorri bat.

- Daniela: Bizirik, justuen.

8. Aisia

8.1. Orduko egunkariak

- **Hizlaria(k)**: Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: MAN-010/028
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:53:40. **Bukatu**: 00:55:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Irakurtzea
Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

- **Laburpena:** EAJren Euzkadi egunkaria igandero jasotzen zuten Anastasioren etxean. La Gaceta del Norte eta El Correo Español ere irakurtzen zituzten. El Caso ere gogoratzen dute. Anastasio Durangoko Santa Anako 11:30eko mezara joaten zen igandetan bizikletaz, eta egunkariak hartu eta gero itzultzen zen etxera.

Transkripzioa

- Ta lehen, periodikue leiduten zenduen, gaztetan?
- Anastasio: Bai.
- Daniela: Honen etxien, beti.
- Ze, periodiko egoten zan?
- Anastasio: E, zelan esango dotsut ba
- Daniela: Gazetie-ta. ..
- Anastasio: Euzkadi.
- Lourdes: Ariñakuek be. ..
- Euzkadi?
- Anastasio: Zelan zan ba, Euzkadi ez zan ba? Gurien hartzen giñune? domeketan bakarrik, e? Igande, domeka. Oin zer dau ba? Oin e...
- Daniela: Gero, Gazetie urten askuen.
- Bueno, Gazetie be bai. Gazetiek be, urten askuen.
- Lourdes: Ta oin, Correue, Deia edo bestie. Ba oin gure aiñe.
- Anastasio: Oin, Correua. Baia Correua, "Correo Español".
- "Correo Español" da, bai.
- Anastasio: "Correo Español", baia "Español" danak ez dau ipintten izen.
- Horrek bai. Horrek jartzen dau: "Correo Español del Pueblo Vasco".
- Anastasio: Ipintten dau'?
- Bai baiña "Español" jartzen dau tituloan.
- Anastasio: "El Correo Español", kenduko dabe hori?
- Bai baia azkenien, "Español" hori... Beran markie da. Periodikuen markie da.
- Anastasio: Bai ba, periodikuen markie da hori, "Correo Español".
- Euzkadi leiduten zenduen orduen?
- Anastasio: Bai. Pozik, haxe leiduteko. Orduen nok leiduten eban periodikue ba?
- Daniela: "El Caso" be ekarten ziñun.
- Anastasio: "El Caso". Domeketan.
- Lourdes: Oin danien ikusten dan modun, ordun bapez. Ta ha zera, periodiku osue.
- Daniela: Biziklitiaz Durangora periodukuten. Jueten ziñien domeketan.
- Anastasio: Jueten nintzen, lelengo mezie.
- Daniela: Ah, bueno, hori be, [...]
- Anastasio: Lelengue, lelengo mezara. Hamaika eta erdietan Santa Anara. Han, juntaten giñen lagun batzuk.
- Daniela: Hori, te periodikuten bizikletan.
- Anastasio: Gero periodikue han erosi.
- Lourdes: Gero lagunen batzuk be ekarri.
- Anastasio: Baitte, hori be bai. Ta...
- Ta hamaika terdietako mezara. berandu?
- Anastasio: Hamaika terdietan egoten zan Santa Anan.
- Baiña mezetara ez zan juen biher izeten baraurik, ala?
- Daniela: Bai, komulgetan jun ezkeru, bai. Bestelan ez.
- Lourdes: Komulgetan Pazkuetan-ta holan. Zer? beti pentseten dozu, ala?
- Daniela: Oin elixara juen ta ikusi deiziezan.
- Anastasio: Oin juten zarie, ezba?
- Lourdes: Ni neu ez. Aspaldidixen ez.

8.2. Aratoste eta Txitxi-burruntzi

- **Hizlaria(k):** Bernaola Agirre, Daniela; Bernaola Agirre, Lourdes; Urizar Belakortu, Anastasio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MAN-010/030
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:57:35. **Bukatu:** 01:00:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena:** Aratoste sasoiaren txerrien hankak eta belarriak jaten ziren. Baita tostada ederrak ere. Tostada egunari 'aratoste' esaten zioten. Inauteri igandean Txitxi-burruntzia egiten zuten Mañerian; Arratian, berriz, 'Kanpo Martxo' esaten diote horri. Eurak gazteak zirenean, ospakizun handia egiten zen igande horretan. Eguraldi txarra egiten bazuen ere, kanpoan ospatzen zuten beti. Lehen dena bekatu zen, eta orain konfesatokirik ere ez dago.

Transkripzioa

- Lourdes: Oin ba, Karnabalak-eta oin barrixek. Karnabalak eta elizakuek.
- Daniela: Ba, hor etorri zonan telebisiñuen, abadie karnabal jantzitze.
- Ta lehen Karnabalak eitten zien Mañeridxen?
- Daniela: Zer dan jakin bai, ala?
- Lourdes: Bai, zeozer. Tostadak eta txarri-hankak-eta.
- Anastasio: Errosek esango ebazan ta: "Karnabalak dire-ta".
- Lourdes: Txarri-hankak ta belarriak txarriak, amak albardauko zittuzen, ta guretzako nahiko Karnabal.
- Daniela: Karnabal [...].
- Lourdes: Ta tostadak gurin zelako tostadak! Ez ogizkuek eta horrek zapalok.
- Tostada eguneri zelan esaten otsezue zuek?
- Lourdes: Aratostiek.
- Anastasio: Aratostea.
- Daniela: Ta honek euskeraz [...]
- Lourdes: Aratostea esaten jakie.
- Ta aurreko domekako eguneri?
- Lourdes: Ba Karnabal domekie.
- Txitxiburduntzi edo ez?
- Lourdes: Hori ariñakue.
- Anastasio: Txitxiburduntzi, Basokoipetsu, Kanpomartxo. Bakizuz horrek?
- Lourdes: Ta gero martitzena dau...
- Anastasio: Hemengue Txitxiburduntzi edo Basokoipetsu. Ta hor Arratien Kanpomartxo. Kanpomartxo, e!
- Hemen be eitten zan zuen gazte denporan orduen?
- Lourdes: Oin be bai beti.
- Anastasio: Enee, tokidexk harrapau zeñek!
- Lourdes: Ta jeneralmente aterri eon ezkeru, denpora txarra eoten bazan be kanpuen. Pentsau bez etxe barruen-ta eittie. Surik ein eziñik-ta ahal dan moduen egurre bustitte-ta, baia zeozelan.
- Zozelan jan, ta gero, "tripas corazón" ein ta /ein dde/ etxera.
- Ta ze jaten zenduen Txitxiburduntzi egunien?

- Daniela: Ba, txorizue ta urdeixe. Ta on e...
- Taloagaz-edo?
- Daniela: Ez, ogixaz.
- Anastasio: Talorik ez, e!
- Daniela: Txorizue ta solomue ta...
- Anastasio: Gure aiñe talue jate giñun.
- Lourdes: Bai, ta naranja haundi batzuk erosi ta aproposa halakoxe haundi bana, ba postrie. Ta ardau tragotxoren bat eitten bazan edo ure, ba kitto.
- Anastasio: Gero erromeridxe, jantza.
- Lourdes: Hombre, hori zetan bez...
- Klaro, Garizuma aurreko azkenetarikoak?
- Anastasio: Klaro.
- Lourdes: Ezpabere inpernuko lebatza edo zelan zan inpernuko eskue edo, esaten zana ta? Agarraue ein ezin ta pekatu ta... Oin zer don ba pekatu?
- Anastasio: Oin ahiztute dekoaz danak.
- Lourdes: Oin, konfesonaridxoik bez.
- Daniela: Harek kendu jabien, pekatuik ez dauelako.
- Anastasio: Konfesonaridxuek eongo die.
- Lourdes: Baten bat igul nunun.
- Daniela: Mañaridxen be han dauz elixan, baia atzekaldin, trasteruen, zozeaz beteta. Ba zemat denbora da, urte bi? Keba, urte bi ez die Logroñora eskursiñue euki giñune. Ta bodie. Ta haixe elizie ikusten jun bihar zala /bizala/; ze, ez dakit zelako elizie dauela ta jun giñien. Ta konfesetan jentie. Ai, la marka! Danok alkarri diarrez: "Ikusten? Konfesetan dauz".
- Anastasio: Oin iñor ikusi bez.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Lamien inguruko ipuina (MAN-001/001)

Lamien inguruko ipuina. Durango inguruko koba baten lamiak bizi ziren eta gauez irteten ziren. Errekara joan eta orrazten egoten ziren. Inguruetako baserritarrak haserre zeuden, ez zietelako uzten lorik egiten. Behin baserritar batek orrazi bat aurkitu zuen eta beretzat hartu. Gauean etxera joan zitzaizkion lamiak.

2. Karobien inguruko azalpenak (MAN-001/003)

Karobien inguruko azalpenak. Batzuetan karobia eginda egoten zen, baina beste batzuetan norberak prestatu behar lekua. Harria eta otea erabiltzen ziren. Bobeda egin behar izaten zitzaion, eta harriak bat bestearen gainen jarri. Gero bueltan otea. Erretzen zen bitartean, batzuetan familiak hantxe egon behar izaten ziren, hura zaintzen. Familia horietako baten inguruko pasadizoa. Astebete inguru behar izaten zuen erretzen karobiak. Askotan bi etxeren edo gehiagoren artean egiten zen. Kare hura zertarako erabiltzen zen.

3. Oñatiko pregoilariaren pasadizoa (MAN-001/004)

Oñatin aspaldi gertatutako pasadizoa. Pregoia botatzen zen, herriak zerbait jakitea nahi zenean. Alkateak mezu bat eman zion pregoilariari. Honek herriaren aurrean nola azaldu zuen.

4. Koban ezkutatutako gizonak jipoitu, desagerrarazi... (MAN-003/001)

Gerra garaian, eguna argitu orduko Urkuluosteko kobara joaten ziren amagaz ezkutatzera. Soldaduak bertara hurreratu eta gizonak ikusiz gero, handik irteteko esaten zieten. Beraiek hiru gizon ikusi zituzten irteten: bat libre utzi zuten; beste bat poltsikoan zituen bala-kartutxoak kenduz jipoitu egin zuten; eta, hirugarrena, Francisco Arroitaonandia, beraiekin eroan zuten eta sekula ez zuten bere berririk izan.

5. Maiatzaren 22a, Mañaria okupatu zuten eguna (MAN-003/002)

Gerran, eguna argitu orduko Urkuluosteko kobara joaten ziren ezkutatzera. Soldaduek etxea utzi behar zutelara esan arren, amama itsuagaz ezin ziren inora joan. Behin, tiroketa entzun eta tankeak ikusi zituzten: Mañaria hartzera zetozen. Maiatzaren 22a izan zen. Urte askoan egun hori ospakizun eguna izan zen. Handik, frontea Arratia aldera joan zen.

6. Otxandioko hildakoak Mañariko kanposantura (MAN-003/003)

Otxandioko bonbardaketaren ostean, hango hildako asko Mañariako kanposantura ekarri zituzten.

7. Isunak eta kartzelaratzak ohikoak ziren (MAN-003/005)

Mañariar bat frontean desagertu zen. Herritarrak kartzelaratzak eta isunak jartzea ohikoa da. Bere amari 50 pezetako isuna jarri zien.

8. Izeko Emakume Abertzale Batzako mitinlaria (MAN-003/006)

Bere izeko bat ume eta guzti sartu zuten Larrinagako kartzelara eta osaba Karmelora. Bere izeko hori, Salome, Emakume Abertzale Batzako kidea zen, mitinlaria.

9. Botoa ugazabak gura zuenari eman behar (MAN-003/007)

Askok etxeko ugazabaren aldera bota behar izaten zuten hauteskundeetan botoa; ondorioz, gatazka eta haserre asko sortzen ziren. Bere aitaita-eta etxetik bota zituzten ugazabak gura zuenari botoa ez ematearren.

10. Alkatearen erruz emakume asko preso (MAN-003/008)

Rufino Zugazagoitiaren erruz, Francoren aldeko alkatea zenaren erruz, Mañariko andre asko hartu zituzten preso. Kartzelara eroan ez zituzten askori isunak ezarri zizkieten, Luziaren amari tartean.

11. Mitinak batzokiko balkoitik (MAN-003/010)

Batzokia udaletxe ondoko etxean zegoen eta bertan egiten ziren mitinak. Bere izekoa mitinlaria zen, berezko abilidadea ei zuen.

12. Soldaduei arropak josi behar (MAN-003/012)

Etxea soldaduz beteta izan arren, etxe aurrean beste aldekoiei arropak josi behar izaten zizkieten beldurraren beldurrez. Behin, koban ezkutatuta zeudela, handik atera eta praka batzuk josi behar izan zizkion miliziano bati; estutasunak eraginda, txarto josi zizkion eta haserretu egin zitzaion.

13. Gerra garaian ezin lurra landu (MAN-003/013)

Gerra sasoian, ezin zuten ortua landu, baina bazuten zer edo zer: patata, artoa... Errotara goizean goizetik edo gauean joan behar izaten zuten. Egunez, erasotuak izateko arriskua izaten zuten.

14. Aita behiekin joan zen ihesi (MAN-003/015)

Bere aitak behi bi hartuta egin zuen alde Bilbora Gerra Zibilean. Aita apirila bukaeran edo maiatz hasieran joan zen etxetik eta San Juanetan bueltatu zen. Beraiek bitartean esne barik egon ziren.

15. Morokila zelan egin (MAN-003/016)

Gerran, behiak falta zirenez, hautsarekin egindako esnea zuten. Irinarekin ogia egin beharrean, taloa eta morokila egiten zuten. Luziari morokila asko gustatzen zaio; zelan egiten zuten azaltzen du. Ogia baserriko labean egiten zuten, baina gerran ez zuten horretarako irin nahikorik.

16. Durangoko Imaz errotara jeneroa eroan behar (MAN-003/018)

Baserrian hartzen zuten jeneroa (garia, artoa...) Durangora entregatu behar izaten zuten, bertako Imaz errotara (gaur egun Ibaizabal ikastola dagoen tokira).

17. Hamarrenak: urtean 18 pezeta elizarako (MAN-003/019)

Hamarrenak zer diren: elizan ordaindu beharrekoa, urtean 18 pezetako kuota. Behin, bere ama konfesatzera joan zenean, abadeak esan zion oraindik ordaintzeke zuela. Senarrak harrobian ez zuela oraindik jorna kobratu erantzun eta hamarrenak ordaindu arte ez ziola absoluziorik emango esan zion.

18. Ganadu zein pertsoneri txertoak jartzen (MAN-003/020)

Gerraostean medikuari zenbateko bat ordaintzen zitzaion. Behar zenuenean etxera joaten zen, baserrira ere berdin-berdin. Gero, Luziak ikasi zituen txertoak jartzen; ordudanik, auzoan bera aritu zen behar horretan, pertsona zein ganaduekin.

19. Postari eta neskame (MAN-003/022)

Hamahiru urtegaz Mañariko taberna batera joan zen neskame. Postari lanetan ere ibili zen bertakoek baitzuten horren ardura. Goizetan hartzen zituen gutunak eta etxerik etxe joaten zen.

20. Behorra orroka eta saltoka ezin kontrolatu (MAN-003/023)

Neskame egon zen kalean zegoen taberna batean. Tabernakoek bazuten behor bat eta Urkuletatik zehar basora eroaten zuen goizean iluntzera arte. Ugazaba Durangora joaten zen jenero bila eta gurdia behorrekarekin maneiatzen irakatsi zion Luziari, gero bera joan zedin errekaduak egitera. Behin behorri akuluarekin eragin zioetan eta orroka eta saltoka hasi zen. Gainean zeramatzan limonaden botilak zabaldu eta iskanbila itzela sortu zen.

21. Estraperloa zelan sartu herrira (MAN-003/025)

Estraperlo garaia oso gogorra zen. Izurtzatik Mañarira joateko, Izurtzako sarreran zegoen kontrola. Kontrol hori ez pasatzeko, nondik nora joaten ziren azaltzen du. Gabon batzuetan bazuten ardoa, baina ez ogirik; beste behin, ogia bai, baina ez ardorik. Durangon alondegia zuten eta handik ekartzen zuten ardoa. Andreek ez zuten ardorik edaten. Gabonetan ardo-zopak hartzen zituzten gizonezkoek.

22. Neskame jornal barik (MAN-003/026)

Tabernan neskame zegoela ez ei zuen txakur txikirik kobratzen. Arropa eta jateko truke egiten zuen behar. Denetarik lanak egiten zituen: barra atzean, ezkaratzean...

23. Tabernara ezkutuan sartzen zen andrea (MAN-003/027)

Giro ona zegoen tabernan, baina andrazkorik ez zen ia sartzen. Domekero andre bera joaten zen tabernara ezkutuan eta Luziak zerbitzatzea gura izaten zuen.

24. Tabernan ardo beltza edaten zen (MAN-003/028)

Tabernan neskame zegoela, ardoa zahagian izaten zuten. Zahagitik pitxarretara pasatzen zuten zerbitzatzeko. Ardo beltza edaten zen gehien. Ardo gorria ez zen edaten. Sagardoa eta txakolina baserrietan egiten zen, baina tabernetan ez zen edaten. Pedro Baltzen tabernatik Durangora joan zen neskame eta handik Herriko tabernara joan zen eta handik ezkondu zen 21 urte zituela.

25. Mañariatik Durangora oiloa bizikletaz (MAN-003/030)

Durangoko etxe partikular batean egon zen neskame gaztetan. Beraiek Mañarian hazitako oiloa eroan zituen behin Luziak bertara, bizirik eramatea nahi zuten. Oiloari hankak lotu eta kapazuan eroan zuen. Herriko mutiko batek ikusi eta beragaz batera bizikletan joateko esan zion; horrela joan zen Durangoraino. Berak lumatu behar izan zuen oiloa; ebaki bat egin zuen eta ordudanik hor du haren marka.

26. Baserriko bizimodua asko aldatu da (MAN-005/008)

Baserriko bizimodua asko aldatu da Mirenen gazte denboratik. Orduko jatorduak aipatzen ditu.

27. Eibarrera Mañariko gereziak saltzera (MAN-005/009)

Eibarko plazara joaten zen Mañariko gereziak saltzera. Esnedunaren kamioian joaten zen Eibarrera. Gogoan du behin Eibartik 600 pezeta ekarri zizkiola amari, eta zelako poza hartu zuen honek.

28. Beharrezko gauzetarako dirurik ez (MAN-005/010)

Arropa berriak, olioak eta holakoak erosteko dirua lortzea ez zen erraza izaten. Urte guztirako lain gari ez zuten etxean hartzen, eta erosi egin behar izaten zuten.

29. Untxia edo oilaskoa igandetean bakarrik (MAN-005/011)

Esnea nahiko izaten zuten etxean, saltzeko sobra handirik gabe. Igandetean edo untxiren bat edo okela jaten zuten. Hazten zituzten oilaskoak etxean jateko izaten ziren. Emakume arrain-saltzaile bat joaten zen baserrietara arraina buruan zeramala. Janariak lortzeko ez zuten trukerik egiten.

30. Amak labesua egiten zuen (MAN-005/012)

Taltoa, artoa eta morokila egiten zituzten. Mañdariko errotan ehotzen zuten alea. Bera joaten zen astoarekin errotara. Amak labesua egiten zuen etxean. Ogia nola egiten zuen azaltzen du, eta labearen ondoan opilen zain nola egoten zen ere bai.

31. Gozoak, turroia eta txokolatea (MAN-005/013)

Oinetako kutxa bat molde bezala erabilia, amak Gabonetan pastela egiten zuen labesuan. Noizbait turroia ere ekarri omen zuen amak. Txokolatea gutxitan jaten zuen.

32. Gabon eguneko bazkaria (MAN-005/014)

Gabon egunean, azalorea eta bisigua jaten zuten beti. Osaba mutilzaharra eta amama ere bazkaltzera etortzen ziren. Postrea pastela, intxaur-saltsa edo sagar-konpota izaten zen. Izekok prestatutako barraskiloak jaten zituen Mirenek. Etxeko patinetik esku-bonbaz ura ateratzen zuten.

33. Arropa garbitzera errekarara (MAN-005/015)

Arropa zikinen baldea buruan jarrita urrutira joan behar izaten zuen garbitzera. Izarak asto gainean eramaten zituen. Etxean eskuz garbitu eta astintzera errekarara eramaten zituen. "Chimbo" xaboa zen garbitzeko onena. Lixiba ontzian sutako hautsa eta ereinotzarekin lixiba egiten ezagutu zuen umetan. Kirruzko izara gogorak ere gogoratzen ditu.

34. Ereinotza arropei usain ona emateko (MAN-005/016)

Izarek usain ona emateko, lixiban ereinotza erabiltzen zuten. Umeen arropei usain ona emateko ere erabiltzen zen ereinotza. Arropak garbitu eta gero eseki egiten ziren lehortzeko. Euria bazen ganbaran esekitzen zituzten. Oheko arropak ez, baina alkandorak eta lisatzen ziren. Ikatz txingarrarekin edo txapa gainean berotutako plantxekin lisatzen zuten arropa.

35. Argindarra eta ura etxean (MAN-005/017)

Argindarra Miren jaio zen urtean jarri zuten etxean. Ordura arte kandela edo karburoarekin konpontzen ziren. Ezkondu eta gero jarri zuten Iberduerorena. Etxe barruan ura ere ezkondu eta gero jarri zuten. Urarena oso aurrerapen handizat jotzen du Mirenek.

36. Etxeko garbiketak (MAN-005/018)

Etxeko zoruak erratzez garbitzen ziren, eta oholezkoak belauniko trapuarekin. "Itxuskixe" (Mañarian), "eskobie" edo "iñarrie" (Arratian), erratzaren izenak Bizkaian.

37. Komuna etxetik kanpo; garbitzera errekarra (MAN-005/019)

Gazte-gaztetan egin zuen laian lehen aldiz Mirenek. Lau lagun ilaran jarrita jarduten zuten laian. Geroago golde txiki bat erosi zuten. Gaztetan, komuna etxetik kanpo zegoen. Eguraldi txarrarekin kortan egiten ziren komuneko lanak. Norbera garbitzeko errekarra joaten zen, xaboia eta eskuoihala hartuta.

38. Hilerokoaren berri lagunengandik jaso (MAN-005/020)

Hilerokoarentzako trapu batzuk izaten zituzten, lixibatan garbitzen zirenak eta hurrengo hilerako gorde. Hilerokoaren berri ez zion amak eman. Lagun zaharragoengandik jakin zuen horren berri. Hilerokoa etorri zitzaionean, amari esateko beldurrez egon zen.

39. Hilerokoaren minentzat adreilu beroa jarri (MAN-005/021)

Hileroko minkorrak izaten zituen. Adreilu beroa jarrita lasaitzen zitzaion mina.

40. Hilerokoarekin txorizorik ezin egin (MAN-005/022)

Hilerokoarekin zeudenean txorizoak eginez gero, txarrak irteten zuten. Eskularruak janzten zituzten halako kasuetan. Txorizoak eta odolkiak egitea oso gustuko zuen Mirenek.

41. Odolkiak nola egiten zituen (MAN-005/023)

Odolkien osagaiak zeintzuk ziren eta odolkiok egiteko era azaltzen du. Txorizoak betetzeko makina aurrerapen handia izan zen. Odolkiak arin 'urdintzen' (hondatzen) omen dira.

42. Goldea, area eta markoa; ganadu-jatekoak (MAN-005/024)

Soroan goldearen ondoren area pasatzen zen, lurra ereintzarako prestatzeko. Gero markoa pasatzen zen, hazia ereiteko lerroak markatzeko. Soroko lanak bukatu eta ganaduak gobernatu behar ziren, segaz edo igitaiz belarra ebakiaz. Ganaduak errebelarra ez zuen jaten. Arbia, erremolatxa edo kuia zatituta ere jaten zuen ganaduak.

43. Gerezi sasoiko lanak (MAN-005/026)

Gereziak denbora gutxian heltzen dira denak, eta azkar ibili behar ziren batu eta saltzeko arrak hondatu baino lehenago. Txoriek gerezi asko jaten zituzten. Orduan ez zituzten gereziak inauten, eta zuhaitz handiak egiten ziren.

44. Ilargiaren eragina (MAN-005/027)

Txerria hil eta txorizo eta odolkiak egitea ilbeheran egin beharreko lanak dira. Ilea ebakitzea ere ilbeheran egitea hobea omen da. Ilberrian ebakiz gero, katarroa harrapatzeko arrisku gehiago omen dago.

45. Aita idiekin garraio lanetan (MAN-007/002)

Aita idiekin aritzen zen beharrean zerrarako egurra garraiatzen. Mañarian eta Axpe-Arrazola aldean ere asko ibilitakoa zen. Idiak aitarenak ziren. Ardoa asko gustatzen zitzaion horietako idi bati. Baserriko lanetarako ere erabiltzen zituen idiok, beraien etxean zein besteen etxeetan ere. Uztargilea pare bat egunez egoten zen etxean, lotarako lekua prestatzen zitzaion eta bertan egoten zen uztarria egin bitartean.

46. Umetako garai gogorra eta gaztetako erromeriak (MAN-007/003)

Ez zuten ume garai oso ona izan. Eskolan euskaraz egitea galarazita zegoen eta maisuak beti izaten zuen palua prest. Domeketan erromeria izaten zuten herrian eta gaztetan bertara joaten ziren hutsik egin barik. Inguruko herrietatik ere jende asko hurreratzen zen, baina beti ez ziren ondo etorriak izaten.

47. Albo herrietakoei harrika (MAN-007/005)

Inguruko herrietatik ere jende asko hurreratzen zen Mañariko erromeriara, baina beti ez ziren ondo etorriak izaten. Behin, mañariar batzuek beste batzuei harrobitik bidera harriak bota zizkienekoa kontatzen du.

48. Guardia Zibilari harrika (MAN-007/006)

Mañariarrek askotan inguruko herrietakoei harrera harrika egiten zietela ezaguna da inguruetan, Guardia Zibilak ere horrelako harrera izaten zuen. Bide-bazterretik tiroka aritu arren, harrobian ezkutatuta zeudenei ezin zien harrapatu. Behin, horrelako pasadizo baten ondorioz, tabernara joan eta bertan zeudenak atxilotu zituzten.

49. Basora ira bila (MAN-007/008)

Erromeriara baserriko beharrak egin eta gero joaten ziren. Gainera, normalean, domeketan ez zen beharrik egiten eta erromeria domeketan izaten zen. Askotan basora iratan joan eta hamabostean etxera etorri barik egoten ziren. Ganaduari azpira botatzeko erabiltzen zuten ira, pekorotz artera bota eta satsa egiteko. Satsa solorako ongarria da.

50. Lurra lantzeko tresnak (MAN-007/009)

Soloa goldatu ostean, beste erreminta batzuk pasatu behar izaten ziren: goldea, area, triki taka, narra... Tresnak zertarako ziren azaltzen du. Behar guzti hauek idiekin egiten zituzten.

51. Gerran koban eta sasiartean ezkutatu behar (MAN-007/016)

Gerra Zibilean, koba batean ezkutatzen ziren abioien beldur eta bertatik ikusten zituzten erasoak. Arbolapea eta sasiartea leku ona zen ezkutatzeko; etxea, ostera, ez zen leku segurua. Durango bonbardatu zutenean, Gasteiz aldetik etorri ziren aireplanoak.

52. Aita ganadu eta guzti ezkutatu zen (MAN-007/017)

Bere aita ez zen joan gerrara, baina aitaren bi anaiak bai: bata abertzaleekin boluntario eta beste errepublikazaleekin. Bere aita Mugarra aldeko Santa Luziara joaten zen ezkutatzera bere lagun batengana. Tropak sartu zirenean,

ganadu eta guzti joan zen bertara, ganaduak errekiatzeko arriskua zuten-eta. Batailoiek gose eta zikinkeria askoa zuten. Manoloren aitagarrebak, oster, dena galdu zuen.

53. Ezkurdiko erromeriara bizikletaz (MAN-007/019)

Bere emaztea durangarra da eta Ezkurdiko erromerian ezagutu zuten elkar. Bizikletan joaten ziren Durangora eta aguazilekin hainbat anekdota bizi izan zituzten.

54. Bizikletaz batetik bestera (MAN-007/020)

Eskolara, Durangora zein beharrera bizikletan joaten zen Manolo. Durangotik Mañarira bidean eguerdian hogei bat bizikleta batzen ziren, denek zuten bizikleta. Bidean, Izurtzako tabernan egiten zuten geldialdia. Neskak ere joaten ziren bizikletaz eta erroberek gona ez harrapatzeko sare bat izaten zuten.

55. Eskolan Espainiako historia eta erdara (MAN-007/022)

Eskolan denetarik ikasten zuten: matematika, gramatika, Espainiako historia, historia sakratua... Espainiako historia ere historia sakratua zela dio. Liburuak eskolan izaten zituzten. Maisuak askotan jipoitzen zituen umeak. Euskaraz eginez gero ere jipoitzen zituzten.

56. Dotrina eta elizako kontuak erdaraz (MAN-007/023)

Elizan ere gaztelaniaz errezatu behar izaten zuten. Etxean, oster, euskaraz errezatzen zuten. Dotrina ere erdaraz ikasi zuten don Agustin abadeagaz.

57. Errotak zarratu arren, lortzen zuten ehotzea (MAN-007/025)

Lehen askotan errezatzen zuten, baita arto zuriketan zebiltzala ere. Gerraostean errotak zarratuta zeuden eta ezin zen ezer eho. Hala ere, errotariak ere egiten zituzten tranpak: zigilua kendu egiten zuten. Batzuk guardia zibilekin akordio batera heltzen ziren, martxan jarri ahal izateko.

58. Osaba estraperlista (MAN-007/026)

Bere aitaren anaia batek diru asko egin zuen estraperloari esker. Bidean Guardia Zibila zegoen edo ez ikusteko, taxia joaten zen aurretik badaezpada ere. Batez ere Araba eta Nafarroatik ekarritako garia ekartzen zuen. Osaba hori oso ezaguna zen Durangaldean.

59. Osaba eta anaia indartsuak (MAN-007/027)

Bere osaba bat, aitaren anaia, oso ezaguna zen Durangaldean. Oso indartsua zen, Urtain boxeolari ezagunaren parekoa. Ertarian zuten 165 kiloko harria jasotzen zuten bere osabak eta bera anaiak ere.

60. Abadiñoko idi-probetara (MAN-007/028)

Mañarian ez da sekula probalekurik egon eta Abadiñora joaten ziren idi-probetara. Bere aita ere idiak hartunda Abadiñora joaten zen. Etxean egindako lana nahikoa zen entrenatzeko. Probalari profesionalak ziren tranpak egiten zituztenak.

61. Harakinak ganadua ondo ezagutu behar du (MAN-007/030)

Mañarian Askondoko Inaziok jarri zuen harategia. Manoloren anaiak Durangon zuen harategia. Ganadua erosi aurretik baserrietara joaten zen ganadua ikusten. Bazekien zeinetan erabiltzen zituzten legez kanpoko substantziak eta zeinetan ez.

62. Leihoetan begira zeuden andrei egindako kanta (MAN-007/032)

Kuadrillan asko kantatzen zuten. Neskekin zer edo zer eginez gero, etxean laster jakiten zuten leihoetan begira egoten zen jendeak esanda. Orduan, leihoetan begira zeuden horientzako kanta berezi bat atera zuten.

63. Arbolarik arbola fruta osten (MAN-007/034)

Gaztetan edonora joaten ziren fruta osten, baina Ikobaltzetako Joseri errespetua zioten; izan ere, eskopetagaz tiroka hasten zen.

64. Dotrina maisu erdaldunagaz (MAN-008/003)

Eskolan dotrina asko irakasten zien. Maisua, Gabino Arana, dotrinazalea zen. Gabino Arana Oiongoa (Araba) zen eta ez zekien euskaraz eta galarazita zegoen euskaraz egitea.

65. Gerran koban ezkutatuta (MAN-008/005)

Gerra Zibilean, hilabetez izan zuten frontea etxe ondoan. Hasieran gura beste jateko zuten. Zallobentako koban ezkutatzen ziren beste hainbat herritar bezala. Bere aitak behiekin batera egin zuen alde eta amagaz geratu ziren. Kobetan egunez egon ostean, gauetz etxera bueltatzen ziren.

66. Gerran hildakoak (MAN-008/006)

Araba aldetik zetorren frontea eta handik hurbil, mordo bat hil ziren, tartean baita Mañaria bertako herritarren bat ere.

67. Errotak itxita, ezin eho (MAN-008/007)

Beraien etxera laguntza bila joaten ziren milizianoak gerra sasoiari. Gosetuta egoten ziren eta beti zuten zer edo zer beraientzat zein besteentzat. Baina ez zuten irinik izaten, errotak zarratuta egon ziren eta; ondorioz, ezin zuten ezer eho. Mañarian hiru errota zeuden. Zorroagaz irtenez gero, tiroka hasten ziren. Gereziak ere bazituzten, baina ez ziren ausartzen arbolara igotzen.

68. Frontea Mañaria eta inguruetan (MAN-008/008)

Etxe aurreko haitzetan egon zen frontea Gerra Zibilean. Handik Dima aldera egin zuten ihes. Durangon eta Legution ("Billarle") ere eraso bortitzak egon ziren.

69. Gerraosteko errazionamendua (MAN-008/012)

Frontea hilabetez Mañarian egon ostean, alde egin zuten. Gerraostean, gosea zen nagusi, baina baserrietan bazuten zer edo zer. Errazionamenduan ematen zioten ogi-txuskoa etxera orduko jaten zutela dio.

70. Baserriko jeneroa zen zuten jatekoa (MAN-008/015)

Gerraostean, baserrian ez zuten goserik izan. Eguneroko jatordua etxeke jeneroa zen: patatak, esnea, babak, gaztainak...

71. "Gris Mañaria" haitza (MAN-008/017)

Etxe aurreko harrobian, Askondoko harrobian, lan egindakoa da Jose Luis. "Gris Mañaria" haitza zuen marmoldun harrobia zen, kanposantu askotan erabilitakoa.

72. Askondoko harria Bizkaia guztian (MAN-008/019)

Bizkaia guztian erabili zen Askondo harrobiko harria. Izurtza eta Garaiko frontoia bertako harriagaz egin ziren. Harriok ze tamaina zuten azaltzen du.

73. Errekarria etxeak egiteko erabiliena (MAN-008/025)

Etxeak egiteko errekarriak erabiltzen zituztela uste du, errekatik samurragoa aterako zutelakoan harria.

74. Mañariko harria Durangoko geltokira (MAN-008/028)

Durangoko geltokira Mañariko harri blokeak kamioietan eroaten zituzten. Kamioi errusiarrak eta GMCak ziren nagusi.

75. Parrandatik hamarretarako etxera (MAN-008/030)

Gaztetan ahal ziren parranda guztiak egiten zituzten, baina hamarretako etxera joan behar izaten zuten. Mañarian izaten zuten erromeria. Durangora-edo joateko bizikleta izaten zuten.

76. Zortzi urtegaz lurretara morroi (MAN-009/002)

Zortzi urte zituela, lurretara joan zen morroi neskezahar baten etxera. Laiekin aritzen zen beharrean. Txakur handi gutxi batzuen truke egiten ei zuen lan. Asteburuetan ez zen etxera bueltatzen. Urtebetera andrearen iloba bat joan zen bertara eta Teofilo etxera bueltatu zen.

77. Bederatzi urtegaz Aramaiora morroi (MAN-009/003)

lurretan morroi egon eta gero, bederatzi urtegaz Aramaiora (Araba) joan zen morroi. Baserri handia zen eta gari asko batzen zuten. Goizetan esnea saltzen zuen baserriko beharrak egin aurretik.

78. Aramaiotik Mañarira oinez (MAN-009/004)

Aramaion morroi zegoela, Gabonetan, bakailaoa zakuan hartuta Anbototik zehar oinez etorri zen etxera. Elurtza handiak zeudela-eta, gero ezin izan zen joan bueltan astebete pasatu arte.

79. Olgetan saihets bi apurtu (MAN-009/005)

Aramaion morroi zegoela, domeka batean olgetan zebiltzala, jausi eta saihets bi apurtu zituen

80. Iurretan morroi tripa bete-beteta (MAN-009/010)

Iurretan morroi egon zen etxeko andrea Oromiñoko errota batera joaten zen irin bila. Talo gozo-gozoak egiten zituen. Gura adina jaten zuen eta tripa ondo betetzen zuen.

81. Esnea barik, armozutan berakatz-zopa (MAN-009/011)

Aramaion morroi zegoela ondo jaten zuten, baina ez zuten esnerik. Esnea saldu egiten zuten eta berakatz-zopa hartzen zuten armozutan.

82. Goldaketan (MAN-009/012)

Aramaion morroi zegoela, goldaketan aritzen ziren. Lurra zelan lantzen zuten azaltzen du.

83. Gari lanak (MAN-009/013)

Garia igitaiakin ebakitzen zuten Aramaion morroi zegoela. Auzoen artean garia jotzeko makina zuten. Aramaion garia ere jorratu egiten zuten. Galtzua sabaian gordetzen zuten.

84. Ira behiek jateko (MAN-009/014)

Umetan Aramaiora joan zen morroi. Bertan, behiek neguan zer jan izan zezaten iratan joaten ziren basora, belar sikua izango balitz legez jaten zuten ira. Belar arlo handiak izaten zituzten eta egun asko pasatzen zuten horretan. Etxeko seme-alabek ez zuten lanik egiten baserrian, ugazaba eta Teofilo aritzen ziren horretan. Belar sikua gurdian garraiatzen zuten Metak egiten ziren, baina beraiek ez zituzten egiten.

85. Sagardoa zelan egin (MAN-009/016)

Etxerako sagardoa egiten zuten. Prozesua pausuz pausu azaltzen du.

86. Ilargiaren eragina (MAN-009/019)

Arbolak ilbeheran inausi behar dira. Horren garrantzia azaltzen du. Ortuko lanetarako ere kontuan hartu behar da. Txerria ere ilbeheran hil behar da.

87. Gauetan porru-patatak eta gaztainak (MAN-009/021)

Gaztaina sasoian 3-4 gurdikada batzen zituzten. Afaritan porru-patatak eta gaztainak jaten zituzten. Gaztainak maskailuan erretzen zituzten. Dena prestatzen zuten beheko suan.

88. Behiak baserriko beharrak egiteko (MAN-009/022)

Baserriko beharretarako behiak erabiltzen zituzten. Behiek ez zuten gaur egun izaten duten jateko bera. Beste animalia batzuk ere bazituzten: oiloak...

89. Auzoen artean laguntasuna nagusi (MAN-013/002)

Aurelioren umetako Maria zelakoa zen azaltzen du. Lehen auzoak elkari laguntzen zioten, gaur egun, ostera, autoz mugitzen dira eta ez dute elkar ezagutzen. Baserriko lanetan ere, gari-jotean edo belar sikutan, bata besteari laguntzen zieten. Auzoen artean gari joteko makina ere erosi zuten.

90. Umetatik lan desberdinetan aritutakoa (MAN-013/003)

Etxean ardiak zituen eta umetan hasi zen artzain lanetan. Gero ardiak kendu eta 16 urtegar okindegian hasi zen lanean. Soldadutzatik bueltan Arrasateko Garagartza auzoan hasi zen lanean.

91. Okindegia eskolarik onena (MAN-013/005)

Eskola garaian, sarritan artzain lanetan ibiltzen zen. 16 urtegar okindegian lanean hasterakoan, orduan jaso ei zuen eskolarik onena. Denetariko lanak egiten zituen bertan.

92. Soldadutzan kabo (MAN-013/006)

Soldadutzan zortea izan zuen, hasieratik kabo izendatu zuten-eta. Bere eginbearra zein zen azaltzen du.

93. Fonseco lehen behargina (MAN-013/008)

Aurelio Izurtzako Fonseco lantegiko lehen behargina izan zen. 26 urtegar hasi zen bertan lanean. Hasieran bizikletaz joaten zen; gero, motorrez; eta, azkenik, ezkondu ostean, autoz. 80.000 pezeta ordaindu zituen 600 bat erosi zuen.

94. Ikurrina jartzeko bozketa (MAN-013/011)

1967. urte inguruan, Aurelio alkatea zela, Elorrioko idazkari bera zuten. Elorrion egin zuten moduan, bozketa egin zuten: baietak irabazi zuen. Aguazila ez zen erabakiaren aldekoa, baina balkoian jartzea egokitu zitzaion. Jende asko batu zen herrian egun hartan, xanpai-botilak ere bukatu ziren. Ordura arte Espainiako bandera urtean pare bat egunetan baino ez zen jartzen.

95. Alkate musutruk (MAN-013/012)

Alkate izan ostean, ez zuen berriro Udalera sartu gura izan. Gaur egun jornala irabazten dute alkateek-eta, lehen ez.

96. Mañariak ez du herri lurrik (MAN-013/014)

Mañariko herriak ez zuen herri lurrik eta aldunditik jasotako dirua behar zuten zituzten beharginei ordaintzeko. Ez zuten aparteko herri lanik egiten, ez zuten-eta dirurik. Izurtzak, ostera, baso asko du; sasoi hartan ikatza egiten zen eta diru asko lortzen zuten.

97. Mañariko harria (MAN-013/018)

Mañariko harria eraikin askotarako erabili izan da, Madrilgo diputatuen kongresuko zutabeak egiteko, besteak beste. Matxoan, mando arran, eramaten zituzten harriak Gasteiz aldera.

98. Durangoko lantegietara eta ikazkintzan (MAN-013/019)

Aurelio gaztea zela, jende asko Durangora joaten zen beharrera. Bizikletaz joaten ziren gehienak, motorrak beranduago hasi baitziren. Jende asko ikazkintzan aritzen zen inguruko basoetan. Lehen basoetan ez zegoen pinurik.

99. Pinua barik, haritz eta pago ugari (MAN-013/020)

Lehen basoetan ez zegoen pinurik, haritza eta pagoa ziren nagusi. Gaztainondoak eta ugariak ziren.

100. Habana itsasontzian Belgikara (MAN-015/002)

Bere jaiotetxeko izena duten abizendunak ezagutu zituen eskolan. Mañariko eskolan gerra denbora arte ibili zen. Gerra Zibilean Belgikara joan zen Habana itsasontzian. Capbretonen (Frantzia) 2 hilabete egin ostean joan ziren Belgikara, 2 urte egin zituen bertan. Hiru neba-arreba joan ziren. Bere anaia Alemanian hil zen. Gaztelania eta frantsesa ikasi zituzten bertan.

101. Ondasunan konfiskatuta (MAN-015/003)

1937ko uztailean hiru neba-arreba Belgikara joan ziren Habana itsasontzian. Bere gurasoak, ostera, Bilbora joan ziren. Etxera bueltatzerakoan, dena konfiskatu zietela konturatu ziren: taberna, harrobia... Bere aita gerraostean hil zen, 1941ean.

102. Aita preso (MAN-015/004)

Bere aita karmeloko kartzelan egon zen urtebetez. Frankisten moduan pentsatzen ez zuten asko kartzelaratu zituzten. Bere ama bisitan joaten zenean, ez zioten ustez euskaraz berbetan. sasoi hartan Adrian eta bere neba-arrebak Belgikan egon ziren; beraz, ez zuten aita espetxean ezagutu. Mañarian denda eta taberna zuten, batzokia ere bertan zuten. Kartzelatik gaixorik irten zen eta handik gutxira hil zen.

103. Belgikako bizimodua (MAN-015/006)

Gerra Zibilean, neba-arrebekin batera egon zen Belgikan. Abade euskaldun batzuekin egon ziren bertan. Ezpata-dantza ikasi zuten bertan eta herririk herri aritzen ziren. 24 ume egon ziren abade horiekin eta askok ez zekitenez euskaraz bertan ikasi zuten gaztelania. Bi urtetara bueltatu ziren. Euskadiko Gobernuak umeak ebakutzeko baliabideak errazten zizkieten familia abertzaleei. Eskola ere abade horiekin ikasi zuten.

104. Belgikatik bueltan Durangoko maristetara (MAN-015/007)

Gerra Zibilean Belgikara ebakuatuta joan aurretik izan zuten maisu bera izan zuten etxera bueltatu zirenean. Kanpoan zeuden umeei buruz propaganda txarra zabaldu zuten, komunistekin-eta zeudela zioten-eta. Baina eurak ez ziren maisu horrengana bueltatu, Durangoko maristetara joan baitziren.

105. Maristetan 'Cara al Sol' ez abestearren zigorra (MAN-015/008)

Durangoko maristetan eskua altxatu eta ilaran Cara al Sol kantatu behar izan zuten. Hiru anaiek ez zuten abesten eta zigortu egiten zituzten. Marista batek ohe gainean txapel gorria izaten zuela du gogoan. 14 urte gaz eskola utzi eta beharreen hasi zen familiako harrobian.

106. Argindar barik, harrobiko lanak eskuz (MAN-015/009)

Bere aita 1927. urtean erosi zuen harrobia. Orduan ez zegoen argindarrik eta dena egin behar izaten zen eskuz. Lanak asko aurreratu dira, ez du lehengoarekin zerikusirik. Bere aita Adrianek 13 urte zituela hil zen; gaur egungo harrobiko funtzionamendua hark ikustea gustatuko litzaioke.

107. 3.000 pezeta ordaindu zuten harrobia enkantean (MAN-015/010)

Harrobia beraiek jan dutela dio, dena zela haitza. Bere aitak 1927. urtean hartu zuen harrobia. Lehenago, lur horiek herriarenak ziren eta herritarrak, gizonak zein emakumezkoak, aritzen ziren harria apurtzen. Karlisten gerran, etxe jabeei dirua eskatu zieten eta emandako diru hori bueltatzeko herri lurrekin ordaindu zuten. Bere aitak orduen 3.000 pezeta ordaindu zituen enkantean.

108. Aita tratulari ausarta (MAN-015/011)

Bere aita tratua asko gustatzen zitzaien, gauzak erosi berriro saltzeko. Bilbora joateko, "karrokotxean" zaldiz Durangora joaten zen han trena hartzeko. Dendan denetarik saltzen zuten: telak, jatekoa, oinetakoak... Bere aitak harrobia eskuratu zuenean, 1.000 pezetako irabazia lortzeko saldu nahi izan zuen; amak kontran egin eta ez zuten lortu. Horri eskerrak dute oraindik beraiek harrobia. Berari ere amak erakutsi zizkion tratu lanak.

109. Kamioiak Euskadiko Gobernuak errequisatuta (MAN-015/012)

Gerraostean ez zieten utzi harrobia martxan jartzen Gobernuak konfiskatu baitzien hori ere. Baserriak ere konfiskatu zituzten eta beraien jabetzako baserrietatik jasotako errenta ere Zornotzan entregatu behar izaten zituzten. Gerra aurretik hiru kamioi izan zituzten eta horiek ere Euskadiko Gobernuak eraman zituen eta ez zituzten gehiago ikusi. Horietako kamioi baten isuna handik 20 bat urtetara heldu zitzaien Bartzelonatik.

110. Gerraostean harrobia apurka-apurka martxan (MAN-015/013)

Harrobia konfiskatuta izan ostean errentan eman zuten. Handik urte batzuetara, beste baten laguntzagaz hasi ziren berriro harrobiko martxa hartzen; artean, beraien aita hilda zegoen eta beste bazkide horrek lagundu zien hasiera hartan. Adrianek soldadutzatik etortzerakoan hartu zuen beregain ardura. sasoi hartan Bizkaiko harrobiak bisitatzen zituen bizikletaz. Gaur egungo beraien harrobia munstro bat dela dio.

111. Mañariko harrobiak (MAN-015/014)

Amantegitarren harrobia karehaitzekoa da. Gaur egun duten harrobia, lehen bi zatitan banatuta egon zen, bi harrobi desberdinetan. Aurrean dagoena, askozaz beranduago hasi zen martxan. Beste bat ere badute herrian, Zallobenta, baina zarratuta dago.

112. Jendearen laguntzari esker iraunarazi (MAN-015/017)

Gerra garaian ondasunak galdu eta zor asko pilatu zituzten. Aita gazterik hil arren, amak aurrera atera zituen seme-alabak. Jende askok utzi zien dirua aurrera egin eta negozioa berriro martxan jartzeko.

113. Ondoko harrobia erosi dena bat egiteko (MAN-015/020)

Gaur egun harrobi bakarra dena, lehen bi ziren; bestea bere koinatuaren zen. arazo bat tarteko salgai jartzea erabaki eta Adrianek erosi zion. Orduko 10 milioi ordaindu zituen.

114. Harrobiko lanak asko aldatu dira (MAN-015/021)

Adrianek 14 urte zituela, 14 bat behargin zeuden, baina 7-8 baino ez nominagaz. Izurtzako lantegi batetik beste asko egun erdiko lana egitera joaten ziren. Dena zen esku beharra. 1955 urte inguruan, Galdamesko harrobi batekoek teknika berria erakutsi zien bagoneta bidezko harrobi barruko garraiorako. Beharginak gustura zeuden, jornal ona irabazten baitzuten. Hasieran metro kubikoka egiten zituzten neurketak. Horrelako gauzak martxan ikasten dira.

115. Barrenadore beharra (MAN-015/024)

Harrobiko lanak ikaragarri aldatu dira, gaur egungo lana ez da batere gogorra lehengoarekin konparatuz gero. Barrenadorak harria zelan zulatzen zuten azaltzen du. Patrizio Etxebarriak egindako 9 kiloko mailua zuten. Artezilariak egiten zuen lana ere azaltzen du. Artezilariak egiten zuen lana ere azaltzen du.

116. Artezilari beharra (MAN-015/025)

Antzina artezilariak harrobian egiten zuen lana azaltzen du.

117. Karehaitza ez da kaltegarria osasunarentzako (MAN-015/026)

Harrobiko lana gogorra izan arren, duen atmosfera da onena. Hauts honek ez du kalterik karehaitza baita. Silikosisa beste harri batzuk dute

118. Harria zelan apurtu (MAN-015/029)

Harria zelan apurtzen zuten azaltzen du. Harrobiaren produkzioa eta tamaina aldatzen joan den heinean makinak ere aldatu dituzte.

119. Harrobia handitzen (MAN-015/030)

Harrobiaren produkzioa eta tamaina aldatzen joan den heinean makinak ere aldatu dituzte. Harrobia asko handitu eta jan du eta prozesu hori azaldu zigun.

120. Harea zelan egiten zen. (MAN-015/033)

Antzina harea zelan egiten zuten kontatzen du pasarte honetan. Gaur egun, ostera, dena da automatikoa.

121. Alanbrea, dinamita eta bolbora (MAN-015/036)

Trenbideetan botatzeko erabiltzen den harria gogorra da. Marmola lehen alanbreagaz ebakitzen zen eta dinamitagaz troka atera alanbrea bueltaka ibiltzeko. Bolbora ere erabiltzen zen, baina hark harria kaltetzen zuen.

122. Harrobiko jornala (MAN-015/037)

Harrobiko jornala beti finkoa zen ez produkzioaren araberakoa.

123. Arropa berezi barik, euriagaz zakua jantzi (MAN-015/038)

Harrobiko lana gogorra izan arren, Adrian beti aritu da oso gustura. Neguan hotz eta udan bero, baina aurrera egin behar da. Euria egiten zuenean, zakuak jantzen zituzten, behargin bakoitzak berak ekarritakoa. Osterantzean, sekula ez zuten aparteko arroparik jantzen, ez eskularrurik ez ezer. Oinetako puntetan babesgarria izaten zuten.

124. Durangon neskame (MAN-017/002)

Durangora ezkondu zen bertan egon baitzen neskame, San Faustoko taberna batean. Ezkontzak eta bestelako ospakizunak ospatzen ziren bertan. Gero gurasoen etxera, Mañarira, joan zen bizitzen.

125. Doña Anatasia maistra ona (MAN-017/004)

Gerra aurreko oso akordu gutxi ditu Petrak. Doña Atanasiagaz ibili zen eskolan, oso maistra ona. Gerran beste irakasle batzuk etorri ziren, baina gerora berriro bueltatu zen doña Anatasia.

126. Eskolan ikasitakoak (MAN-017/005)

Maistra ere euskalduna izan arren, eskolak erdaraz jaso zituzten. Cara al Sol abestea ezinbestekoa zen. Batuketak, kenketak eta biderketak ikasi zituen, zatiketarik ez, ordea.

127. Baserriko lanetan eskolara barik (MAN-017/006)

Etxeko nagusiena izan zenez, askotan baserriko lanetan gelditu behar izaten zen eskolara joan barik. Pozik geratzen zen etxean.

128. Aita frontean, ama kartzelan eta umea kendu (MAN-017/007)

Gerra sasoiaren denbora askoan egon ziren aitaren berri izan barik, frontera joana baitzen. Mañariako hainbat andre eraman zituzten kartzelara, beraien ama ere tartean. Uritik ekarritako umea zuten, adoptatutakoa; eta, kartzelan amarekin zegoela, gaixotu eta kendu egin zieten. Petra eta bere neba-arrebak osaba-izekoekin gelditu ziren.

129. Aitak izandako zoriaren beldur (MAN-017/009)

Bere aita frontean egon zen gerra zibilean. Otxandion harrapatu zuten eta Mañariko kanposantura ekartzen zituztenez bertako hildakoak, bertara joaten ziren ea aita han zegoen ikusteko; gerora, onik azaldu zen.

130. Eskolan txapel gorriagaz (MAN-017/010)

Nazionalak sartu ostean, eskolan txapel gorria jantzen zuten. Beraiek, umeak, zirenez, ez zekiten zein zen txapel gorriaren esanahia. Behin Mañariko gizon batek ea txapel hori aitak eman zion galdetu zion. Komentario hori betiko izan zuen barruan gordea, eta handik urte askotara Petrak gogorarazi zion karlista zen gizon horri.

131. Gerraren ondorioak: ezkutatu beharra, ondasunak galtzea... (MAN-017/012)

Kobagorri kobazuloan ezkutatzen ziren gerratean, egun osoa pasatzen zuten bertan. Herria milizianoz bete zen eta baserrietatik ibili ziren eskean.

132. Gosea (MAN-017/013)

Gerraostean gosea ezagutu zuten. Astoz joaten ziren errotarik errotara, askotan ez zuten irinik lortzen-eta. Tabirako (Durango) okindegian ogi-txuskoa ematen zien, txarra eta txikia.

133. Garia eta artoa udaletxera eroan behar (MAN-017/014)

Gerraostean gose izan arren, baserriko jeneroa udaletxera entregatu behar izaten zuten: garia eta artoa.

134. Morokila, arto-zopak... (MAN-017/015)

Irinagaz taloa eta morokila egiten zuten. Gariarenarekin ogia ere egiten zuten. Morokila zelan egiten zuten azaltzen du. Morokila eta arto-zopak onak ei dira osasunerako.

135. Eskolako bidaia Donostiara (MAN-017/018)

Bere ama baserrietan aritzen zen beharrean, artajorran, ira ebaten... Aitak ere lan egiten uten eta horrela dirua lortzen zuten. Eskolatik Donostiara egin zuten irteera. "Que buenos son los maestros de Mañaria" abesten zieten bidaia egiteagatik. Gerraostean bere lehengusua izan zen maisua.

136. Umezain beharretan (MAN-017/020)

lurretako Santa Apolonia auzoan umezain lanetan aritu zen, bi ume zeuden familia batean. Gustura egon zen. Bere nebak ere morroi lanetan aritu ziren.

137. Neba-arreba denak morroi edo neskame (MAN-017/021)

Bera umezain eta bere nebak morroi bezala aritu ziren. Etxeko denak etxetik kanpo zeudenez, Gabonetan batzen ziren eta elurra zela-eta arazoak egoten zirenez, denak batu arte ez ziren lasai egoten.

138. Gabonetako ilusioa (MAN-017/022)

Gabonetarako ilusioa izaten zuten: etxeko denak batu, afalosteko karta-jokoa, jateko berezia (olio-aza, karakolak, bisigua...), erregenetako gozozko sugeak... Umeek ez zuten oparirik jasotzen, zapatetan fruta apur bat izanez gero konformatzen ziren. Gutxirekin egoten ziren gustura.

139. Dotrina gerra aurretik, jaunartzea ostean (MAN-017/024)

Dotrina elizan jaso zuen, baina tartean gerra etorri zen eta lehen jaunartzea gerraostean Otxandiotik etorritako don Agustin abadeagaz egin zuen.

140. Umeak izan ezean bekatu (MAN-017/026)

Ezkondu ostean ere konfesatu behar izaten ziren, eta asko beldurragaz beste leku batera joaten ziren. Petra Durangoko jesuiterara eta Andra Marira joandakoa da. Gizonagaz zer egiten zuen galdetzen zioten, helburu nagusia umeak izatea baitzen.

141. Haurdun ez geratzeko txertoa (MAN-017/027)

Haurdun ez geratzeko ez zuten babesik jartzen. Don Jaime medikuak txertoa eman zion, berak bere buruari jartzen zion hilabetero. Ezkondu aurretik ere harremanak izatea gauza naturala zen.

142. Domeketako erromeria (MAN-019/002)

Umetan domeketan eta iluntzetan herrira joaten ziren, Mañarira. Filarmonika jotzen zuten eta dantzan aritzen ziren. Arin erretiratu behar izaten ziren etxera. Mutilek dantza eskatzen zien; inguruko guztietakoak etortzen ziren. Senarra ere Mañarikoa zen, baina ez zuen dantzan ezagutu. Erromeriarako arropak ez ziren bereziak. Apurtu arte erabiltzen zituzten soinean.

143. Mañariko eskola (MAN-019/010)

Eskolan gutxi ikasi zuten, gerora ikasi duela dio. Eskolan pizarra handi bat zuten, klarionarekin idazteko. Mutilak aparte egoten ziren, ezta jolas-orduan ere. Mutilek maisua zuten eta neskek maistra. Ahal zenean joaten ziren eskolara, baserriko lanek uzten zutenean.

144. Gerran, amamaren etxera (MAN-019/012)

Gerra Zibilean frontea hurbil izan zuten. Balak etxe barruraino sartzen ziren. Baserria utzi eta herri aldera joan ziren amamaren etxera; Urkuletako auzoa hustu egin ei zen. Bitartean, soldaduak-edo egon ziren beraienean, eta tximinia erre zieten.

145. Miliazianoen medikuak lagundu zien (MAN-019/015)

Gerratean aita gaixotu zitzairen eta miliziano batzuk lagundu zien beraien batailoiko medikuak artatu baitzuen.

146. Gerraosteko jatekoak (MAN-019/019)

Baserrian ez zuten goserik ezagutu. Taloa, morokila, porru-patatak... izaten zituzten, ez zuten non aukeratu, baina faltan ez.

147. Errotak estraperloan (MAN-019/020)

Mañarian bi errota egon ziren eta gerratean estraperloan aritzen ziren, gaez lanean. Abastoetakoek, polizia moduan, zarratu egiten zituzten zigilu batekin, baina errotariak kendu egiten zuten gaez.

148. Morokila eta ogia zelan egin (MAN-019/024)

Morokila zelan egiten den azaltzen du. Irinarekin ogia eta taloa ere egiten zuten. Ogia egiteko etxeko kanpoko labea erabiltzen zuten

149. Arropak garbitu; lixiba (MAN-019/027)

Arropak eskuz garbitzen zituzten erreko harri baten jota, txinbo xaboia eta sosa xaboia erabiliz. Sutarako hautsarekin lixiba egiten zuten, kirruzko izarentzat nahitaezkoa zen.

150. Garai bateko jaunartzea (MAN-020/002)

Garai bateko bizimodua. Lehenengo jaunartzean ez zen izaten gaur egun moduko ospakizunik. Arropak ere ahal ziren modukoak. Uda edo negua izan, arropa bakarria izaten zuten eta apurtu arte harekin. Jaunartzea egin eta gero, domeketan konfesatu eta jauna hartzera. Gezurra esateko beldurra izaten zuten. Elizan neskak eta mutilak aparte.

151. Mezara baraurik, ahoa bustitzeko ere beldurrez (MAN-020/003)

Mañarian goizeko zortzietan eta hamarretan izaten ziren mezak. Baraurik joaten ziren, ahoa bustitzeko ere beldurrez. Mezak euskaraz ala latinez izaten ziren. Liburu handietatik irakurtzen zuten apaizek. Orduan derrigorra zen mezara joatea. Igandean lan egitea, berriz, bekatu galanta. Baserriko beharrak bezperan egiten zituzten, igandean mezara joateko.

152. Ezkon-bidaiarik ez (MAN-020/007)

Ezkondu zirenean ez zuten inora bidaiarik egin. Dirua behar horretarako! Bere gurasoak Donostiara joan ei ziren ezkon-bidaian. Ezkontzako argazkiak ateratzera Durangora joan ziren.

153. Inguruko herriak ere ezagutu ez (MAN-020/010)

lurreta non zegoen ez zuen jakin berandura arte. Durangora joaten ziren, baina Durangon ere eliza eta plaza ingurua ezagutzen zituen bakarrik. Orduan ez zen edonora hain errez joaten. Otxandiora melokotoiak saltzera joaten zen astoarekin, goizeko ordu biak inguruan irtenda. San Antonio egunean Urkiolara.

154. Melokotoi asko eta saldu egin behar (MAN-020/011)

Melokotoi asko izan zuten sasoi batean. Gereziak ere bazituzten, baina Arrueta aldekoak ziren ezagunagoak. Melokotoi sasoiak, saldu egin behar, ustelduko ez baziren. Orduan marmeladak zer ziren ere ez. Batzuek dozenaka erosten zituzten eta beste batzuek kiloka. Azokan ateratako diruarekin etxerako gauzak erosten ziren (olioa, adibidez).

155. Josleak etxerik etxe (MAN-020/013)

Oihalak Durangon edo Mañarian erosten zituzten. Mañarian josleek ekartzen zituzten oihalak. Batzuek etxerik etxe ibiltzen ziren, arropak konpontzen. Euren etxera senarraren izeko bat joaten zen.

156. Gabonetako kantak (MAN-020/016)

Gabonetan kantatzen zituzten kantak: "Gabon gaboneta..." eta "Erregen erregen...".

157. Gabonetako postreak; Erregeei zapata? (MAN-020/017)

Gabonetan intxaur-saltsa jateko ohitura zegoen. Umeentzat sugearen formako gozoak ere izaten ziren. Euren amak ere eramaten zizkien kaxa txiki batzuk. Erregeen oparirik ez zuten jaso egundo. Behin bat edo batek zapata jarri omen zien eta goizean txakur gorotzez beteta aurkitu zuen.

158. Hortza jausitakoan, teilatura edo lurpera (MAN-020/019)

Umeei hortza jausitakoan, behekoa bazen, teilatura botatzen zela dio; goikoa bazen, berriz, lurperatu.

159. Bedeinkatutako kandelak (MAN-020/024)

Kandelario egunean kandelak bedeinkatzera eramaten zituzten. Gero gorde egiten ziren, behar zenerako. Bat edo bat txarto zegoenean, elizakoak eramaten zitzaizkion. Abadea etxera joaten zen eta mahaia, kandelak eta behar zena prest edukitzen zen.

160. Abadiñoko San Blasetatik ortozik etxera (MAN-020/025)

Behin joan zen Abadiñoko San Blas jaietara. Bazkalostean irten ziren etxetik eta atzera abe mariatarako itzuli egin behar. Berandutu egin zitzairen eta arineketan hasi ziren. Baina zapatekin ezin zuten arineketan egin eta ortozik (galtza-hutsik). Durangon pasatzean, jendeak begiratu egiten zien. Gehiago ez zen joan.

161. Dantza lotua bai, baina tarte handiarekin (MAN-020/028)

Garai batean Andra Mari jaiak eta San Juanak ospatzen ziren Mañarian. Domeketan plazara dantzara. Dantza lotua libre zegoen, baina tarte handia utzi behar. Gauza asko galdu dituztela dio. Orain gaztea izango balitz....!

162. Astoarekin beldurtu zen gizona (MAN-020/033)

Gizon batek esaten zuen bera ez zuela ezerk beldurtzen eta behin astoak beldurtu omen zuen. Ilargirik gabeko gau batean, kaletik etxera zihoala, astoarekin tupust egin zuen estratan eta sekulako sustoa hartu omen zuen.

163. Neba txikia hilberri eta etxea konfiskatu guran (MAN-021/002)

Nere neba bakarra gerran hil zen hiru hilabete zituela; hiru egunetan herriko hiru ume hil ziren. Miliziano asko zeuden herrian eta berain etxera ere joan ziren etxea konfiskatu behar ziela esanez. Aitaitak umearen gorpua erakutsi zien aldean zuten atsekabea adieraziz. Gorpua txinbo xaboiaren egurrezko kaxa batean gorde zuten, ezinezkoa baitzen gerratean hil-kutxa bilatzea. Egoeraz jabetuta, milizianoek alde egin zuten. Neba hil baino bi egun lehenago bonbak hasi ziren botatzen, eta hil zen egunean bertan hiru bota zituzten; hala ere, ez dakite zerk hil zuen.

164. Gerran ezin hiletarik egin abade barik (MAN-021/004)

Bere neba hiru hilabete zituela hil zen Gerra Zibilean. Hiru egunetan hiru ume hil ziren. Ez zuten hileta-elizkizunik egin, abaderik ere ez baitzegoen. Umeak

hiltzerakoan txilina jotzen zen eta horrekin lotutako esaera zahar bat dakar gogora: "Ama negarrez, aita dolorez eta abadie errezetan diruaren pozez".

165. Gerran kobetan ezkutatu behar (MAN-021/005)

Gerra Zibilean, nazionalek herri bat hartzen zuten bakoitzean kanpaiak jotzen zituzten. Kobetan ezkutatzeko Aliren etxeak. Aita Lezama aldera joan zen ganaduekin; denak bueltatu ziren sano.

166. Gerran jateko faltarik ez (MAN-021/006)

Gerran ogirik ez zuten taloa jaten zuten. Taloa, esnea eta ortuariak (baba...) bazuten eta ez zuten goserik izan. Arroza eta artoa ere guraina zuten.

167. Gerran familia banatuta (MAN-021/007)

Gerra Zibilean, bere osaba Otxandiora eraman zuten munizioak altxatzera. Aitaren berri, ostera, ez zuten izan. Beraiek Arratiarako bidean dagoen koban ezkutatzeko ziren.

168. Otxandioko bonbardaketatik Mañariko kanposantura (MAN-021/008)

Otxandio bonbardatu zutenean, umeak ziren eta ez zioten zentzu askorik ikusten bertako hildakoak Mañariko kanposantura ekartzeari. Sasoi hartan, herriko emakume bat Otxandiora joaten zen benedeja saltzera eta hildako asko ezagutzen zituen; emakume hori, gerora Aliren amaginarreba izan zen.

169. Aireplanoak hirunan-hirunan Durangora (MAN-021/010)

Durangoko bonbardaketa egunean, bere izeko bat bertan egon zen. Iluntzean bueltatu zen etxera. Aireplanoak hirunan-hirunan pasatzen ziren; amak-eta etxe barruan babesteko agintzen ziren.

170. Eskolako argazkia (MAN-021/013)

Eskolara egunero joaten ziren, ez zuten hutsik egiten. 1932. urteko eskolako argazki bat erakusten du eta bertan daudenak zeintzuk diren aipatzen ditu. Tartean bere familiako argazki bat ere erakusten du.

171. Maistra jatorra; argazki zaharra (MAN-021/015)

Eskolara gustura joaten ziren. Atanasia Leanizbarrutia maistra berriztarra on-ona zen. Bere senarraren aitaita-amamen argazki bat erakusten du.

172. Argia Motxokoneko zentraletik (MAN-021/018)

Motxokoneko errota zaharrena ezkondu zen, 25 urte zituela. Ordurako errota kenduta zegoen, baina bertatik ematen zuten herrirako argia. Urik ez zegoenean, udan-eta, ez zegoen argirik eta presa berriro bete arte itxaron behar izaten zen. Turbina bakarra zegoen eta baserrietara eta kalerako argia ematen zuten. Beste zentral bat ere bazegoen eta biek batera ematen zuten zerbitzua.

173. Errotak estraperloan (MAN-021/023)

Artoagaz labako sua egiten zuten, baina beraienean ez zuten egiten. Herrian bi errota zeuden, baina ehotzea galarazita zegoenez, errotak estraperloan aritzen ziren gauez. Arratia aldera ere joaten ziren herrikoak zarratu ostean.

174. Egurra saltzen (MAN-021/024)

Egurra gurdietan eramaten zuten Durangora saltzen. Alik ez zuen ikazkinik ezagutu berandura arte.

175. Soldaduek harrapatzen zuten dena kendu (MAN-021/026)

Durangoko ekonomatora joaten ziren errazionamenduaren bila. Soldaduek harrapatzen zuten dena hartzen zuten eta oiloak ere kendu zizkieten; ondorioz, ez zuten arrautzarik. Gosea gauza tristea da, baina beraiek ez zuten ezagutu horrelako egoerarik. Egunero berdina jan arren, ez ziren kexatzen.

176. Gibel-lapikoa gonapean ezkutatu (MAN-021/027)

Gerra denboran isilean hazi eta hil zuten txerria. Bere aitaitak mailuagaz jota hil zuela uste du. Behin gibela jaten zeudela, soldaduak leihoa jo eta lapikoa gonapean ezkutatu behar izan zuten. Ez zieten harrapatu, nahiz eta bere ustez usaina nabarmena izan.

177. "Por Dios y por la Patria" (MAN-021/029)

Franco "El Caudillo Salvador" ei zen. Eskolan bandera atera, eskua altxatu eta "Por Dios y por la Patria" kantarazten zieten.

178. Hizkuntza tratamenduak: zuka, hika, berorika... (MAN-021/031)

Euskara aldatu egin da: berak "zelako ondo" esaten du, bere bilobak "oso ondo". Seme-alabekin hitanoa erabiltzen du, elkarrizketatzailearekin, ostera, ez, ezezaguna da-eta. Gurasoei zukaz egiten zien, baina berari bietan egiten zien. Lagunekin hika. Abadeari eta medikuari berori.

179. Mañariko Andra Mariak (MAN-021/036)

Andra Marietan erromeria handia izaten zuten herrian. Iurretako Matiasek filarmonika jotzen zuten. Inguruko herrietako jende asko hurreratzen zen bertara. Abarketa garbiekin joaten ziren bertara. Astegunerako arropa bat eta jaiegunerako beste bat izaten zuten. Inguruko mutilek bertako neskek bertakoekin nahi zutela esaten ei zuten.

180. Baltsean mutilek ordaindu behar (MAN-021/038)

Erromerietan baltseoa zen nagusi. Garizuma sasoian, galarazita zegoen eta ezin izaten zuten ezer egin. Alde batetik bestera paseatzen zuten "leloan moduen". Pazkoak heltzeko deseaten egoten ziren. Dantzan egiteko mutilei pezeta bat kobratzen zieten, paparrean tiketa jartzen zien. Mutilek eskatzen zien neskei dantzan egiteko. Mutila gustukoa izan ez arren, Alik ez zuen kalabazarik ematen.

181. San Antonietako erromeria (MAN-021/039)

San Antonioetan Urkiolako erromeriatik denak bajatzen ziren Mañarira. Jende asko zegoenez, bi pertsona aritzen ziren dantzan ari ziren mutilei kobratzen.

182. Durangora permanentea egiten; depilazioa (MAN-021/040)

14 urtetik aurrea Durangora joaten ziren permanentea egiten. Mañarian bizartegi bi zeuden, baina ez ile-apaindegirik. Makillajerik ez zuten erabiltzen. Bernetako ileak makinarekin kentzen zituzten. Alik grabazioa egin aurreko negura arte ez zituen prakak sekula jantzi; orain, ostera, oso gustura daramatza aldean.

183. Eskola (MAN-022/002)

7 urtegaz hasi zen eskolara, berandu. Baserritik kalera eta kaletik etxerako bidea zen eguneroko ibilaldia. Gaztetan inguruko erromerietara joaten ziren. Maisu-maistrak erdaldunak ziren eta beraiek askorik jakin ez arren egin beharra zuten. Eskolan pizarrina, koaderno eta lapitza erabiltzen zuten. Boligraforik ez zuten, tintadun luma baizik. Paulita eta doña Atanasia maistrak izan zituen.

184. Josten ikasten (MAN-022/005)

Ardiekin mendira joan arren, mezara joan beharra zegoen. Eskolan 12 urtera arte joan zen, ahizpa jaio arte. Josten ikasi ostean, 19 urtegaz Durangora joan zen neskame. Mañarian bertan, kalean, josten ikasteko aukera zegoen. Denetarik ikasi zuten josten; hala ere, makinaz etxean ikasi zuen. Gerora, jostun lanetan aritu zen pixka batean.

185. Artilezko galtzak (MAN-022/007)

Artilearekin galtzak egiten zituen. Artilearekin haria egiteko prozesua eta galtzak zelan egiten ziren azaltzen du. Etxerako baino ez zuten egiten.

186. Artilea zelan garbitu eta landu (MAN-022/010)

Artilea xaboiarekin garbitzen zuten. Zelan garbitzen eta lantzen zuten azaltzen du. Etxean ez zuten urik errekarara joan behar izaten ziren.

187. Artilea saldu (MAN-022/011)

Artilea saldu egiten zuten. Ardi asko zegoen, Mañarian ia etxe denetan. Diru asko ez zuten jasoko, baia zegoenarekin konformatu.

188. Aharittoa bota eta 5 hilabetera bildotsak jaio (MAN-022/012)

Ardiekin basoan egoten ziren martxotik Gabonak arte. Ardiari aharittoa bere aitak irailan, San Migel inguruan, botatzen zion; handik 5 hilabetera bildotsak jaiotzen ziren.

189. Artzain ardi txakur barik (MAN-022/013)

Umea zela, ez zuten ardi txakurrik. Bera gaztea zela izan zuten ardiak zaintzeko txakur bakarra. Artzain askok ez zuten txakurrik erabiltzen, Mañaria inguruan oso gutxi.

190. Ez zegoen azeririk ez belarik (MAN-022/015)

Ez zuten azeririk ezagutu inguruetan. Eskobaratz izeneko lekuan harrapatu zuten inguruetako lehena. Belak ere mendian zeuden, Mugarra inguruko kobetan. Ardiek ez zuten izaten inongo arriskurik gaur egun bezala. Lehen basoan hildako ardiak ez ziren erretiratzen, saiek (putreek) jaten zituzten.

191. Basora esnea batzen (MAN-022/016)

Ardiak bildotsak jaiotzerakoan etxean egoten ziren. Gero basora joan behar izaten zuten esnea batzen, goizez eta arratsalde. Beraiek astoz joaten ziren, baina beraien aitak-eta lepoan eramaten zuten. Ardiak solte egoten ziren, haitz inguruetan; etxekoen lurretan zein besteenetan egoten ziren.

192. Bildotsak Durangoko plazan sagai (MAN-022/017)

Bildotsak Durangoko plazan saltzen zituzten. Bizirik eroaten ziren astoz. Harakinek hiltzen zituzten gero. Mañarian ere bazeuden hiltegia eta harakina.

193. Ardiak markatuta (MAN-022/019)

Ardiei belarria markatzen zieten. Era desberdinak zeuden eta bakoitzak bere marka zuen. Sekula ez zituzten nahasten.

194. Ardiek apatx gogorrakoak zituzten (MAN-022/020)

Lehengo ardiek apatxak gogorrakoak izaten zituzten. Apatxetarako harri berdea izeneko ematen zieten.

195. Ahari-topekak (MAN-022/021)

Mañarian makina bat ahari-topeka egiten ziren. Atutxa izeneko batek askotan antolatzen zituen frontoi zaharrean. Kanpotik ere etortzen ziren.

196. Gazta egiteko prozesua (MAN-022/024)

Ardi-esneagaz gazta egin eta saldu egiten zuten. Gazta zelan egiten zuten azaltzen du pausuz pausu.

197. Legarra haizeagaz sikatu (MAN-022/025)

Gazta egiteko bildotsaren legarra landu eta sikatu egiten zen. Legarra kanpoan uzten zuten sikatzen.

198. Gatzura kendu eta ontzen utzi (MAN-022/026)

Gaztaren gatzura ganaduari ematen zien. Gazta ontzeko eta gogortzeko gatzura kendu eta moldeetan uzten zuten sikatzen pare bat egunez. Gazta txikitxuak egiten zituzten.

199. Gazta ondo sikatu ez arrakaltzeko (MAN-022/027)

Gaztak haizearekin sikatzen ziren, leihoak eta ateak zabaldua. Hego haizeagaz edo gutxi sikatuz gero, zabaldu eta arrakaldu egiten ziren. Behintzat hilabetez izaten zuten sikatzen saldu aurretik. Haize asko bazegoen lehenago sikatzen zen eta lehenago horitzen zen.

200. Gazta egiteko esne kopurua (MAN-022/028)

Gazta ur epeletan garbitzen zuten saltzeko. Gaztaren tamainaren arabera erabilitako esne kopurua desberdina da. 3-4 litro behar izaten zituzten txikirako eta 6 bat handia egiteko beraienean txikiak egiten ziren. Amak saltzen zituen Durangoko plazan. Ez zuten ahuntz- edo behi-esnearen gaztarik egiten; agian behiak esne asko izanez gero ardiarenarekin nahasten zuten.

201. Garai batean etorkin asko Mañarira (MAN-024/002)

Garai batean (1954-1970 bitartean) kanpoko jende asko etorri zen Mañarira lanera. 900 biztanletik gora izan omen zituen. Askok alde egin zuten gero, baina batzuk bertan gelditu ziren. Bere sasoiari jada jende gutxi bizi omen zen baserrietik bakarrik.

202. Mutikotan frontoian denbora asko; pilotak (MAN-024/003)

Umetan beti olgetan. Frontoian ibiltzen ziren asko: bustita bazegoen, palaz; eta siku zegoenean, eskuz. Nonbaitetik dirua aurreztuz gero, batzuetan Bilbotik ekartzen zituzten pilotak. Pilota ona lortzen zutenean, ondo zaintzen zuten. Besterik ez zegoenean, trapuzko pilotekin. Oinetakoak.

203. Mañariko eskola; Maristetara Durangora (MAN-024/005)

Eskolan Mañaridan ibili zen hamar urtera arte eta gero Maristetara Durangora. Mutiko kuadrilla joaten ziren, oinez. Batxilerra edo lanbide-heziketa egiteko aukera zegoen han. Mañariko eskola udaletxean zegoen, solairu batean neskak eta bestean mutilak.

204. Mutikotako olgetak: kaniketan, txapaka... (MAN-024/009)

Mutikotako olgetak: kaniketan, txapaka... Nola jolasten zuten. Limonada botilen tapoiak nola prestatzen zituzten. Lurrean arrastoak egiteko klariona edo teila zatia. Iltzeak lurrean sartzen ere jolasten zuten. Neskekin gutxi ibiltzen ziren; haiei nola hitz egin ere ez zuten jakiten!

205. Errekan karramarroak, arrankariak edo ezkailuak harrapatzen (MAN-024/010)

Udan, eguraldi onarekin, errekan ibiltzen ziren egunero karramarrotan. Arrankariak ere harrapatzen zituzten eskuz. Karramarro batzuk harrapatutakoan, pote batera bota urarekin, egosi eta jan. Ezkailutan nola egiten zuten. Mutikotan amari eramaten zizkioten prestatzeko; koskortutakoan tabernara ere bai batzuetan. Ze ingurutan ibiltzen ziren.

206. Errekan ikasi zuten igerian (MAN-024/011)

Errekan bainatu ere egiten ziren. Ura hotza egoten zen. Leku batzuetan lau metroraingo altuera zegoen eta hantxe ikasi zuten igerian. Putzuetan sugeak egon arren, lasai bainatzen ziren. Bainujantziren bat izango zuten, baina askotan biluzik. Inguruko landa baten ugazabarekin izaten zituzten gorabeherak.

207. On Agustin abadearen meza-laguntzaile (MAN-024/015)

Otxandioko abadea zegoen Mañarian: on Agustin. "Bai, jaune" eta "beroi" esan behar. Meza-laguntzaile lanean ibili zen zazpi urtetik hamarrera bitartean. Abadeari meza ematen laguntzea zen egin beharrekoa eta horretarako latinezko errezoak ikasi behar. Egunero egoten zen meza. Astean zehar normal jantzita, baina igandetan elizako arrokekin. Zenbat diru ematen zien abadeak.

208. Aste Santuetako prozesioak Mañarian (MAN-024/016)

Aste Santuetan prozesioak egoten ziren Mañarian. Santua eramatearren ordaindu egiten zuten. Nondik nora joaten ziren. Jende asko joaten zen, denak dotore. Eguen santu egunean jantziak estreinatzen ziren. Urtean zehar beste prozesio batzuk ere izaten ziren.

209. Zapata berrienak igandetan; pilotan zapatilak apurtu (MAN-024/017)

Astean zehar arropa zaharrak eta domeketan dotoreagoak. Uda aldean praka zuriak eramaten ziren. Gaur egun ez da igartzen alderik. Orduan ez ei zen egoten gauza handirik, baina igandeetan zapata berrienak jantzita. Uda batean bost zapatila pare apurtu zituen pilotan. Pareak 100 pezeta inguru balioko zituela dio. Galtzerdi barik erabiltzen zituzten oinetakoak. Abarketak ere erraz apurtzen ziren, bustiz gero.

210. Zapataria eta denetarik zuen denda Mañarian (MAN-024/018)

Mañarian bazegoen zapatari bat. Zapatak konpontzeaz gain, egin ere egiten zituen enkarguz. Abarketak dendan erosten ziren. "Presenen denda"; denetarik egoten zen. Arropak eroatera Durangora.

211. Garai batean hiru taberna Mañarian (MAN-024/021)

Mañarian hiru taberna zeuden garai batean. "Presenenean" jaten ematen zuten eta ezkontzak ere ospatzen ziren. Bodega famatua izan zen. Goizean mezara joan eta handik irten orduko Bodegara. Orduko kuadrilla giroa: edan, jan, pilotan jokatu, kartetan jokatu...

212. Garai bateko Mañariko jaiak (MAN-024/023)

Bera umea zela, txirrindulari lasterketa egon zen Mañariko jaietan. Asto lasterketa ere egiten zen.

213. 1967tik aurrera gazteak Mañariko jaiak antolatzen (MAN-024/024)

1967an herriko 40 gazte elkartu, bakoitzak 100 pezeta inguru jarri eta herriko jaiak antolatzen hasi ziren. Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lurdes Iriondo... bezalako kantariak ekarri zituzten. "Miss Mañaria" ere aukeratu zen 2-3 urtean. Nor izan zen lehenengo "miss"a. Bizkaia osoan zehar jartzen zituzten festetako kartelak eta jende asko batzen zen. Taberna ere ipintzen zuten.

214. 1927an Mañariko herri-lur guztiak banatu ziren (MAN-024/034)

Mañariak zituen herri-lur guztiak banatu egin ziren 1927an. Esaten dutenez, gerra karlista sasoiaren gobernuak dirua eskatu zien Udalei. Mañariak dirurik ez eta herritar batzuek ipini zuten dirua. Udalak ez zuen izango diru hura nola itzuli eta lurra eman omen zitzaizkien herritar horiei, ordain gisa. Jabierren iritziz hori lapurreta izan zen, lurra herritar guztienak zirelako.

215. Osabari artzain lanean laguntzen (MAN-025/009)

Eskolara neguan joaten zen Miren, baina gutxi. Umetatik osabarengana joaten zen artzain lanean laguntzera. Landaluzekoak ziren izatez ama eta osaba eta ardiak hara eramaten laguntzen zion. Eguerdian zerbait jan eta iluntzera arte ezer ez. Berandu baten iristen zen etxera. Emakume batek txokolatea eta ogia ematen zizkion eta bera ardiak hara eramateko zain egoten zen. Bizimodua nola aldatu den.

216. Domekero erromeria Mañarian; ordurako etxera itzuli behar (MAN-025/010)

Erromeriara abarketekin. Garesti irteten zitzairen, dantzan apurto egiten zituzten eta. Domekarako txukun ipini, puntak ebakita. Etxera itzultzeko ordua izaten zuen Mirenek: neguan zortzietan eta udan hamarretan. 13 urterekin hasi zen. Domeka guztietan egoten zen erromeria Mañarian. Soinujoleak. Ordurako etxera joan ezean, zigorra: goizeko seiatarako igitaiekin belarra ebakitzera.

217. Garai bateko erromeriak alaiagoak (MAN-025/011)

Bizimodua nola aldatu den. Lehengo erromeriak alaiagoak, dantza gehiago egiten zen eta. Inguruetako jendea etortzen zen. Izurtzan jaietan bakarrik egoten zen erromeria. Lehengo plaza, lurrezkoa.

218. Mutilek ordaindu egin behar dantza egitearren (MAN-025/012)

Soinujoleek laguna ekartzen zuten, dirua kobratzeko. Mutilek ordaindu behar izaten zuten, dantza egiteagatik. Pezeta bat izaten ote zen. Behin ordaindu eta arratsaldea dantzan pasatzeko aukera.

219. Mañariko eskola zaharrak (MAN-025/017)

Garai bateko eskola zaharrak. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Eskola azpian korta. Hotza sartzen zen arrakaletatik; berogailua. Tabernara nondik sartzen zen. Maria Angelesen sasoiaren esnea ematen zieten eskolan. Maria Angelesek berari gazta eta ogia ematen zizkiotela kontatzen du. Etxean ez zuten askorik izaten eta pozik.

220. Lanik ez zuena eskean edo lapurretan (MAN-027/005)

Garai batean ez zegoen erretirotik eta hil arte lan egiten zen. Lanik ez zuenak ez zuen diru-iturririk eta jendea txarto ibiltzen zen. Eskeko asko ibiltzen ziren eta ijitoak ere bai. Kaleko jendeak gauz jatekoa lapurtzen zuen.

221. Gabino Arana maisua (MAN-027/007)

Gabino Arana maisua. Bi seme zituen. Herriko idazkari lana ere egiten zuen. Istripua izan zuen motoarekin lurretara bidean. Hura erretiratu zenean, beste nafar bat etorri zen: Aranburu.

222. Aitaren poltsikoko erlojua (MAN-027/011)

Aitita eta aita biak dantzazaleak ziren. Orduan irratian muskarik ez zen egoten ia. Jaietan txistulariak. Goizean zain egoten zen, zer ordu zen jakiteko. Poltsikoko erlojua erabiltzen zuen. Behin galdu egin zitzaion eta sekulakoak egin ei zituen bila.

223. Autobusak Gasteizera eta Durangora (MAN-027/013)

Aita batzuetan Gasteizera joaten zen osabarengana. Autobusa egoten zen Durangotik. Autobusak postariaren lana egiten zuen. Domeka iluntzeetan autobusa joaten zen Mañarira, jendea Durangora eramateko. Osaba bera ere sarri etortzen zen Mañarira.

224. Eraikuntza lanean; Fonseco-ko injineruarekin harremana (MAN-027/016)

Izurtza inguruan pabiloi batzuk egiten ibili ziren 25 urte inguru zituela. Sasoi ona zuen eta denetarik egiten zuen. Fonseco enpresako injineruak ea eurekin geratuko zen lanean esan zion eta halaxe hasi zen. Asturiasen arropak bustita injineruarekin bizitako pasadizoa.

225. Udalean zeudenen arteko harremana (MAN-027/019)

Garai batean Udalean egon zirenak ez ziren politikoak; herriaren alde egitearren sartu ziren. Urtean behin ospakizuna izaten zuten Bilbon. Hilean behin bilera egiten zuten eta bi bileratik behin tripakiak jatera joaten ziren tabernara, idazkariak hala esanda. Ez zen mugimendu handirik egoten Udalean, eta dirurik ere ez zegoen; justu-justu idazkaria ordaintzeko.

226. Emakumeak josten ikastera edo neskame (MAN-027/023)

Garai bateko emakumeak josten ikastera joaten ziren. Dirua ateratzeko, berriz, neskame.

227. Aste Santuko prozesioen ibilbidea; enkantea (MAN-027/025)

Aste Santuko prozesioak nondik nora egiten ziren. Prozesioan eraman beharrekoak enkantean jartzen ziren Erramu egunean. Aureliok eta lagunak gurutzetxo bana hartzen zuten. Gero, prozesioan ortozik joan behar. Bekorotzak zapalduta laguna maldizioka ibili zeneko kontuak.

228. Ekaitza zetorrelako prozesiotik arineketan alde (MAN-027/027)

Aste Santuko prozesioak. Behin ekaitza zetorrela eta batzuek alde egin zuten arineketan, santuak eta bestelakoak bertan lagata, eta besteak busti-busti eginda geratu ziren. Aurelio eta laguna beti bihurrikerietarako prest.

229. Elizako pulpitua sermoietarako (MAN-027/031)

Elizako pulpitua meza erdiko sermoia egiteko erabiltzen zen. Egun berezietan (Gorpuzti egunean, adibidez) kanpoko abadeak edo fraideak etortzen ziren eta haiek ere pulpitutik. Arrosarioa ere bertatik errezatzen zen. Garai batean Ama birjinari ematen zitzaion indar handia.

230. Mañaria Izurtzara eraman nahi izan zuten (MAN-029/004)

Saso batean Udala Izurtzan ipini eta Manaria hara pasatzea proposatu ei zuten sekretarioak eta maisuak. Pantxikaren koinatuak (Udalean parte zuen, antza) hala esaten omen zion anaiari: "txoridxe mirue eruen ez, miruek txoridxe erun biher dabela, eta espabiletako!".

231. Otxandioko bonbardaketan laguna hil (MAN-029/014)

Otxandioko taberna batean egon zen neskame eta lagun bat zuen han, Biltegiara azukre bila joan behar zuten, baina bera lanak amaitzen zebilen eta laguna aurreratu egin zen. Otxandio bonbardatu egin zuten eta laguna hil egin zen. Gerora arte ez omen dute jakin senideek non zegoen gorpua,

232. Amak 800 pezetan behia erosi (MAN-029/037)

Gerra sasoiaren batera eta bestera ibili ziren. Amak esnea zuen behia erosi zuen 800 pezeta ordainduta. Gero, behia, txahala eta esnea zituzten. Arroza ere ematen zieten. Beraiek ez zuten goserik pasa.

233. Mañaria urruti; erromeria auzoan (MAN-030/002)

Senarra Mañariko jaietan ezagutu zuen. Erromeriarra gutxi joaten ziren Mañarira, gero gauean etxera bueltatzea ez zen broma eta; laguna izanez gero, gaitz-erdi. Auzoan bertan ere egiten zuten erromeria, emakume batek panderoa jota.

234. Mañariko errogatibak (MAN-030/020)

Mañariko errogatibak. Goizeko zazpietarako ogia eta pattarra eramaten zituen aguazilak elizpera. Elizpean elkartzen zen jendea. Anisa eta koñaka. Gero oinez San Juanera joan eta han errogatibak egin. Soroko gaiak bedeinkatzen ziren. Jende asko joaten zen.

235. Aste Santuko prozesioa Mañarian (MAN-030/023)

Aste Santuan prozesio handia egiten zen Mañarian. Nondik egiten zuten buelta. Kantari onak zeuden. Elizan santuak tapatu egiten ziren. Santuak eramatearren ordaindu egiten zuten.

236. Mañariko Abade-etxea (MAN-030/027)

Abadeak Abade-etxean bizi izan dira Mañarian. Noiz egindakoa den. Elizak baso bat saldu zuen eta diru harekin etxea egin.

237. Madrilera ikasten (MAN-033/003)

Madrilera joan zen herri-lanetako laguntzaile ikasketak egitera; hori dela-eta, gerora eraikuntzan aritu izan zen lanean. Hala ere, sarri bueltatzen zen jaioterrira.

238. Itxasalde batailoiko tenientea (MAN-033/004)

Gerra hasieran, Mañarian egon zen. Itxasalde batailoiko tenientea izan zen. Laredon harrapatu zuten, eta hiru urte eta erdiz egon zen Laredoko eta Puerto de Santa Mariako kartzeletan. Preso zegoela, obretara eraman zuten lanera. Mañariarik bera bakarrik joan zen boluntario. Itxasalde Ondarroan fundatu zen eta bizkaitarrak ziren denak: gernikarrak, ondarroarrak, lekeitiarrak...

239. Kostaldetik Laredoraino borrokan (MAN-033/005)

Itxasalde batailoikoak nondik nora ibili ziren azaltzen du: kostaldetik Bilbora eta Laredora joan ziren. Urtebetean aritu ziren borrokan. Gogorra izan zen: basoan lo, ahal zena jan...

240. Otxandioko bonbardaketatik justu libratu zen (MAN-033/007)

Gerra hasi eta gutxira bonbardatu zuten Otxandio. Izeko bat zuen bertan, eta jaiak pasatzera joan zen. Sabaian lo egin eta goizetik etxerako bidea hartu zuen. Urkiolan zegoela ikusi zuen bonbardaketa. Berarekin batera sabaian lo egin zutenak erre kara salto eginda salbatu ziren; hala ere, etxe horretan 5 hil ziren.

241. Tekniketako tenientea (MAN-033/009)

Itxasalde batailoian 1.000 pertsonatik gora zeuden, lau konpainiatan eta bi sekziotan banatuta. Sekzio bat komunikazioarena zen eta bestea teknikakoa. Estanis tekniketako tenientea zen. 30 soldadu zituen bere aginduetara. Komandantea ondarroarra zen.

242. Batailoiko argazkiak (MAN-033/013)

Itxasalde batailoiko argazki bi erakusten ditu.

243. 40 preso mañariar (MAN-033/015)

Frontean 40 ogerleko inguru kobratzen zituztela uste du. Espainiako kartzela gogorrenetarikoan egon zen: Dueson eta Puerto de Santa Marian. 40 bat preso mañariar egon ziren, bere aita tartean. Bere amari ere isuna jarri zioten.

244. Pagasarrin jausi zen batailoia (MAN-033/018)

Durangoko bonbardaketan, Arabako herri batean egon zen batailoiarekin. Durangora etorri ziren handik gutxira eta oso gogorra izan zen hori ikustea. Pagasarrin (Bilbon) jausi zen euren batailoia. Bera beste batailoia batez batu zen Laredorako bidea eginez. Kide mordoa hil zen beraien batailoian, erdia baino gutxiago. Frontean gaixoei ez zitzaien kasurik egiten.

245. Labarraren inguruko etxeak (MAN-033/019)

Labarrandoerdikoa etxean jaio zen, Labarrondogoikoa eta Labarrondobekoa etxeen alboan. Atzealdean labarra dago.

246. Laredotik Cadizera ganaduen trenean (MAN-033/021)

Laredoko kartzelatik Cadizera trenez joan ziren. Bidaia hori dakar gogora. Bagoi bakoitzean, ganaduaren bagoian, 40 pertsona joan ziren. Bi egun inguru iraun zituen bidaiak.

247. Eraikuntza lanetan aritutakoa (MAN-033/023)

Bilboko "Ganboa y Domingo" enpresan hasi zen lanean gerraostean. Hamar bat urtez han aritu ostean, bere kontura hasi zen beharrean. Hainbat lekutan aritu ostean, Kanariar uharteetan eraiki zituen hiru hotel. Bertan eraiki zuen "Baskonia" izeneko eraikina, sasoi hartan bertako handiena. Bilbon ere badaude berak egindako hainbat eraikin. Domeketan ere lan egiten zuen.

248. Baserritarrak mezara baino ez ziren irteten (MAN-033/026)

Baserrietatik domeketako mezarako baino ez ziren irteten. Auzoko baten kasua kontatzen du. Erljioak ez zien kalterik egin. Gauetan lasai-lasai uzten zituzten ateak zabalik.

249. Durangoko maristetan (MAN-033/029)

Mañaria paraje baketsua izan zen bere umezaroan. 900-1.000 biztanle inguru ziren; gaur egun, oster, 500 inguru, baseri asko baitaude hutsik. Mañariko eskolara joan zen Durangoko maristetara joan aurretik. Durangon euskaraz egiten zen gerra aurretik.

250. Primo de Rivera, karlistak, abertzaletasuna... (MAN-033/030)

Primo de Riveragaz ministroa izandako Estanisegaz batera egon zen preso Puerto de Santa Marian. Euskara guztiz galarazita zegoen sasoi hartan. Karlistak euskalzaleak ziren hasieran, gerran Francogaz batzerakoan galdu ziren. Abertzaletasuna gerrak berotu zuen eta jendea orduan gogortu eta elkar hartu zen. Herri guztietan zeuden Francoren aldekoek eta horiek eraginda hainbat isun egon ziren. Mundua oraindik asko aldatu behar ei da oraindik.

251. Argindarrik gabeko bizimodua (MAN-033/035)

Argindar barik zelan bizi ziren azaltzen du. Kandelak garestiak ziren: 1908. urtean 5 erreal zen jorna, 1912-1914 bitartean 3 pezeta. Goizean goizetik jagitzen ziren argia aprobetxatzeko eta gauean goizetik joaten ziren ohera.

252. Agirre lehendakaria eta batzokia (MAN-033/037)

Mañarira Jose Antonio Agirre etorri zen eta Estanisek egin zion harrera. Gerra aurreko batzokiko idazkaria zen Estanis. Leon Amantegi eta Teodoro Unzalu ziren bere ugazabak. Emakumeak ez ziren batzokian egoten.

253. Emakumea etxean eta gizona kalean (MAN-033/038)

Emakumeak etxean eta gizonak kalean egoten ziren. Etxean andrek agintzen zuten eta dirua ere beraiek kontrolatzen zuten. Estanisek jorna amari ematen zion.

254. "Hamahiru heriotzena" kanta abesten zuen amak (MAN-036/002)

Lehen etxeetan asko kantatzen zuten. Euren etxean amak egiten zuen afalostean. Batzuetan, lastimosoak izaten ziren kantak eta aitak negar egiten zuen. Horietako bat "Hamahiru heriotzena" zen.

255. "Mille bederatzirehun hogeta zazpitan" bertsoak (MAN-036/003)

Auzoan bide berri bat egin zuten eta gai horren inguruan bertso batzuk egin zituzten. Kantapaperak ere atera zituzten bertso horiekin. Luziaren amak kantapaper horiek eduki zituen eta Luziak berak ere hortik ikasi zituen bertsoak. Kanta oso kantatzen du Luziak: "Mille bederatzirehun hogeta zazpitan..."

256. "Alabatxua txingorringorri" eta "Ene maite polita" lokantak (MAN-036/005)

Umeak lokartzeko "Alabatxua txingorringorri..." eta "Ene maite polita ez egin lorik basuan..." kantatzen zuten.

257. Sokan egiteko "Al pasar la barca" (MAN-036/007)

Sokan egiteko "Al pasar la barca me dijo el barquero..." abesten zuten. Jolasteko kanta horiek guztiak erdaraz ziren.

258. Urteberri egunean "Urtebarri barri" kanta (MAN-036/009)

Urteberri egunean "Urtebarri barri, deukenak ez deukenari..." kantatzen zuten.

259. "Erregen, erregen, dale montaña..." kanta (MAN-036/010)

Erregenetako "Erregen, erregen, dale montaña..." kanta.

260. `Hator, hator´ kanta (MAN-036/012)

`Hator, hator´ kanta.

261. San Juan bezperan "San Juan, San Juan" (MAN-036/014)

Urtero abesten dute "San Juan, San Juan, ez dau besterik goguan..." kanta. Sua ere urtero egiten dute.

262. Santa Agedako burlazko koplak: "Atso mondongo" (MAN-036/017)

Luziak "Santa Ageda, Ageda, bixer da Santa Ageda..." abestia daki Santa Ageda bezperarako. Burla egiteko koplak ere bazeuden: "Atso mondongo, mondongo..."

263. "Horra hor goixen" kanta umeei (MAN-036/020)

Umeentzat "Horra hor goixen, abestitu baten..." abesten zuten

264. "Bela, Bela, Jauna" ume-kanta (MAN-036/023)

"Bela, bela, Jauna, non da aitte Jauna..." umeei abesten zieten.

265. San Inazio eguneko kanta (MAN-036/027)

San Inazio eguneko "Inazio, gure patroia haundia..." kanta abesten du pasarte honetan.

266. "Agure buruzuri, oillanda zalie" koplak (MAN-036/029)

Neskatilei begira egoten ziren agureei honakoa kantatzen zieten: "Agure buruzuri, oillanda zalie..."

267. Gerra sasoiko kantzak (MAN-036/032)

Gerra sasoian kanta pare bat ikasi zuten: "Eusko gudariak gera, Euskadi askatzeko..." eta "Goazen mendirik mendi euskotar guztiok..."

268. "Ene neure polita zer dozu negarrez" kanta (MAN-036/034)

"Ene neure polita zer dozu negarrez..." kanta abesten du pasarte honetan.

269. "Sasiak sortzen dira solo ederretan" bertsoa (MAN-036/036)

"Sasiak sortzen dira solo ederretan..." hasten den bertsoa abesten du pasarte honetan.

270. "Bat, Matxin parrat" (MAN-036/038)

"Bat, Matxin parrat; bi, Matxin eperdi..." errezitatua daukagu pasarte honetan.

271. "Txomin Domingo Paguetako" eta "Aita San Migel Ixorretako" koplak (MAN-036/042)

"Txomin Domingo Paguetako, Lekeitiyoko semie..." eta "Aita San Migel Ixorretako zeru altuko lorie..." koplak abesten ditu pasarte honetan.

272. "Katalamixon" kanta-jolasa (MAN-036/044)

"Katalamixon, nondik etorri?; gaztelutik; Zer ekarrik?..." kanta-jolasa egiten zuten umetan.

273. Jentilak, Mariurrika eta Sakamantekas (MAN-036/047)

Jentilak ikusten ez ziren izakiak ziren. Mariurrika, ostera, Mugarratik Antobotora pasatzen zela esaten zuten. Sakamantekasek harrapatuz gero, odola ateratzen zuela uste zuten.

274. Bidegurutzeetan arimak agertu (MAN-036/048)

Bidegurutzeetan arimaren bat topatuz gero, aitaren egin eta desagertu egiten zela esaten zuten. Olio usainak sorginak-edo zeudela esan nahi ei zuen. Sorgin kontuak-eta, hala ere, euren sasoia baino lehenagoak izan ziren.

275. Saibitik kanoikada etxe ondora (MAN-036/050)

Gerra sasoia oso gogorra izan zen. Saibiko borrokak etxetik ikusten zituzten eta baten etxe ondoan kanoikada jausi zitzairen. Oraindik daude etxean metraila zuloak.

276. Etxetik irten behar izan zuten gerra sasoian (MAN-036/051)

Gerra sasoian, ama arropen xaboia kentzen joan zen errekarara. Saibitik ikusi egin zuten eta kanoikada bota zuten euren etxe ingurura. Orduen ebatzi zuten etxetik alde egin behar zutela.

277. Saibiko borrokatik ihesi zihoazelan neba zauritu zuten (MAN-036/052)

Arineketan egin zuten alde etxetik, Saibiko borrokatik babesteko. Bidean zihoazela, tiroa jaurti zieten eta hankan sartu zitzaion metraila nebari. Gero, milizianoek euren botikinera eraman zuten neba.

278. Gurasoak kanpoan zirela, milizianoek jaten eman (MAN-036/053)

Gerra sasoian, umeak amamarekin geratu ziren etxean, gurasoak kanpoan ziren eta. Milizianoek eman zieten zeozer jateko. Azkenean, gurasoak ere onik etorri ziren etxera.

279. Mañariara Karlistak sartu (MAN-036/054)

Otxandio aldetik sartu ziren Mañariara Karlistak. Maiatzaren 22an izan zen eta gero urteetan ospatu ere egiten zuten egun hori.

280. "Txotxo Arratixako" kopla (MAN-036/057)

"Txotxo Arratixako, etxeukat dirurik..." kopla abesten du pasarte honetan.

281. Politika etxean (MAN-037/001)

282. Gerra aurreko eskola eta euskara (MAN-037/002)

283. Otxandioko bonbardaketaz (MAN-037/003)

284. Martxoaren 31ko bonbardaketa (MAN-037/004)

285. Milizianoek Emiliren aita eta Katxin hartu (MAN-037/005)

286. Emili: batetik bestera nazionalak sartu arte (MAN-037/006)

287. Adrian: errekiatutako kamioiak (MAN-037/007)

288. Adrian: Mañaritik ihes (MAN-037/008)

289. Adrian: Belgikan (MAN-037/009)

290. Adrian: Belgikatik Mañariara itzulera (MAN-037/010)

291. Jabetzak errekiatu eta Sierraren mehatxuak (MAN-037/011)

292. Adrian: aita kartzelara (MAN-037/012)

**293. "Plato único": derrigorrean egin beharreko
"borondatezko" ekarpena (MAN-037/013)**

**294. Angel Garamendik Sierrarekin topo Laguardian
(MAN-037/014)**

**295. Adrian: ama kartzelatik bueltan euskaraz egin ezinda
(MAN-037/015)**

296. Mañariar gehiago kartzelan (MAN-037/016)

**297. Adrian: amari isuna herriko jendeak salatuta
(MAN-037/017)**

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com